

PEDAGOGIA

Alvaro GARDE LAURNAGA

Irakurtzeko gaitasunaren
garapena Lehen Hezkuntzan
XXI. mendean

GBL 2017

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana

**Irakurtzeko gaitasunaren garapena Lehen
Hezkuntzan XXI. mendean**

Alvaro GARDE LAURNAGA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Alvaro GARDE LAURNAGA

Izenburua / Título

Irakurtzeko gaitasunaren garapena Lehen Hezkuntzan XXI. mendean

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Luis IZA DORRONSORO

Saila / Departamento

Psikologia eta Pedagogia

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2016/2017

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarritzko prestakuntzako moduluak zer erran handia izan du lanaren osotasunean. Ondotik aipatuko den gisan, zenbait irakasgaietako materiala izan dira teoria puntu batzuk garatzerako orduan abiapuntu izan direnak, eta atal praktikoa ere toki handia izan dute praktiken egunerokotasunean. Izan ere programa honetako lan orriak prestatzerakoan, ezinbertzekoa da ikasleek dituzten ezaugarriak (psikologikoak, kognitiboak...) aintzat hartzea materialak prestatzeko, gelan lanean jarduteko...

Didaktika eta diziplinako moduluak ere bere tokia izan du lan honetan. Alde batetik atal teorikoa egiterakoan Hizkuntzaren Didaktika irakasgaien landutako hainbat eduki baliagarriak izan dira zenbait atal osatzeko eta bertzetik, Bikoteka Irakurtzen programa burutzerakoan ere baliabide ugari erabili izan dira.

Halaber, Practicum moduluak zer erran handia izan du lan hau egiterakoan, izan ere lan honetako atal praktikoa praktikak egin ditudan ikastetxean martxan jarri dut, Bikoteka Irakurtzen programak dituen onurak bertatik bertara ikustearren. Praktika gabe ezingo nuen lan honetan egin dudana atal praktikorik egin

Azkenik, aukerako moduluak bidea eman dit gelan topatu dudana aniztasuna kudeatzeko. Pedagogia Terapeutikoko aipamena egin dudanez, Hezkuntza Laguntzaren Berariazko premiak dituzten ikasleen inguruko informazio anitz jasotzeko aukera izan dut, eta ohikoa den gisan, lan egin dudana ikastetxean aniztasuna dagoenez, arraz lagungarriak suertatu zaizkit bertan jasotako hainbat eta hainbat baliabide.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira sarrera eta ondorioak atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Lan honetan irakurketa gaitasuna behar bezala lantzeak nola berorrek egunerokotasunean duen zer erranaren garrantzia azpimarratzea izan da helburu nagusietako bat. Irakurtzen den hura behar bezala ulertzen ez bada, eskoletan suertatzen diren arazo anitzen jatorri izan daiteke. Egin izan diren kanpo ebaluazioetan, irakurketaren ulermenaren zenbait emaitza islatu dira lan honetan eta hobekuntzak egin daitezkeela nabaria da. Hala, irakurriaren ulermena hobetu nahian, ikastetxean zer erran handia izan dezaketen zenbait proposamen eta hauen garapena egin dira, hala nola ikastetxeko irakurketa eta idazketa plana, *National Reading Panel*ek aipatzen dituen osagai ezberdinen lanketa edota metodologia kooperatiboen garapena. Azken hau izan da lan honetako atal praktikoaren ardatz. Metodologia kooperatibok dituzten onurak ikusiz eta batik bat Bikoteka Irakurtzen programa ezarri den ikastetxetako emaitza onak kontuan hartuz, Landa eremuko eskola batean hau garatu da atal praktikoan ikus daitekeenez.

Hitz gakoak: Irakurketa gaitasuna; Irakurriaren ulermena; Ikastetxeko irakurketa eta idazketa plana; metodologia kooperatiboak; bikoteka irakurtzen.

Resumen

En este trabajo uno de los objetivos principales ha consistido en destacar la importancia que tiene la competencia lectora en el día a día. En caso de no entender adecuadamente aquello que se lee, esta discordancia puede ser el origen de muchos problemas que suceden en las escuelas. En las evaluaciones externas realizadas, se han reflejado algunos resultados sobre la comprensión lectora y es obvio que se pueden realizar mejoras. Así pues, por un lado, se han realizado algunas propuestas que pueden ser muy significativas a la hora de mejorar la comprensión lectora, y por otro lado, también se ha seguido su desarrollo. Algunas de estas propuestas son, por ejemplo, el plan de lectura y escritura, el trabajo de diversos elementos que nos menciona “*National Reading Panel*” o el desarrollo de las metodologías cooperativas. Este último enfoque ha sido la base de la propuesta práctica en este trabajo. Viendo los aspectos positivos que tienen las metodologías cooperativas y teniendo en cuenta

los resultados positivos que han tenido los centros escolares en los que se ha llevado a cabo, se ha decidido poner en marcha el programa en un centro de un entorno rural.

Palabras clave: Competencia lectora; comprensión lectora; Plan de Lectura y Escritura del Centro; metodologías cooperativas; Leemos en Pareja.

Abstract

One of the main objectives of this work has been to emphasize the importance of reading competence in everyday life. In case students do not understand what they read, this discordance can be the source of many problems that happen in schools. Some results on reading comprehension on external assesment have been reflected and it is obvious that improvement is possible in this area. Thus, on the one hand, some proposals have been made that can be very significant in improving reading comprehension and, on the other hand, they have also been followed in their development. Some of these proposals are, for example, the reading and writing plan, to focus on the elements mentioned by the National Reading Panel or the development of cooperative methodologies. This last approach has been the basis of the practical proposal in this work. Bearing in mind the positive aspects of the cooperative methodologies and taking into account the positive results of the schools in which it has been carried out, it was decided to start the program in a rural setting.

Keywords: Reading competence; Reading comprehension; The reading and writing plan; Cooperative methodologies; Pair reading.

Aurkibidea

INTRODUCCIÓN	1
1. Proiektuaren helburuak eta nondik norakoak	3
2. Atal teorikoa	5
2.1. Oinarrizko gaitasunak	5
2.2. Irakurketa gaitasuna	7
2.3. Testu motak eta testu genero motak	11
2.4. Kanpo ebaluazioak: PISA ETA PIRLS	14
2.5. National Reading Panel	19
2.6. Ikastetxeko irakurketa eta idazketa plana	32
2.6.1. Irakurketa planaren prestakuntza	35
2.6.2. Irakurketa eta idazketa planaren osagaiak	36
2.7. Ikaskuntza kooperatiboa	38
2.7.1. Irakurketa dialogikoa	42
2.7.2. Bikoteka irakurtzen	44
3. Atal praktikoa	53
3.1. Ikastetxea eta ingurunea	52
3.2. Programan erabilitako materiala	55
3.2.1. Lan orriak	56
3.3. ACL probetan lortutako emaitzak	92
3.3.1. Programa egin aitzinetik egindako ACL probaren emaitzak	92
3.3.2. Programa egin ondotik egindako ACL probaren emaitzak	93
Conclusiones y cuestiones abiertas	94
Bibliografia	96
Eranskinak	99

INTRODUCCIÓN

En este trabajo de fin de grado he intentado realizar algunas especificaciones sobre la lectura, dando la importancia que tiene en la vida real y realizando propuestas para elaborar de una forma correcta.

La lectura siempre me ha llamado la atención. Cuando éramos pequeños solíamos pasar ratos agradables leyendo libros. Yo estudié en el colegio de Arraioz, un colegio pequeño donde solíamos estar los de infantil y primaria juntos. Leíamos libros todos juntos, entre nosotros, el profesor para todos...y después charlábamos de lo que habíamos escuchado o leído (comentando lo que nos había gustado, repitiendo lo que no habíamos entendido...). La verdad que fueron unos momentos tiernos y enriquecedores. Por ello, quiero aprovechar para poner en práctica un estudio sobre este tema que tanto me interesa.

Gracias a este trabajo he podido aprender mucho. Ya que, después de haber empezado a estudiar el tema y averiguar en diferentes evaluaciones externas, vi que el nivel de lectura en España era bastante bajo. Después de haber visto esto, aumentó aún más el interés que tenía sobre el tema, y saber cuáles son los aspectos fundamentales para poder mejorar me pareció imprescindible. Así, y después de investigar en trabajos de diferentes autores y en varios idiomas, se han realizado diferentes especificaciones. Siendo las cosas así, y cogiendo la lectura como punto de partida y las nuevas metodologías, he conseguido el resultado que tenemos en mano. Y comentar también, que me siento muy satisfecho con el trabajo realizado.

En lo que se refiere a la estructura del trabajo, se pueden diferenciar la parte teórica y la parte práctica. En cuanto a la teoría, en la capacidad básica, la capacidad lectiva, la importancia de la utilización de diferentes tipos de texto y género, diferentes evaluaciones externas (pruebas externas como PIRLS y PISA) en el panel de *National Reading Panel*, me he centrado sobre todo en el plan lectivo del colegio y en la enseñanza cooperativa, con la intención de crear una red entre ellos. En la parte práctica en cambio, se ha basado en la lectura por parejas, ya que sea visto que se han dado resultados muy positivos hacia la comprensión de lo leído. En mi caso, este

programa lo he puesto en marcha en el colegio público de Irurita, y para ello he creado el material necesario.

Por último, disfrutad del trabajo y aprender tanto como he aprendido yo, ya que eso ha sido uno de los objetivos. Que sea útil para todos los que lean y sentir que realmente es útil.

1. Proiektuaren helburuak eta nondik norakoak

Ondoko lerroetan Gradu Bukaerako Lan hau egin aitzinetik ezarritako xedeak edo helburuak zehaztuko dira lanaren nondik norakoak azaltzeko eta gai hau hartzearen arrazoiak plazaratzeko.

Alde batetik irakurketaren garrantzia azpimarratzea ezinbertzekoa iruditu zait. Nik bizitako esperientzia murriztean ikusi dudanaren arabera, irakurketa hizkuntza saioei edo arloei dagokien zerbait bezala ikusteko joera ikaragarria egon delakoan eta dagoelakoan nago. Ene iritziz aldiz, hori akats handia da, izan ere irakurketa arlo guztien oinarria baita. Zer izanen litzateke matematika ongi irakurtzen jakin gabe edo irakurtzen den hori ulertu gabe?

Bertze aldetik, Ikastetxe batean ongi egindako irakurketa eta idazketa plan baten garrantzia zein den azaltzea izan da bertze helburu nagusietako bat. Izan ere horrelako plan egituratu bat izanez gero emaitza arras onak lor daitezke aitzinetik aipatutako helburuaren harira.

Lan honetan garrantzi handia eman nahi izan diodan bertze alderdietako bat irakaskuntza kooperatiboaren presentzia izan da. Gaur egun indar handia ari dira hartzen metodologia berritzaile eta parte hartzaileak eta irakurketarekin lotura dutenak ere badaude: Irakurketa dialogikoa eta bikoteka irakurtzen programak adibidez.

Nire proiektuaren atal praktikoa Bikoteka Irakurtzen programan oinarritu dut. Arras aberatsa iruditu zait Irurritako eskola publikoa bezalako ikastetxe txiki batean horrelako programa bat aplikatzea eta benetan horrelako errealitateetan ere modu honetako metodologiek emaitza onak izan ditzaketela erakustea. Hortaz, lan honetan murgiltzea erabaki nuen.

Bertze helburu garrantzitsuetako bat lau urte hauetan ikasitako guztia eta egindako lan guztia erakutsi nahiko nuke. Izan ere lan hau egiteko arras baliagarriak izan zaizkit Irakasle Lanbidea, Hizkuntzaren Didaktika edo Hezkuntza Inklusiborako proposamen pedagogikoak bezalako irakasgaiak. Modu honetan irakasgai horietan eta bertze zenbaitetan ikasitakoari eta egindakoari aplikazioa bilatu diodalakoan nago.

Eta helburuekin akitzeko, niretzat bereziki berezia izan den helburua eskola txikien borondatea eta laguntzeko gogoia erakustea izan da, gizartean hauek duten garrantzia eta presentzia azpimarratuz. Lan hau ez litzateke berdina izanen Iruritako eskola publikoak emandako baliabide eta aukera guztiak gabe, izan ere bikoteka irakurtzen programa bertan egiteko proposatu nuenean beso zabalik hartu zuten proposamena.

Hau guztia jakinik, espero dut ezarritako helburuak lan honekin beteko ditudala eta lan hau irakurtzen dutenei egindakoa baliagarria izanen zaiela.

Laburbilduz, lanaren helburuak ondoko puntuetan labur daitezke:

- Irakurketaren garrantzia azpimarratzea.
- Ikastetxe batean behar bezala egindako irakurketa eta idazketa plan batek izan dezakeen eragin positiboa erakustea.
- Ikastetxeetan irakaskuntza kooperatiboak duen presentzia erakustea eta honen alderdi positiboak plazaratzea.
- Bikoteka irakurtzen programa eskola txiki batean aplikatzea eta honen emaitzak plazaratzea.
- Irakasgai desberdinen ekarpenak gaitasun honen garapenean kontuan hartzea.
- Eskola txikien borondatea eta laguntzeko gogoia erakustea.

2. Atal teorikoa

2.1. Oinarrizko gaitasunak

Oinarrizko gaitasun kontzeptuaz mintzatzerakoan zalantza anitz suertatzen dira hitz honen esanahia zein den definitzerakoan. Hau horrela izanik, zenbait definizio ematea bide egokia izan daiteke, kontzeptura iristeko bideari hasiera bat emateko.

“El conjunto de conocimientos, destrezas, y actitudes esenciales para que todos los individuos puedan tener una vida plena como miembros activos de la sociedad”¹. (Eusko Jaurlaritza, 2008, 5)

Bertze definizio bat honakoa izan daiteke: “Una combinación de conocimientos, capacidades y actitudes adecuadas al contexto. Las competencias clave son aquellas que todas las personas precisan para su realización y desarrollo personales, así como para la ciudadanía activa, la inclusión social y el empleo.”² (Figel, 2010, 3)

Aipatutako definizio aintzat hartuz, honako ondorio hauek atera daitezke oinarrizko gaitasun terminoaren inguruan:

Alde batetik nahiz eta ezagutza kontuan izan, gaitasun hitzaren oinarria, zerbait egiten jakitea da. Hala ere ez da nahikoa testuinguru bakar batean egiten jakitea, ezinbertzekoa izanen da testuinguru ezberdinetan egiten dakiela erakustea.

Bertzetik, gaur egun legeak zehazten dituen gaitasun bakoitzak, jarrerak, prozedurak eta ezagutzak hartzen ditu aintzat.

Gure kasuan, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumak 8. artikuluan zehazten duenaren arabera (LOE, LOMCEk aldatutako legean oinarriturik), komunitateko ikasle guztiek honako gaitasun hauek eskuratu beharko dituzte etapa hau akitzen dutenean:

- 1- Hizkuntza komunikazioa.
- 2- Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasuna.

¹ Ezagutzen, trebetasunen eta beharrezko jarreraren multzoa, banako guztiek bizitza osatua izan dezaten gizarteko kide aktibo gisa.

²Testuingurura egokitutako ezagutzen, gaitasunen eta jarrera egokien konbinazioa. Oinarrizko gaitasunak pertsona gisa garatzeko eta parte hartzeko, hiritar aktibo izateko, inklusio sozialerako eta gizartearen baliatzeko pertsona guztiek beharrezkoak dituzten gaitasunak dira.

2.1 Matematika gaitasuna.

2.2 Zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.

3- Gaitasun digitala.

4- Ikasten ikastea.

5- Gaitasun sozial eta zibikoak.

6- Ekimena eta ekintzailtza.

7- Kultura kontzientzia eta adierazpenak.

Argi eta garbi ikus daitekeenez, aldaketa eman da LOEn zehazten ziren oinarrizko gaitasunetatik LOMCEk zehazten dituenetara. Aitzineko legean zortzi oinarrizko gaitasun zehazten ziren eta oraingoan berriz zazpi dira, nahiz eta baten barnean bi azpi gaitasun zehazten diren.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak publikatutako Lehen Hezkuntzako curriculumean zehazten den bezala, ezinbertzekoa da aipatutako zazpi gaitasun hauek behar bezala lantzea pertsona gisa gizartean arrakasta izan ahal izateko.

Gaitasunen inguruan luze eta zabal mintzatu daiteke bat, baina lan honetan hizkuntza komunikazio gaitasuna edo zehazkiago erranda irakurketa gaitasuna landuko da modu sakonago batean, lan honen mamia irakurketa (eta idazketa zenbait kasutan) izanen baita.

Aipagarria da hizkuntza komunikazio gaitasuna behar bezala garatzea, ezinbertzekoa izanen dela bertze gaitasun batzuk eskuratzeko. Adibide aski garbia honakoa izan daiteke: Ezinezkoa izanen da matematika gaitasuna garatzea (problema ebaztea adibidez) hizkuntza eta zehazkiago erranda irakurketa ez bada behar bezala menperatzen. Hortaz, curriculumak ederki zehazten duenez, "irakurtzeko estrategien eta testu idatzen ekoizpenaren irakaskuntzari tratamendu berezia emanen zaio. Gainera, egunero irakurtzeko denbora erreserbatu beharko da arlo guztietan, horrek deusetan galarazi gabe irakurketa sustatzeko behar beste saio gehigarri ezartzea."(60/2014 Foru Dekretua, 8. Artikulua, 4)

Azpimarragarria den bertze ideia bat arlo guztietan irakurketari tartetxo bat ematea izanen litzateke. Irakasgai guztietan ezinbertzekoa izanen da irakurtzeko eta idazteko gaitasunak behar bezala eskuratuak izatea, eta hortaz tartetxo bat ateratzen bada hau lantzeko, aurrerapen arras esanguratsuak lortu daitezke oro har haurrarengan.

2.2. Irakurketa eta idazketa gaitasuna

Oinarrizko gaitasunen inguruan mintzatu ondotik eta hizkuntza bidezko komunikazio gaitasunak duen garrantzia azpimarratu ondotik, irakurtzeko eta idazteko gaitasunen inguruan mintzatzea ezinbertzekoa da, bertze oinarrizko gaitasunak eskuratzeko ezinbertzekoa baita irakurketa eta idazketa behar bezala garatuak izatea.

Lehenago erran bezala, posible izanen ote litzateke matematika gaitasuna erdiestea irakurtzen edota idazten ikasi gabe? Galdera honen erantzuna aski garbia da, izan ere egunerokotasunean topa ditzakegun problema matematikoak ebatzi ahal izateko, lehenik eta behin beharrezkoa baita problema hori irakurtzea eta ondotik ebazteko eman beharreko pausu guztiak idaztea.

PISAko txostenaren arabera, irakurtzeko gaitasuna honela definitzen da: “Competencia lectora es comprender, utilizar, reflexionar e interesarse por los textos escritos, para alcanzar los propios objetivos, desarrollar el conocimiento y potencial personales, y participar en la sociedad.” (OCDE, 2016, 56).

PISAko txosten honetan ematen den definizioarekin, argi eta garbi geratzen da irakurtzen duenak parte hartze aktiboa duela egiten duen irakurketa horretan. Izan ere testu ezberdinak irakurtzen direnean (jarraiak, etendunak...) informazio ezberdina eskuratzen da, eta askotan informazio hori eskuratzeak, ekintza ezberdinak egitea dakar berarekin.

Solék (1992) bere lanean aipatzen duen gisan, irakurketa irakurlearen eta testuaren artean sortzen den elkarreragina da, non irakurleak lehenik dituen esperientzia eta pentsamenduetara jo behar duen idatzitako testuari aurre egiteko. Azken batean irakurtzerakoan garrantzi handia izaten du testuak berak, irakurleak aitzinetik dituen ezagutzak eta irakurleak irakurketa horrekin erdietsi nahi dituen

helburuek. Hau horrela, argi eta garbi geratzen da irakurlea subjektu aktiboa dela irakurtzen duenean, eta hau horrela da, testuaren esanahiaren inguruan hausnartzen duelako eta honen inguruko interpretazioak egiten dituelako helburu ezberdinetatik abiatuz. (Durán, 2011).

Egia da nahiz eta zenbait kasutan irakurtzeko gaitasuna testuak deskodifikatzea eta ulermen literala izatea zen, gaur egun ikuspegia aldatu da eta oraingoa haratago doa irakurlearen inplikazioa barne hartzen duelarik.

Gizartean parte hartzeko adibidez, nahitaez kritikoa izan behar da testuak irakurtzerakoan. Askotan helarazten den informazioa intentzionalizatu izaten da, hau da xede edo ideia batek markatua izaten da, eta hortaz, ezin da testu horien aitzinean ulermen literal bat egin. Testu horiek analizatu eta hausnartu behar dira, modu horretan erantzuna zentzuduna izan dadin.

Izak (2007) jasotzen duen bezala, Andre Maurois frantziar idazleak honako hitz hauek erraten ditu: “Liburu on bat irakurtzea etengabeko elkarrizketa da, eta elkarrizketa horretan liburuak hitz egiten du eta arimak erantzuten dio”.

Zayas adituaren arabera, irakurketa gaitasunak ondoko ezaugarri hauek beteko lituzke.

- “La competencia lectora es una competencia básica. (...)”
- Leemos en diferentes situaciones y con objetivos diversos. (...)”
- La lectura está condicionada por las características de los textos. (...)”
- Los lectores interactuamos de diferentes maneras con los textos según lo que necesitamos hacer con ellos. (...)”
- Localizar y seleccionar información implica definir los objetivos de la lectura, conocer las fuentes y valorar su pertinencia. (...)”
- Procesar información requiere integrar ideas e interpretar sus relaciones. (...)”
- Saber leer supone saber reflexionar sobre el contenido de los textos. (...)”
- Saber leer implica saber reflexionar sobre la forma del texto. (...)”
- El compromiso individual con la lectura es un factor clave de la competencia lectora. (...)”

- El lector competente posee un saber metacognitivo.”³ (Zayas, 2012, 13-16).

24/2007 Foru Dekretuan, I. eranskinaren 1. puntuan zehazten zen gisan, “Irakurri eta idazteak bidea ematen digute informazioa bilatu, bildu eta prozesatzeko eta asmo komunikatiboa edo sortzailea duten testu mota desberdinak sortu eta erabiltzeko. Irakurtzeak idatzizko hizkuntza erabili ahal izateko kodea interpretatu eta ulertzea ahalbidetzen digu, eta, gainera, atseginarenean iturria da, bestelako inguruneak, hizkuntzak eta kulturak ezagutzeko bidea eta fantasiaren eta jakinduriaren sorburua, eta horrek guztiak komunikatzeko gaitasuna mantendu eta hobetzeko laguntza ematen du”.

Orain indarrean dagoen foru dekretuan, 60/2014 Foru Dekretuan 8. artikuluko 3. puntuan aipatzen den bezala, “Hizkuntza komunikazioko gaitasuna gainerako gaitasunak eskuratzeko funtsezko faktorea denez, irakurtzeko estrategien eta testu idatzien ekoizpenaren irakaskuntzari tratamendu berezia emanen zaio. Gainera, egunero irakurtzeko denbora erreserbatu beharko da arlo guztietan, horrek deusetan galarazi gabe irakurketa sustatzeko behar beste saio gehigarri ezartzea”.

Dekretu honek aipatzen duena aintzat hartzen bada, argi eta garbi geratzen da irakurtzeko eta idazteko gaitasunak egunerokotasunean ekintza ezberdinak egiteko beharrezkoak diren tresnak direla. Hortaz, arras garrantzitsua da derrigorrezko etapetan (lehen hezkuntzan zein bigarren hezkuntzan) bi alderdi hauei euren garrantzia azpimarratzea eta arlo bat baino gehiagotan lantzea.

Haurrek irakurtzen ikasteko, irakasleek irakatsi beharreko estrategiak zein diren izaten da irakasle askoren zalantza, eta nik ere kuriositate horixe izan dut majisteritza ikasketak hasi nituenetik. Soleren arabera (1992) Irakurle batek testu bat irakurtzen duenean, haren irakurketan xedeak zein diren argi eta garbi izan behar ditu. Testu

³Oinarrizko gaitasuna da. Egoera ezberdinetan eta helburu ezberdinekin irakurtzen dugu. Irakurketa testuen ezaugarriak direla eta baldintzatua dago. Testuekin egin nahi dugunaren arabera izaten da irakurleek testuarekin izaten dugun elkarrekin. Informazioa lokalizatzeak eta aukeratzeak irakurketaren helburuak definitzea, iturriak ezagutzea eta egokitasuna baloratzea eskatzen du. Informazioa prozesatzeko ideiak interpretatzea eta haien artean dauden erlazioak ulertzea eskatzen du. Irakurtzen jakiteak testuen edukien gainean hausnarketa egitea eskatzen du. Irakurtzen jakiteak testuen formaren gaineko hausnarketa egitea eskatzen du. Irakurtzeko gaitasuna eskuratzeko norberak irakurketarekin duen konpromisoa beharrezkoa da. Irakurle trebe bat prozesu metakognitibo anitzen jabe da.

horrekiko erranguratsuak diren aurre ezagutzak aktibatu behar ditu eta testuko informazio erranguratsuenean jarri behar du fokua. Testuaren edukiaren eta haren aurre ezagutzen arteko trinkotasuna ebaluatu beharko du, jarrera kritikoa hartuz. Etengabe egiaztatu beharko du testua ulertzen ari ote den eta gainera inferentziak, interpretazioak, hipotesiak eta ondorioak egin beharko ditu.

Kanpo ebaluazioen artean, gaur egun irakurriaren ulermena ebaluatzeko, PISArekin batera PIRLS ere aurkitzen da. Azken honen arabera, irakurtzeko gaitasuna honela definituko litzateke: “La competencia lectora es la habilidad para comprender y utilizar las formas lingüísticas requeridas y/o valoradas por el individuo. Los lectores son capaces de construir significado a partir de una variedad de textos. Leen para aprender, para participar en las comunidades de lectores de ámbito escolar e de la vida cotidiana y para su disfrute personal”⁴. (Mullis eta Martin, 2016, 12)

Irakurtzeko gaitasuna eskuratzeak, irakurriaren ulermen maila ona izatea dakar berarekin, ezinbertzekoa baita testuak haien osotasunean behar bezala ulertzea. Horretarako, Duke, Pearson, Strachan eta Billmanek (2011), ikasleen irakurriaren ulermena hobetzeko, irakasleek kontuan izan beharko lituzketen 10 osagai zehazten dituzte:

- Irakasgaiarekin eta gizartearekin lotutako jakintzak transmititzea.
- Testuen egiturak irakastea.
- Hizkuntza eta hiztegia jakintza gisa irakastea.
- Irakaskuntza pertsonalizatua.
- Haurrentzat motibagarriak diren eta testuinguratuta dauden testuak erabiltzea.
- Testu mota eta testu genero mota ezberdinen erabilera.
- Testuak ulertzeko estrategia ezberdinen irakaskuntza.
- Irakurketa eta idazketa integratzea.
- Behatzea eta aholkuak ematea.

⁴Irakurtzeko gaitasuna gizabanakoak eskuratutako eta baloratutako forma linguistikoak ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna da. Irakurleak gai dira definizioak eratzeko irakurtzen dituzten testuetatik abiatuta. Ikasteko, Eskola eremuko eta egunerokotasuneko irakurleen komunitateetan parte hartzeko, irakurtzen dute.

- Ikasleekin eztabaidak sortzea.

2.3. Testu motak eta testu genero motak

“Zein testu mota da aitzinean dugun testu hau?” galdera izan da Bikoteka Irakurtzen programarako prestatu ditudan lan orrietan sarritan egindako galderetako bat. Ikasleei, irakurri aitzinetik, zenbait galdera egiten zaizkie testuari lehen begirada bat eman ondotik ikusi dutenarekin erantzuteko eta horien artean behin baino gehiagotan agertu da aipaturikoa.

Bertan ikusi dut guri suertatzen zitzaizkigun zalantzak oraindik ere hor segitzen dutela, galdera hori galdetu eta “ipuina”, “errezeta” bezalako erantzunak jasotzea, “narrazio testua” edo “jarraibide testua” jaso beharrean. Hortaz, ezinbertzekoa iruditu zait lan honetan gai honi atal bat eskaini eta zenbait informazio zehaztea, ene iritziz behintzat, zenbait ideia argituko direlako.

Eskuratutako informazioan eta Iza (2007) liburuan oinarrituz, komunikazio asmoa sailkatzeko irizpidetzat hartuz gero, testu motak honako hauek izanen lirateke: Narrazio testua, azalpen testua, deskribapen testua, argudio testua eta jarraibideak emateko testua. Aldiz Caño eta Lunak (2011) bertze testu mota bat ere aipatzen dute haiek egindako lanean, transakzio testua alegia.

Ondoko taula honetan testu mota eta testu-genero mota ezberdinak laburtzen saiatuko naiz, ideiak modu sintetiko eta argiago batean adieraztearren.

1. taula Testu motak eta testu-genero motak

Testu mota	Testu-genero mota
Narrazio testua	<ul style="list-style-type: none"> • Berria • Kondaira • Alegia • Ipuina • Komikia • ...
Azalpen testua	<ul style="list-style-type: none"> • Azalpen testua

	<ul style="list-style-type: none"> • Hiztegia • Laburpena • Definizioa • ...
Deskribapen testua	<ul style="list-style-type: none"> • Mapa • Ordutegia • Deskribapen subjektiboa • Deskribapen teknikoa • ...
Argudio testua	<ul style="list-style-type: none"> • Iruzkina • Iritzi artikulua • Zuzendariari gutuna • ...
Jarraibide testua	<ul style="list-style-type: none"> • Errezeta • Arauak • ...
Transakzio testua	<ul style="list-style-type: none"> • Gutuna • Sare sozialak • Posta elektronikoa • ...

Testuak sailkatzerakoan ez da komunikazio asmoa soilik kontuan hartzen, badira bertze zenbait alderdi ere sailkatzeko irizpide gisa har daitezkeenak ere. “formatuaren arabera testuak jarraituak eta etendunak izan daitezke; literaturan, komunikabideetan, erakundeekiko harremanetan, pertsonen arteko harremanetan edo hezkuntzan erabiltzen direnen arabera ere sailka daitezke; errealitatean oinarritutako testuak eta fikziozko testuak. Gaiaren arabera testuak humanistikoak, zientifiko teknikoak, publizitarioak... izan daitezke; komunikazio helburuari dagokionez, testuek balio izan dezakete informazioa emateko, aginduak emateko, norbait konbentzitzeko, olerkiak egiteko...;” (Iza, 2007, 15).

Varios-ek (2007) azpimarratzen dute Aipagarria dela azken aldian oihartzun handia izan duen sailkapen irizpidea PISAko ebaluazioan kontuan hartzen dena izan dela, hau da formatuaren arabera. Honen arabera testu jarraituak enuntziatu ezberdinez osatuak daude eta hauek paragrafoetan, ataletan, kapituluetan edo liburuetan antolatuta egon daitezke. Aldiz testu etenek, informazioa testu formatuan emateaz gain, bertze zenbait modutan ere eman dezakete: mapen bidez, grafikoen bidez...

Eusko Jaurlaritzak (2010) publikatutako *jardunbide egokien gidaliburuan* erraten den gisan, funtsezkoa da ahalik testu mota gehien lantzea ikasleekin, hauen funtzioei, formari eta zentzuari buruz hausnartzeko gaitasuna gara dezaten. Izan ere testu bat irakurtzen dugunean, testu hori xede batekin idatzia dagoela ezin da ahortzi eta hortaz, horren inguruan hausnartzeko gaitasuna garatzea funtsezkoa izanen da.

Testuak aukeratzeko orduan ahortzi ezin den bertze ideia bat irakurketa asmoa izanen litzateke. Izak (2007) aipatzen duen gisan, eta PIRLS nazioarteko ebaluazioan nabarmentzen denaren arabera, haur eta lehen hezkuntzan bi irakurketa asmo bereiziko lirateke: Norberaren gozamenerako irakurketa eta informazioa eskuratzeko irakurketa. Hala ere ondotik kanpo ebaluazioari eskainiko zaion atalean xehetasun gehiago emanen dira gai honen inguruan.

Azken ideia honekin lotura handia ikusten diot ikastetxeko espazio desberdinen kudeaketa egokiari. Erran bezala, badira zenbait kasu hurrek haien gozamenerako irakurtzen dutela, eta horren adibide argia izan daitezke narrazio testuen barnean kokatzen ditugun hainbat eta hainbat testu-genero mota ezberdinen irakurketa. Hala nola, komikiak, ipuinak... Kasu hauetan ikastetxean liburutegia izanez gero, espazio hori aprobetxa genezake haurrak haien gelatik atera eta irakurketaz gozatzeko.

Nire praktketan ikasle batekin ikusi dudana bertze baliabide eraginkor bat psikomotrizitate gelaren erabilera izan daiteke. Bertan ikasleei nahi duten materiala hartzeko aukera eman diezaiokegu eta modu honetan eurek haien txokoa hartzen dute, liburuan murgildu ahal izateko goxo-goxo.

Aipaturiko ideia irakasleok argi eta garbi jakitea eta barneratua arras garrantzitsua da, baina honekin batera, haurrek ere bertze irakurketa “modu” hauek badirela jakitea funtsezkoa da ene iritziz. Ezinbertzekoa da irakurtzen duten zenbait kasutan, ezagutza berriak haienganatzen dituztela jakitea, baina honekin batera, jakin behar dute egiten duten irakurketa oro, ez dela ikasteko helburuarekin egiten, baizik eta haiek momentu goxo eta zoragarri bat pasatzeko asmoarekin.

2.4. Kanpo ebaluazioak: PIRLS eta PISA

Nazioarteko mailan, gaur egun bi ikerketa nagusi dira irakurketa gaitasuna ebaluatzeaz arduratzen direnak: PISA (Programme for International Student Assessment) eta PIRLS (Progress in International Reading Literacy Study).

PIRS-eri dagokionez, 1959 . urtean sortu zen. Lehen Hezkuntzako laugarren mailako haurren irakurketa errendimendua ebaluatzen du (hau da, haurrek 10-11 urte dituztelarik) froga horietako datuak bortz urtero biltzen direlarik. Gaur egun arte adibidez, 2001, 2006, 2011 eta 2016 urtetako datuak topa daitezke (Espainiaren kasuan 2006, 2011 eta 2016 urteko ebaluazio probetan parte hartu du).

Parte hartzeari dagokionez, 2011n, Espainiar estatuaren kasuan 8580 ikaslek parte hartu zuten 312 ikastetxetakoak zirelarik. Irakasleen kopuruari dagokionez, 402 izan ziren irakasleak eta taldeak berriz 403. Hala ere ondoko taulan datuak ikusteko aukera dago.

	PIRLS	
	España	Internacional
Alumnos	8.580	254.914
Centros	312	1.756
Profesores	402	3.263
Grupos	403	4.173

1. Irudia: 2011ko PIRLS probetan izandako parte-hartzea.

Iturria: *Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2013)*

Espainiako Gobernuko Hezkuntza, kultura eta kirol ministerioak aipatzen duenez, irakurketa gaitasuna irakurtzearekiko dagoen motibazioak baldintzatzen du hein handi batean. Kasu honetan bi diseinu azpimarratzen dira:

Irakurketa gaitasunaren garapena Lehen Hezkuntzan XXI. mendean

- Irakurketa literatura esperientzia gisa (normalean norberaren gozamenerako izaten dena)
- Informazioa eskuratzeko eta erabiltzeko egiten den irakurketa, ikaskuntza eta irakaskuntzarako baliabide gisa erabiltzen dena.

Proba honen ezaugarriei dagokienez, 40 minutuko bi saio izaten dira, tartean 20 minutuko atsedenaldia egiten delarik. Bloke bakoitzean 750 hitz inguruko testu bat (testuak anitzak izaten dira haien artean, hau da testu literarioak, artikulak, eskuorriak, errezetak... izan daitezke) izaten da eta ondotik honen inguruko zenbait galdera edo jarduera planteatzen dira. Aipagarria da egiten diren galderak mota ezberdinetakoak izaten direla: Aukera anitzekoak, galdera irekiak, testuan informazioa bilatzekoak...

Froga honetan ikasleen gaitasunez gain, bertze hainbat faktorek ere garrantzi handia izaten dute, ikastetxe bakoitza errealitate ezberdin baten isla baita. Froga hau egiten duten ikastetxeen artean ikastetxe publikoak edo itaunduak daude, hirian kokatutakoak edo landa eremukoak, handiak edo txikiak...

Errendimendu mailari dagokienez, bortz maila bereizten dira. Ondoko taulan ikus daitekeen gisan bortz dira erreferentzia puntuazio batzuk erabiliz ezarriak direnak errendimendu mailak: Arras baxua, baxua, erdikoa, altua eta arras altua.

2. Taula: Errendimendu mailak eta puntuazioak

<i>Errendimendu maila</i>	<i>Puntuazioa</i>
Arras altua	625 baino altuago
Altua	550 eta 625 artean
Erdikoa	475 eta 550 artean
Baxua	400 eta 475 artean
oso baxua	400 baino baxuago

Iturria: *Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2013)*

Hala ere taula hori ikusitakoan, ezin da erran maila bakoitzean dagoen ikaslearen ezaugarriak zein diren edo hark duen maila zeri dagokion. Horretarako, I.

eranskinean, maila bakoitzean eskatzen diren edo bete behar diren jakintzak edo trebetasunak zehazten dira.

2011n egindako azterketen emaitzei dagokienez (nahiz eta 2016 urteko frogak eginak izan, emaitzak ez dira eskuragai egonen 2017ko abendua arte eta hortaz azkeneko datuak 2011koak hartuko dira), II. eranskinean herrialde guztietan egindako frogen emaitzak ikus daitezke. Espainiaren kasuan 513ko puntuazioa lortu duela (zerrenda horretan agertzen diren 40 herrialdeetatik 29. postuan aurkitzen da Espainiar estatua) OCDEko bataz bestekoaren (538ko puntuazioa) azpitik eta Europar Batasuneko herrialdeen bataz bestekoaren (534ko puntuazioa) azpitiko kokatzen delarik ere. Aipagarria da grafiko hori irakurtzerakoan %95eko konfiantza maila dagoela, laginen tamainak eta herrialdeko bakoitzeko errendimendu mailak ez baitira berdinak izaten.

Datu hauei begiratu ondotik arrunt ongi ikus daiteke Espainia erdi mailan aurkitzen dela ezarritako eskalaren arabera. Datu horri erreparatuz, lan anitz egin behar dela argi eta garbi dago ene ustez. Urte hauetan zenbait akats egin direla ikusi beharrean gaude eta dagoen egoerari buelta bat emateko ordua iritsi dela ziurra da.

Hau horrela izanik PIRLSek bertze hainbat faktoreren inguruko datuak biltzen ditu. Hala nola, ingurune pertsonala, familia eta eskola ingurunea, hezkuntza ingurune nazionala... Gauzak horrela, herrialde ezberdinen arteko konparazioa errealagoak izanen dira, eta modu honetan irakurketan egoten diren gabezien arrazoiak zein izan daitezkeen argitu daitezke.

Mullis eta Martin-ek (2016) adierazten duten bezala azkeneko ebaluazioan berrikuntza nabarmenak eman dira: *PIRLS Literacy* eta *ePIRLS*.

- PIRLS Literacyren kasuan erran daiteke PIRLS frogaren antzekoa dela diseinuari eta irakurriaren ulermenaren ebaluazioari dagokionez ere. Ebaluazio honen helburu nagusia eskalan zati txikienean kokatzen diren haien kalitate hobeagoko ebaluazioa egitea da. Hau da zenbait herrialdetan adin horretako ikasleak haien gaitasunak garatzen ari dira eta ikasle hauek froga honetan parte hartuko dute nahiz eta kalifikazio eskala PIRLS frogan erabiltzen dena izanen

den. Azken batean ebaluazio honekin egin nahi dena irakurriaren ikaskuntza eta irakaskuntza hobetzeko informazioa ematea da, datu errealetan oinarrituz eta hau horrela egiten bada, ikasleak autonomoak eta kompetenteak izatea erdietsiko da.

- ePIRLSen kasuan, ebaluazio berritzailea da, informazio arloaren inguruan dauden beharrei erantzuna emateko. Gaur egun jakina da internet bidez gero eta gehiago irakurtzen dela (haien gozamenerako, ikastetxean dituzten bertze irakasgaietan informazio osagarri ezberdinak bilatzeko, egunerokotasunean dituzten beharrak asetzeko...). Hau horrela izanik, curriculum anitz garrantzi handia ematen hasi dira ordenagailu bidez irakurtzeko gaitasunari, hau da informazioa bilatzeko irakurtzeko gaitasunari alegia.

Hortz, aipatutako azken ebaluazio honetan, paperean irakurri ordeztu ordenagailuan egingen da. Interneteko orrialde bat erabiliko da horretarako, zeinetan laugarren mailako ikasleak gustura sentituko diren eta arloa gizarte zientziak izanen da. Alde batetik ikasleek zenbait orrialdetan informazioa eskuratu beharko dute (argazkiekin, grafikoekin, testu idatziekin...) eta bertze aldetik irakasle ebaluatzaileek bilatutako informazio horren inguruan galderak egingen dizkiete, hauek informazioa behar bezala erabiltzeko.

Kanpo ebaluazio honek honela definitzen du irakurketa gaitasuna: “La habilidad para comprender y utilizar aquellas formas de lenguaje escrito exigidas por la sociedad y/o valoradas por el individuo. Los lectores jóvenes pueden construir a partir de muy diferentes tipos de textos. Leen para aprender, para participar en comunidades lectoras del centro y de fuera del centro, y por placer”⁵ (Mullis et Martin, 2016, 3)

Kanpo ebaluazio honetan ikasgelan erabilitako metodologia didaktikoak eta baita ikastetxearen ezaugarri propioak ere aintzat hartzen dira (izan ere ez da berdina Madrilgo ikastetxe bat izan, Iruñekoa edo Baztango herri txiki batekoa, azken hauetan

⁵Ulertzeko gaitasuna eta gizarteak eskatutako eta banako bakoitzak balioetsitako hizkuntza idatziko erak erabiltzeko gaitasuna. Irakurle gazteek testu mota arras ezberdinetatik hasita eraiki dezakete. Irakurtzeko, ikastetxeko eta ikastetxetik kanpoko komunitateetan parte hartzeko eta gozatzeko irakurtzen dute.

ere errealtatea arras anitzak egon baitaude). Honekin batera ikasleen informazio ezberdina jasotzen da, hala nola, letra tipo ezberdinak, irakurketarekiko duten jarrera, irakurketa ohiturak...

Aitzinetik aipatu izan den bezala, irakurtzen dugunean, irakurketa gozamenerako edo bertze zerbait ikasteko ere erabil daiteke. Kanpo ebaluazio honi dagokionez, ikasleek ikasteko irakurketan beharrezkoak dituzten gaitasunak edo baliabideak ebaluatzen ditu.

PISA frogak aldiz, irakurketa gaitasunaz gain, matematika eta zientzia gaitasunak ere neurtzen ditu eta froga hau hamabortz urterekin egiten da normalean. Hala ere aipagarria da erratea nahiz eta hiru gaitasun horiek aztertzen dituen, urte bakoitzean hiruetako batean zentratzen dela normalean, horietako bat ardatz hartzen duelarik.

OCDEk 2015. urtean egindako informean argi eta garbi adierazten duen gisan, irakurriaren ulermenari dagokionez, Espainia bataz bestekoaren gainean kokatzen da 496ko puntuazioa duelarik. 2000 . urtean egin zirenen lehenengo probak eta Espainiaren kasuan 493ko puntuazioa lortu zuen, eta bertan argi ikusten da nahiz eta beherapen handirik izan ez duen, 15 urtetan ere hobekuntza handirik ez dela eman.

Azken batean aipatutako bi kanpo froga hauen arabera, irakurketa eraikitzen den, eta pertsona ezberdinek parte hartzeko aukera duten prozesua da. Hala ere aipagarria da hauen arabera haurrek irakurketaren inguruan hausnartzeko duten gaitasuna ere, azken batean irakurketa helburu edo xede arras ezberdinak erdiesteko erabiltzen baita egunerokotasunean. Izan ere Libardo Peñak bere bloggean argi erraten duen gisan, irakurketa gaitasuna behar bezala garatua duten pertsona horiek, arazo gutxiago izanen dituzte bertze edukien ikaskuntzan.

PIRLS eta PISAko azken urteetako emaitzak ikusi eta aztertu ondotik, argi eta garbi geratzen da Espainiar estatuko irakurketaren eta irakurriaren ulermenaren aldaketa bat ematea ezinbertzekoa dela. Horretarako gaur egun baliabide ezberdinak eskuragai badira eta gure jardunak horretan zentratu behar du. Baliabide horiek hartu,

behar bezala kudeatu eta praktikara eraman, egun dauden emaitzei buelta bat ematearren.

Berrikuntza horien artean, metodologia kooperatiboak aintzat hartzekoak dira ezinbertzean. Bertan irakurketarekin lotura izugarria dute “Bikoteka Irakurtzen” programak eta Irakurketa Dialogikoak ere. Nire kasuan, Bikoteka Irakurtzen programan zentratuko naiz lan honen ondoko zenbait ataletan.

2.5. National Reading Panel

National Reading Panel-ek zehazten duenez irakurketaren irakaskuntzaren barnean borts osagai aurkitzen dira: ahozko hizkuntza, kontzientzia fonologikoa, hiztegia, irakurketaren jariakortasuna eta ulermena. Haur batek irakurketa behar bezala bereganatzeko, ezinbertzekoa da borts osagai hauek sakontasunez lantzea, bati ere garrantzirik kendu gabe.

Gaur egun irakurketa eta idazketaren irakaskuntza Haur Hezkuntzako etapan hasten da eta Lehen Hezkuntzara iristen direnerako oinarri sendo bat izaten dute kasuen ehuneko handi batek. Adibide bat jartzearen, kontzientzia fonologikoaren kasuan, Haur Hezkuntzan jada abestiak edo errimak ikasten hasten dira, eta hor argi eta garbi ikus daiteke gaitasun handia dutela horiek buruz ikasteko.

Irakurketaren irakaskuntzaren osagaiak: *Kontzientzia fonologikoa, jariakortasuna, hiztegia, deskodetzea eta irakurriaren ulermena*

Ondoko lerroetan, aipatutako osagai horien azalpen labur bat egingen da zenbait adibide erabiliz ideiak argitze aldera.

- *Kontzientzia fonologikoa*: CREENAKo entzumen eta hizkuntzako taldeak egindako txostenean aipatzen duen gisan, kontzientzia fonologikoaz mintzatzerakoan hizkuntzak dituen soinu inguruan hausnartzeaz ari da. Hau da, soinu hauen inguruan pentsatzeko dagoen gaitasunaz. Hau, soinuek sortzen dituzten sekuentzien inguruko jarduera ezberdinak eginez lortzen den zerbait da.

Kontzientzia fonologikoa ongi garatzea ezinbertzekoa da irakurketa eta idazketa barneratzeko, eta aldi berean azken bi prozesu hauek landuz, anitz garatzen da kontzientzia fonologikoa. Gainera, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapan irakurketa errendimendua hobetzen laguntzen du.

Alderdi hau lantzearen bertze arrazoi nagusietako bat nahasmendu ezberdinen detekzioan duen esanguragarritasuna izan daiteke. Izan ere, hau gelan lantzerakoan, arazo asko ekiditeaz gain, hurrek irakurketa eta idazketa prozesuan izan ditzaketen aparteko zailtasunak aurreikusteko balio du.

Ikasleek kontzientzia fonologikoa behar bezala haienganatzeko ezinbertzekoa da ondoko lau etapa hauek igarotzea: Hiztegi kontzientzia, silaben kontzientzia, silaba barneko kontzientzia eta fonema kontzientzia. Lau etapa hauek gaitzea prozesu konplexua izan ohi da eta horretarako arras lagungarria izaten da gaiarekin zerikusia duten jolas edo ariketa ezberdinak egitea.

Kontzientzia fonologikoari dagokionez, honako ariketa hauek egin daitezke alderdi hau lantzeko: Errimekin jolastu, silabak edo fonemak kontatu, silaba edo fonemak banatzea, fonemen posizioak jakin, berdinak eta ezberdinak diren fonemak identifikatzea, silaba edo fonemak gehitu edo kentze, silaba edo fonemak ezkutatzea, fonemen ordena aldatzea.

2. **SILABEN BILA!**
Irudi zati bakoitzari silaba bat dagokio, aukeratu egokiak direnak eta osatu hitzak.

SU

SU O A DI A A LA MEN TU

2. Irudia: Kontzientzia fonologikoa lantzeko jarduera

- *Irakurketaren jariakortasuna*: Izak (2007) bere lanean adierazten duenez, ikasle anitzen zailtasunen jatorria, jariakortasunean edo abiaduran egon ohi da, irakurriaren ulermenarekin batera. Hau horrela izanik, jariakortasuna ere tentuz zaindu beharreko alderdietako bat da irakurketa gaitasuna behar bezala garatzeko.

Hau lantzeko modu eraginkorrenetako bat egunero irakurtzea izanen litzateke. Izugarri nabaritzen da egunero irakurtzen duten haurren eta irakurtzeari garrantzirik ematen ez dioten haurren artean.

Jariakortasuna lantzeko kontzientzia fonologikoa, deskodetzea eta hiztegia behar bezala landuak izatea arras eraginkorrak izanen dira, izan ere hitzak ezagutzen badira, esfortzua testuaren ulermenean jarriko da eta ez hitzen ezagupenean.

Jariakortasunez irakurtzea ez da ahalik eta azkarren irakurtzea. Ikasle bat gai izan daiteke hitz batzuk edo testu zati bat arras azkar irakurtzeko, baina gero ea zer ulertu duen galdetuz gero, erantzun orokor bat emanen luke. Puntu honetan, Woody Allenen “Hice un curso de lectura rápida, y fui capaz de leerme *Guerra y paz* en veinte minutos. Creo que decía algo de Rusia”. Esaldi hau biziki esanguratsua da, aitzinetik aipaturiko ideia ederki laburbiltzen baitu.

Hau jakinik, argi eta garbi geratzen da jariakortasunez irakurtzea ez dela prozesu sinplea. Grave eta Stollerrek (2002) euren liburuan adierazten dutenez, jariakortasunez irakurtzeko prozesuak honako ezaugarri hauek ditu:

- Azkarra
- Eraginkorra
- Interaktiboa
- Ebaluagarria
- Erabilgarria
- Ulergarria

- Estrategikoa
- Malgua
- Prozesua
- Linguistikoa

Irakurketaren jariaortasuna lantzeko modu asko badira (irakurketa errepikatua, irudi-liburuak partekatzea, irakurle bakoitzari motibatzen dizkion liburuak irakurtzea, pantailan testua jarri eta horiek ozen irakurtzea, binaka irakurtzea...)

Ondoko jarduera adibide apropos bat izan daiteke jariaortasuna lantzeko:

3. **HITZAK SALTATZEN**
 Irakurri ezazu ipuinaren zatitxo hau beste kide (edo irakasle) batekin; batek hitz bat eta besteak hurrengoa, batek hitz bat eta besteak hurrengoa...

Behin batean bazen Hana izeneko neska bat. Hana aitonaekin bizi zen. Aitona oso jakintsua zen. Mendian bizi ziren arroz soroen ondoan.

Soro horiek herritarrenak ziren eta Hanaren aitona zaintzen zituen.





Herria mendiaren azpian zegoen, itsasoaren ondoan. Hanaren etxetik etxeak eta herritarrak txiki-txikiak ikusten ziren.

3. Irudia: Irakurketaren jariaortasuna lantzeko jarduera

- *Hiztegia*: Ikerketa anitzek erakutsi duten gisan irakurtzerakoan zailtasunak dituzten haur anitzen kasuan, zailtasun horien jatorria hiztegi eskasa izaten da. Testu bat ulertzeko ezinbertzekoa da testuko hitzak orokorrean behintzat ezagutzea. Hortaz, hiztegi eskasa duten ikasleen kasuan, hitzak ulertzen ez badituzte, haien arreta testuaren ulermenean jarri beharrean hitzen ezagutzan jartzen dute eta azkenean aria galtzen dute. Hala ere, aipagarria da hau ez zaiela irakurketan zailtasunak dituzten ikasleei soilik gertatzen, ikasle guztiei gerta dakieken zerbait da. Hortaz, osagai hau ikasle guztiekin behar bezala lantzea arras positiboa izan daiteke.

Hiztegia ez da hizkuntzako saioetan soilik landu beharreko zerbait. Egia da hizkuntzako saioetan egunerokotasunarekin topa daitezken hitzak lantzeko aukera dagoela eta horiek lantzea beharrezkoa dela, baina bertze irakasgaietan ere hiztegia lantzea funtsezko alderdia da. Irakasgai bakoitzean denbora bat irakasgai horietako hiztegiari eskainiz gero, irakasgai horietako teoria barneratzean arreta ulermenean jarriko lukete ikasleek eta ez testuan agertzen diren hitz bakoitzean. Gainera, jarduerak egiterakoan (matematikako problemak ebazterakoan...), arreta testuaren osotasuneko ulermenean jartzea funtsezkoa izaten da.





Hau aitzinera eramateko, *National Reading Panel* komiteak zenbait metodo proposatzen ditu: irakaskuntza esplizitua, zeharkakoa, multimedia metodoak, ahalmenaren araberakoak eta elkartze metodoak. Komite honen arabera, erranguratsuagoa omen da metodo guztiak tartekatuz erabiltzea, etengabe bat erabili beharrean.

Ondoko irudian hiztegia lantzeko jarduera baten adibidea adierazten da:

4. **MURALA OSATU**
 Jarraian emandako gai bat aukeratu. Honi lotutako objektuei argazkiak atara, hauek izendatuz, eta taldeka muralak egin, FAMILIA handi bat lortuz.

- **GAIAK:**
 - Mendia
 - Herria
 - **Itsasoa**
 - Zelaia
- Hona hemen adibide bat:

ITSASOA

 ZERUA	 OLATUA
 EGUZKIA	 HONDAR - HAREA

4. Irudia: Hiztegia lantzeko jarduera

- *Deskodetzea:* Deskodetzeari dagokionez, sinbolo grafiko ezberdinei izen bat esleitzeko gaitasuna izanen litzateke. Behin izena ematen zaiela, soinua emateko gaitasuna ere barne hartzen du prozesu honek. Hau bertze osagai funtsezkoa dugu irakurketa eta idazketa gaitasuna geureganatzeko.

Sainsbury (2004) egiten duen proposamenean deskodetzea lehen mailan kokatzen den prozesua izanen litzateke. “Horretarako, fonetika jakin behar da, ikusizko memoria behar da eta analogiak erabili behar dira (horrek ez dakar testuari esanahi bat nahitaez eman behar izatea)” (Iza, 2007, 11).

Alderdi hau Haur Hezkuntzan lantzen hastea komenigarria da bertze zenbait osagai lantzen hasteko beharrezko alderdia baita. Horretarako jarduera edo jolas ezberdinak egin daitezke. Adibide gisa haur hezkuntzako geletan, ontzi batean manipulagarriak diren letrak sartzen dituzten. Orduan irakasleak

arbelean bilatu beharreko bokalak edo kontsonanteak idazten dizkie eta hauek horiek identifikatu behar izaten dituzte bertzeen artean. Ondotik, orri batean, horiek idatzi behar dituzte.

Bertze adibide bat hau izan daiteke: Gai bat lantzerakoan hizki zopa erraldoi bat egin zen eskolako pasabidean. Hizki zopa horretan proiektuarekin zerikusia zuten hitzak agertzen ziren ezkutatuak, norabide eta norantz ezberdinak hartzen zituztelarik. Kasu horretan, haurrak pasabidean hitzak bilatzen aritzen ziren eta erran daiteke ariketa edo jarduera hau ere arras egokia suerta daitekeela deskodifikazioa lantzeko.

- *Irakurriaren ulermena:* Irakurriaren ulermenari dagokionez arras prozesu konplexua da. Irakurriaren ulermena ez da soilik testuak ulertzera mugatzen, horiek behar bezala erabiltzea ere ulermenaren barne sartzen den zerbait da.

Testu bat irakurtzerakoan, hau bere osotasunean ulertzeko, ezinbertzekoa da aitzinetik aipatutako osagai ezberdinak behar bezala garatuak izatea. Testuak haien osotasunean ulertzeko, indar guztia horretan jarri behar da, kontzientzia fonologikoa, hiztegia, jariakortasuna edo deskodifikazioa jada nahikoa automatiko bihurtuz.

Izak (2007) lanean aipatzen duenez, ulermena bigarren mailan dago, deskodifikazioaren ondotik. “Irakurritakoari esanahia ematen zaio eta deskodetzeari jakintza lexiko eta gramatikala gehitzen zaizkio. Irakurketaren kontzeptu elkarreragile batetik abiatuz, hirugarren mailan irakurleak erantzun bat eman behar dio eskuratutako informazioari (horretarako nahitaezkoa da testua helburu edo asmo jakin batekin irakurria izatea)”. (Iza, 2007, 11-12).

Irakurriaren ulermena ez da soilik hizkuntzako saioetan landu beharreko zerbait. Arlo guztietan funtsezkoa da testuak edo egin beharrak, behar bezala ulertzea, eta hortaz ez litzateke gaizki egonen irakasgai guztietan ulermenari tartetxo bat eskaintzea, gaitasun honen garapena bermatzearen. Natur

zientzietan edo Gizarte zientzietan adibidez testu ugari irakur daitezke lantzen ari diren unitate didaktikoarekin lotura zuzena dutenak eta ondotik horien inguruan galdera ezberdinak egin daitezke.

Motibazioa ere kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsua da. Testuak lantzerakoan ezinbertzekoa da irakurleen interesak, gogoak, hauen aurre-jakintzak... kontuan izatea eta hauei egokitutako testuak prestatzea. Kantu bat landu behar baldin bada, haien interesekoa den kantua bat landuko genuke, modu honetan haien motibazioa handiago izanen baita, kantua arrotz batekin izanen luketenaren aldean. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako (2010) *Jardunbide egokien gidaliburuak* zazpi irakaskuntza estrategia proposatzen ditu irakurriaren ulermena hobetzen laguntzen dutenak:

- Garrantzitsua da irakurleak haren buruari galdetzea ea testuan irakurtzen den hura ulertzen ari ote den. Horretarako gelditu behar badu, egitea zilegi da. Hori ziurtatzeko, haren bizipenekin erlazioak egitea komenigarria da, zalantza asko argitze aldera. Anitzetan komenigarria izaten da irakasleak sarrera moduko bat egitea irakurtzen hasi aitzinetik, irakurleak testuan koka daitezkeen eta gaiaren inguruan dituzten aurre-ideiak aktiba ditzaten.
- Taldeka lan eginez elkarlanean ikastea, metodologia arras positiboa da ulermena garatzeko.
- Antolatzaile semantiko eta grafikoaren erabilera, hau da, mapa grafiko edo semantikoak erabiltzeak askotan letren bidez adierazitako informazioa argitzen laguntzen du.
- Galderak erantzutea. Irakasleak galdera ezberdinak egiten dituzten testuaren inguruan, ikasleen ulermen maila hobetze aldera. Jardunbide egokien eskuliburuak hiru galdera mota egiten direla (hitzez hitzezkoari buruzkoak, inferentzia egitekoak eta kritikoak) aipatzen du, baina Izaren (2007) kasuan, bortsu dira. Ondoko lerroetan aipatzen dira zein diren bortsu horiek eta bakoitzaren inguruko azalpen labur bat ematen da.
- Nork bere buruari galderak egitea testuko informazioari buruz.

- Testu mota ezberdinen egiturak zein diren jakitea. Honekin batera testu genero ezberdinak (ipuinak, biografiak, alegiak, errezetak, esku orriak, festa batean egin beharreko jokoen zerrenda...) ezagutzea ere funtsezkoa da. Gainera, lanean aitzinetik aipatu den bezala, testu mota edo testu genero mota ezberdinak erabiltzeak ulermen maila hobetzen laguntzen du.
- Laburpenak egitea. Testuan agertzen diren ideiak bateratu eta eskuratutako informazioarekin ideia global bat egiteko.

Aitzinetik aipatu den gisan, irakurriaren ulermena prozesu arrunt konplexua da, bortz prozesu kognitibo hartzen baititu bere baitan. PISAn oinarrituta hauek dira:

- *Informazioa bilatzea edo berreskuratzea*: “Testuan berean ageriko informazioa lokalizatzea, hitz berekin edo sinonimoen bidez.” (Iza, 2007, 18). Adibideak hauek izan daitezke.

- | |
|--|
| <p>1. NOREKIN BIZI DA HANA? 1- Informazioa bilatzea</p> <p>2. ZER ERRE ZUEN AITONAK? 1- Informazioa bilatzea</p> |
|--|

5. Irudia: Informazioa bilatzeko galderak

- *Ulermen globala*: “Testutik funtsezkoena ateratzea, testua bere osotasunean hartuta.” (Iza, 2007, 19)

3. ZEIN BESTE IZENBURU PROPOSATUKO ZENUKE ISTORIO HONENTZAT? 2-
Ulermen globala

4. ORDENA ITZAZU IRUDIAK ISTORIOA OSATZEKO: 2- **Ulermen globala**





5. NON AURKITUKO ZENUKE ISTORIO HAU? 2- **Ulermen globala**




- Errezeta batean
- Hiztegi batean
- Ipuin-bilduma batean
- Egunkarian

6. Irudia: Ulermen globala lantzeko galderak

- *Interpretazioa garatzea:* “Testua logikoki ulertzea.” (Iza, 2007, 20). Honen barnean inferentzia erreferentzialak edo zubi-inferentziak ager daitezke.

6. NAHIZ ETA HASIERAN HASERRETU, POZIK GERATU AL ZIREN HERRITARRAK? 3- **Interpretazioa garatzea**

7. NORK ESATEN DITU ESALDI HAUEK? LOTU ESALDIAK PERTSONAIEKIN: 3- **Interpretazioa garatzea**

- Baina nork erre ditu gure soroak? 
- Nik erre ditut soroak, bai. 
- Zer egin duzu aitona? 

17

7. Irudia: Interpretazioa garatzeko galderak

- *Testuaren edukiaren gaineko hausnarketa eta testuaren balioespena:* “Testuko baieztapenak ebaluatzea eta testuaz kanpotik dakigunarekin egiaztatzea.” (Iza, 2007, 21)

8. ZURE USTEZ AITONAK ONGI EGIN AL ZUEN SOROAK ERRETZEAN? 4-
Testuaren edukiaren inguruko hausnarketa eta baliospena

8. Irudia: Testuaren edukiaren

gaineko hausnarketa egiteko galderak

- *Testuaren formaren gaineko hausnarketa eta testuaren balioespena:*
“Testuaren ezaugarri linguistikoak arlo morfosintaktikoan, lexiko-
semantikoan eta testuzkoan ebaluatzea.” (Iza, 2007, 22).

9. ZERTARAKO BALIO DUTE HONAKO GIDOI HAUEK? AUKERATU ERANTZUN
ZUZENA. 5- Testuaren formaren gaineko hausnarketa eta baliospena

- Nik erre ditut soroak, bai.

- Zergatik? – galdetu zioten herritarrek haserre.

- Begira itsasoa!! – esan zuen aitona.

a. Elkarrizketa delako

b. Garrantzitsua delako

c. Aitona esaten duelako

9. Irudia: Testuaren edukiaren

gaineko hausnarketa egiteko galderak

Jarduenbide egokien gidaliburuan oinarrituta eta National Reading Panel-ek egiten dituen gomendioak kontuan izanik honako hauek ikastetxeetan egiteko jarduera arras interesgarriak izanen lirateke:

▪ *Kontzientzia fonologikoa:*

- Hurrei abestiak, errimak eta asmakizunak irakastea eta maiz errepikaraztea.
- Ahoz hizkuntza lantzeko jolasak (Ikusi-makusi, hasiera-amaierekin, koloreekin, antzeko soinua duten hitzekin...)
- Silabak elkartzeko edo bereizteko jolasak: Ikasleen izenak silabetan bereiztea, roboten hizkerara jolastea...
- Fonemak elkartzeko eta bereizteko jolasak: “Barraskiloen hizkera” hitza asmatzeko...
- Jarduera ezberdinak fonemak ezabatuz edo gehituz...

- Deskodetzea:
 - Eskolako eta gelako tokiak izenez eta irudiz identifikatzea: Komunak, liburutegia, jolastokia, gelako txokoak...
 - Hitzak eta zenbakiak seinalatzea irakaslea ozenki irakurtzen ari denean: ikasleen izenak, data, eguraldia, istorio baten izenburua...
 - Ikasleentzat interesgarria den informazioa horretan bistaratzea: berriak, bertaratutakoak, urtebetetzeak, bitxikeriak...
 - Txangoei buruzko informazioa bistaratzea: argazkiak, tokien izenak....
 - Esaldi errazak eta ohikoak bistaratzea: eguneroko jarduerak, jarraibideak (“komunikatzen irakurtzen eskuak garbitu”, “Pasabidean ezin da korrika egin eta ezta oihukatu ere”)
 - Letrak ezagutzeko jarduerak arbela digitalean.
 - Letrak eta hitzak plastilinarekin, letra magnetikoekin, hondarrean idatzi...
 - Alfabeto-liburuak eskaintzea.
 - Hitzak sailkatzea irizpide desberdinen arabera: luzera, hasiera berdina dutenak, antzeko amaiera dutenak...
 - Karetan jokatzea, bingoa, dominoa (hitzak eta irudiak elkarrekin konbinatuz).
 - Laguntza semantikoak eskaintzea hitzak ezagutzeko eta hitz familia ezberdinak egiteko (erroa kolore batekin azpimarratuz...)

- Hiztegia:
 - Testu bat ozenki irakurri aitzinetik nabarmendutako hitzak esplizituki irakastea irudien eta adibideen bidez.
 - Hitz baten esanahia haren testuingurutik ondorioztatzea.
 - Erroak, aurrizkiak eta atzizkiak ezagutzeko kolore desberdinak erabiliz.
 - Hitz elkartuak aztertzea.
 - Testuan sinonimoak eta antonimoak aurkitzea.
 - Familia lexikoak eta eremu semantikoak osatzea.

-
- Hitz baten etimologiatik abiatuta, hitz horren esanahira hurbiltzea.
 - Analogiak ezartzea: objektioa eta funtzioa; antzeko ezaugarriak; hiponimoak eta hiperonimoak; ohiko egoerak (irakaslea/ikaslea); ekintza-eragilea edo objektua.
 - Termino baten erabilera teknikoaren eta eguneroko erabileraren artean bereizketa egitea.
 - Hitz berriekin ikus-hiztegiak sortzea, gaietan antolatuz adibidez.
 - Maizenik erabiltzen diren hitz idatziak azkar ezagutzea: Letra zopak, hitz gurutzatuak, hitz kateatuak...
 - Jokoak: Hitz-pasa, bingo edo dominoak...
 - IKT txokoa: liburu elkarreragileak, entzuteko liburuak...
 - Zeharkako irakaskuntza: istorioak kontatzea, liburu ezberdinen gaineko eztabaidak, ozenki irakurtzea...
- Jariakortasuna
 - Hurrekin irudi-liburuak partekatu...
 - Liburu handiak eta istorioak ozenki irakurri arbela digitalean. Hitz edo esaldi batzuk irakurtzen ari garen bitartean seinalatzea...
 - Liburuen hautaketa egokia ikasle bakoitzaren ezaugarriak, motibazioak, interesak, maila... aintzat hartuz .
 - Haurren gustukoak diren istorioak berriz irakurtzea estrategia desberdinak erabiliz: irudiak erakutsiz, panpinen laguntzaz, irakurketa partekatuaren bidez...
 - Binaka irakurtzea: adin berekoak, ezberdinetakoak elkarrekin, irakasle eta ikasleak bikoteak osatuz...
 - Ikasleekin testu ezberdinen gainean dituzten iritziak partekatu eta kontrastatzea: Zergatik gustatu zaien, zein izan den haien pertsonaia gustukoena, zer egin zaien bitxia, ea norbaiti aholkatuko lioketen eta zergatik...
 - Curriculumetik kanpo geratzen diren jardura ezberdinak egitea: Ipuin kontalariak, txotxongiloak, antzezlanak, irrati emisioak, lehiaketak...

- Ulermena:
 - Ikasleei testu mota eta testu genero mota desberdinak eskaintzea: istorioak, olerkiak, deskribapenak, errezetak, gutunak, gonbidapenak, argudio testuak...
 - Irakurtzeko estrategiak esplizituki irakastea: irakurketaren helburua, ideien arteko hierarkia ezartzea, hipotesiak eta igarpenak egitea, inferentziak egitea, aurkeztutako errealitatearen irudikapenaren aitzinean kritikoak izatea, zenbait ezaugarri linguistikok esanahian duten eragina ebaluatzea eta irakurketa prozesuaren auto-erregulazioa.
 - Irakurtzeko txokoa eta gelako liburutegia: mailakatuta dauden liburuak eskaintzea, paper-euskarrian eta euskarri digitalean.
 - Idatziak lankidetzan sortzea (ikastetxeko aldizkaria, lehiaketak...)
 - Istorioen antzezpenak.
 - Bikoteka irakurtzea.
 - Irakurketa dialogikoa.
 - Ipuinak idaztea eta txikiagoak diren ikasleei irakurtzea eta oparitzea.
 - Aukera ematea ikasleei eskolako liburuak eramateko eta etxeoak eskolara ekartzeko.
 - Idazleak eskolan.
 - Eskolako liburutegia erabiltzea, liburutegi publikora edo liburu azokara joatea...

2.6. Irakurketa eta idazketa plana

“Entendemos el PLEI como un proyecto de intervención educativa de centro (integrado en el Proyecto Educativo), que persigue el desarrollo de la competencia lectora, escritora e investigadora del alumnado, así como el fomento del interés y el desarrollo del hábito lector y escritor, como consecuencia de una actuación planificada y coordinada del profesorado” (Varios, 2007, 13)⁶. Honekin batera, irakurtzeko eta

⁶Ikastetxe bateko Irakurketa eta Idazketa Plana, ikastetxe bateko hezkuntzan esku hartzeko proiektu bezala ulertzen da (Hezkuntza Proiektuan integratua) zeinak ikasleen irakurketa, idazketa eta ikerketa gaitasunak garatzea bilatzen duen

idazteko ohitura eta interesa bultzatu nahi da, irakasleek izaten duten planifikatutako jokaera baten emaitza gisa. Irakurketa eta idazketa plan honek bertze irakasgaien didaktiketan aldaketak eraginen dituzten printzipio orokorrak izatea ere ezinbertzekoa izanen da.

Plan honen helburu nagusiari dagokionez, “Ikasleak irakurle trebeak izatea, hots, zehatz eta azkar irakurtzeko gai izatea; trebe izatea testuak ulertzen, haien gainean hausnartzen eta haiekiko elkarreraginean eta irakurketarekin motibaturik egotea, plazer hutsagatik edo ikaskuntzarako baliabide ordezkaezin modura hartzen dutelako. Hori dela-eta, ikastetxeek erronka garrantzitsuak dituzte ikasleen oinarrizko irakurketa estrategiak bermatzeko eta irakurketarekiko motibazioa sustatzeko.” (Iza, 2007, 26-27)

Ikastetxe bateko irakurketa eta idazketa planak honako ezaugarri eta funtzio hauek bete beharko ditu Varios-en arabera (2007):

1. Ikastetxeak irakurketarekin eta idazketaren irakaskuntzarekin lotutako beharretatik (hutsuneak, zailtasunak...) abiatuta, behar hauei erantzuteko sortutako planifikazio baliabidea da. Plan hau diseinatzerakoan kontuan izan behar dira honako aspektu hauek: Irakasleen praktika didaktikoak, ikastetxearen aspektu antolatzaileak, kulturalak eta profesionalak, familien parte hartzea eta ikastetxeko liburutegi zerbitzu eta baliabideak. Egia da zenbait ikastetxetan liburutegi zerbitzurik ez dela izaten, eskola txikien kasuan gertatzen den bezala adibidez. Nafarroan adibidez badira ikastetxe txiki asko liburutegirik ez dutenak.
2. Irakurketa eta idazketa gaitasunaren integrazio kurrikularra izaten laguntzen du. Modu honetan jarduera ezberdinak eginez, arlo bakoitzeko helburuak erdiesten dira irakurketa eta idazketan ere aurrera pausuak egiten direlarik. Hau horrela izateko ezinbertzekoa da ikastetxeko irakasle ezberdinen arteko kooperazioa izatea, bakoitzak duen ezagutza mailatik abiatuta, esfortzu berri bat egin gabe. Metodologia aldaketa hau eginez gero, ikasleek irakurketa eta idazketarekiko motibazio handiagoa izatea lortuko da.

3. Plan hau irakasleei programazioak sortzen eta aplikatzen laguntzen dien erreferente didaktikoa da. Hauek koherentzia izan behar dute Hezkuntza Proiektuarekin eta ikasleek dituzten ezaugarri eta behar ezberdinekin. Hortaz plan hau ez da irakurketa eta idazketari eragiten dien apartekoa den zerbait, baizik eta aipaturiko proiektuekin halako interdependentzia erlazioa izaten du. Izan ere irakurketa eta idazketa prozesu luze bat dela ikusi behar da, eta curriculumeko ohiko ariketetan txertatua egon behar du maiz. Arras garrantzitsua da irakurketa eta idazketa planak liburuen irakurketa ohiturak, testu elektronikoen ezberdinak, testu mota ezberdinak... bultzatzen dituzten jarduerak ezberdinak egitea.
4. Kurrikularki Izaera global eta integratzailea dituen irakurketa eta idazketa plan batek metodologia aktiboak eta ikasgarriak estimulatzen ditu. Irakasgai ezberdinetan irakurketa idazketa eta ikerketa txertatzen direlarik, irakurketa eta idazketa gaitasuna bultzatzen dira honako alderdi hauek haienganatzen dituztelarik: Ahalik eta sormenezko praktika gehienaren eboluzioa, dokumentazio ezberdinen erabilera, ikasleek liburutegiarekin harreman gehiago izatea...
5. Plan honek irakurketa eta idazketaren inguruan irakasleen kooperazio lana estimulatzen du. Hezkuntzan ematen diren hobekuntza prozesu eta prozesu berritzaileetan, irakasleen arteko elkarlana funtsezko alderdia da. Modu honetan ikastetxeko irakurketa eta idazketa planak ikastetxeko profesional guztiei eragiten dienez, arras baliabide eraginkorra da irakasleek irakurketa eta idazketarekin ikasleengan dituzten ikuspuntu ezberdinak kontrastatzeko. Honekin batera zerbaitetan huts egiten dela ikusiz gero, elkarrekin hausnarketa egiteko eta arazo ezberdinei konponbideak bilatzeko aukera izaten da.
6. Irakurketa eta idazketaren elementu dinamizatzaile gisa zer erran handia izaten du ikastetxean. Irakurketaren ikaskuntzan eta irakaskuntzan adostutako planteamenduetarako ikastetxeko komunitatea orientatzen du. Irakurketa giro goxo eta egokia sortzeko ikasleek eta familien parte hartzea bultzatzen du. Hortaz ezinbertzekoa da familiak informatzeko zenbait saio egitea eta hauek parte hartzaile aktiboak direla sentiarazi behar dira, komunitate guztiak helburu komun bat dutela erakutsiz. Familiez gain, inguruan ditugun bertze erakunde

edo instituzioek ere parte har dezakete programa honetan: Liburutegi publikoak, udaletxeak, liburu dendak...

Ezaugarri eta funtzio hauek aipatu ondotik, argi eta garbi geratzen da ikastetxeko profesional guztien arteko lankidetzak, kolaborazioa eta konpromisoa ezinbertzekoak direla. Gainera, hauetaz gain, familien eta inguruko instituzioen laguntza ere baldin badago, emaitza hobek eta aberatsagoak lortzeko aukera gehiago daude, gauza arras politak egiteko aukerak izaten baitira.

Aipatutako guztiaz gain, gaur egun indarra hartzen ari diren metodologia berritzaile eta inklusibo guztiek, honekin erlazio handia dutela aipagarria da. Metodologia hauen adibide bat jartzearren proiektu bidezko irakaskuntza izanen litzateke erranguratsua. Gauza argia da metodologia hauek erabiliz gaitasun ezberdinak batera lantzen direla, azken batean horixe baita metodologia hauek erabiltzearen xedeetako bat: irakaskuntza integratua izatea.

Egile honek aipatzen duenez, ikasketa metodo hauek ez dira soilik hizkuntzen irakaskuntza edo irakaskuntzara bideratuko. Arlo guztiak ukituko dira, hauen bidez hizkuntza baten irakaskuntza lortuko baita.

2.6.1. Irakurketa planaren prestakuntza

Irakurketa plana prestatzerakoan, zenbait pausu jarraitu behar dira nahitaez. *Textos* aldizkariaren artikulua batean Izak (2015) egiten duen proposamenaren, hiru fase bereiziko lirateke proposamen honetan: Hasierako ebaluazioa, gidoi orientagarria eta urteko plangintza.

Hasierako ebaluazioari dagokionez, ezinbertzekoa da plan bat diseinatzerakoan ikastetxean dagoen egoera aztertzea. Horretarako, kasu honetan irakurketa eta idazketaz ardatz direnez, bi gaitasun hauekin lotura duten jardura ezberdinak aztertuko dira, hauen egokitasuna eta hobetu beharreko alderdiak zein diren ikusteko. Hasierako ebaluazio fase honetan honako alderdi hauek izanen dira aintzat hartuko direnak: Sistematizazioa, esparrua, kontzeptu markoa, dimentsioak, ikasleen irakurmenaren ebaluazioa, irakasleen prestakuntza eta planaren ebaluazioa.

Hasierako ebaluazioa egin ondotik irakurketa eta idazketa plana diseinatzeari ekinen zaio. Horretarako, gidoi orientagarri baten adibide bat agertzen da III. eranskinean. Aipagarria da formatuak ez duela garrantzi handirik izaten, fokua hasierako ebaluazio horretan jarri behar da, hautemandako behar edo akatsak zuzendu eta ikastetxean arloarekin dauden hutsuneak betetzearen.

Plana egin ondotik ikasturte bakoitzean urte horretarako egin beharreko zehaztapenak egingen dira urteko plangintza bat eginez. Horretarako bi bloke bereiziko dira nolabait. Alde batetik irakurketaren garapen sistematikoa (ikastetxeko hizkuntzak zein diren zehaztuko dira eta hizkuntza horietan egin beharrekoa zehaztuko da, bertze arloetan ere nola lan egingen den aipatuko da laguntzek ere beraien tokia izanen dutelarik) eta bertzetik irakurketa ohitura bultzatzea (Ikasgelan egingen diren jarduerak, ikastetxean eta baita ikastetxetik kanpo ere). Zehaztapen guztiak mailaka egingen dira, izan ere maila bakoitzean erdietsi beharreko helburuak desberdinak baitira.

Aipagarria da hau ez dela irakurketa eta idazketa plan baterako proposamen bakarra. 3. eranskinean bertze proposamen bat aurkezten da, nahiz eta orain arte aipatutako pausuak ondokoaren barnean txerta daitezkeen eta biak konbinatuz proposamen osatuago bat egin daitezkeen.

2.6.2. Irakurketa eta idazketa planaren osagaiak

Irakurketa eta idazketa planean honako osagai hauek izan beharko lituzke Varios-en arabera (2007):

1. *Testuinguruaren balorazioa*: Horrelako plan bat diseinatzerakoan lehenik eta behin ikastetxearen testuingurua zein den aztertu behar da (ikasleak, irakasleak, familiak, jarduera didaktiko ezberdinak...). Modu honetan irakurketa eta idazketarekin ikastetxeak dituen indarguneak eta ahulguneak zein diren zehaztuko dira.
2. *Helburuak finkatzea*: Aitzinetik egindako analisi horretan lortutako emaitzen arabera, ahalik eta helburu errealenak planteatuko dira, bertako egoera kultural sozial... ezberdinak kontuan izanik.

3. *Jarduera didaktikoan kontuan hartu beharreko printzipioak*: Helburu horietatik, zenbait printzipio sortuko dira jarduera didaktikoa zuzentzeko. Hauek irakurketa eta idazketa curriculumeko arlo guztietan modu sistematiko eta koherente batean lantzeko balioko dute. Printzipio hauek ikastetxearen beharrak eta ikasleen ezaugarri ezberdinak (psikologikoak, sozialak, linguistikoak eta kulturalak) aintzat hartuko dituzte.
4. *Irakurketa eta idazketa planaren zehaztapenak curriculumeko arlo bakoitzean*: Ezarritako helburu eta printzipio ezberdinak arlo bakoitzeko programazio didaktikoetan islatuak egon behar dute. Hortaz, ezinbertzekoa izanen da arlo bakoitzean irakurketa eta idazketa planarekin lotura duten helburu, eduki, metodologia eta ebaluazio irizpideak zehaztea.
5. *Irakurketa eta idazketa bultzatzeko eginen diren diziplinarteko jarduerak, jarduera globalen zehaztapena eta hauen koordinazioa ikastetxeko liburutegiarekin eta IKT-ekin*: Ezinbertzekoa da ikastetxeko liburutegi zerbitzua eta IKTen erabilera modu eraginkor batean erabiltzea, irakurketa eta idazketa prozesuak lagundu eta bultzatzeko. Horretarako koordinazio minimoa izatea funtsezkoa izanen da.
6. *Ikasteko zailtasunei atentzioa eta aniztasunari erantzuteko neurriak*: Ikasgela baten ezaugarri nagusia gela horretako aniztasuna izan ohi da. Badira hezkuntza laguntzaren berariazko premiak dituzten ikasleak eta hortaz ezinbertzekoa da plan honetan zenbait neurri kontuan hartzea, hala nola, pertsonen esleipena, denbora eta espazioaren kudeaketa... Irakasleen helburuak ikasle guztietara iristea izan behar du eta hortaz beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dira ahalik eta erantzun esanguratsu eta hoberena ematearren, inklusio printzipioari behar bezala erantzutearren..
7. *Urteko jarduera osagarrien planarekin eta ikastetxeen komunitatearekiko irekiera programarekin erlazioa duten eginbehar espezifikoak finkatzea*: Irakurketa eta idazketarekin lotura handia duten eskolaz kanpoko jarduerak ere garrantzitsua da irakurketa eta idazketa planaren barnean haien tokia izatea, modu integratu batean landu ahal izateko.
8. *Familiak informatu eta formatzea haien lankidetzaz sustatuz*: Beharrezkoa da familien inplikazioa bilatzea haien seme alaben irakurketa eta idazketa

prozesuaren garapenean parte hartzeko. Ekintza ezberdinak egin daitezke familiekin, saio informatiboetatik hasita, plan egituratu eta espezifiko batzuetara iritsi arte.

9. *Inguruko bertze eragileen parte hartzea eta kolaborazioa sustatzea*: Ikastetxe bateko irakurketa eta idazketa planak nahiko irekia izan behar du helburu berdintsuak dituzten inguruko bertze instituzioek parte hartu ahal izateko: Liburutegi publikoak, zentro bereziak, fundazioak... Irakurketa eta idazketa planaren barnean hauen parte hartzea sustatzen duten jarduerak ager daitezke.
10. *Eskura ditugun baliabideak aprobetxatu eta behar ezberdinak zehaztea*: Irakurketa eta idazketa plana eraginkorra izan dadin, arras garrantzitsua da beharrezkoak diren giza baliabideak edo baliabide materialak zehazten dituen atal bat izatea. Honetaz gain, eskuragai dauden bertze zenbait baliabide ere, hala nola, denbora, espazioa, material bibliografikoak, teknologia ezberdinak... zehaztea ere funtsezkoa izanen da.
11. *Profesionalen formakuntza*: Irakurketa eta idazketa plan baten diseinuak, garapenak eta ebaluazioak, bertan parte hartzen duten irakasleek gaiaren inguruan beharrezko formakuntza jasotzea eskatzen du. Irakasleen parte hartzea eta konpromisoa zenbat eta handiagoa den, gero eta argiago ikusiko dituzten zenbatekoak diren haien prestakuntzaren beharrak.
12. *Irakurketa eta idazketa planaren koordinazio, hedatze, jarraipen eta ebaluazio mekanismoak*: Aitzinetik bildutako ekintza guztiak eraginkorrak izan daitezen ezinbertzekoa da planaren koordinazioa eta jarraipena egitea. Irakurketa eta idazketa planaren barnean antolakuntza egiturek (denboraren antolakuntza, espazioak, ordutegiak, ardurak) bilduta egon beharko lukete. Gainera, arduradunak zein diren eta planaren ebaluazioaren nondik norakoak ere bertan bilduak izan beharko liriateke.

2.7. Irakaskuntza kooperatiboa

Gaur egun gaitasunak garatzeko metodologia kooperatiboek gero eta presentzia handiagoa izaten dute haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan batez ere.

Orain dela urte gutxi arte (nahiz eta gaur egun zenbait ikastetxeetan irakaskuntza estilo hau mantentzen den), irakaskuntza indibidualistak izan du presentzia handiena, nolabait ikaslea hartzaile gisa kokatuz eta irakaslea berriz igorlea. Azken bolada honetan metodologia berritzaile hauek ikasgeletan sartzeak aldaketa ikaragarria ekarri du ikastetxeetako geletara, izan ere irakaskuntza berplantetzatea eskatzen baita.

“Aprender es algo que los alumnos hacen, y no algo que se les hace a ellos. El aprendizaje no es un encuentro deportivo al que uno puede asistir como espectador. Requiere la participación directa y activa de los estudiantes. Al igual que los alpinistas, los alumnos escalan más fácilmente las cimas del aprendizaje cuando lo hacen formando parte de un equipo cooperativo”⁷ (Johson, Johson, Holubec, 1999, 5). Hauxe da autore hauek irakaskuntza kooperatiboaren inguruan egiten duten aipua, eta egia erran guztiz ados nago hauek aipatzen dutenarekin.

Pujolasek (2008) haren lanean behar bezala azaltzen duen gisan, hiru irakaskuntza estilo bereiz daitezke: Indibidualista (kasu honetan ikasle bakoitzak bakarrik egiten du lan eta irakasleak irakasten duen guztia ikastea espero da), konpetitiboa (ikasle bakoitzak bakarrik egiten du lan, bertzeak lehiakide gisa hartzen dituelarik eta gainera bertzeek baino gehiago edo lehenago ikastea espero da) eta kooperatiboa (Kasu honetan ikasleek talde txikietan lan egiten dute elkarri lagunduz eta irakasten den hura ikastea espero da baina ikasle guziak elkarri laguntza eskainitako prozesu baten bidez).

Argi eta garbi dago azken urte hauetan azkeneko irakaskuntza estilo hau indar handia hartzen ari dela eta horren arrazoia argia da: Inklusioa bultzatzen duen metodologia da aipaturiko hiruen artean. Kasu honetan heterogeneotasuna alderdi positibo gisa hartzen da eta aberastasun iturri gainera. Heterogeneotasun hori, alderdi anitzi begiratzuz lortzen da, hau da, ikasleen ezaugarri kognitiboak, sexua, jatorria, kultura, psikologia, bizi diren gizartea, arraza...

⁷Ikastea ikasleek egiten duten zerbait da eta ez haiei egiten zaien zerbait. Ikaskuntza ez da kirol topaketa bat, non bertaraten direnak ikusle gisa egon daitezken. Ikasleen parte hartze aktibo eta zuzena eskatzen du. Alpinismoa egiten dutenek bezalaxe, ikasleek errazago lortzen dituzte ikaskuntzaren gailurrak talde kooperatibo bateko partaide izanik. Horrekin batera irakurtzeko ohituraren garapena eta irakurtzearekiko interesa ere bilatzen ditu, irakasleen jarduteko modu planifikatu eta koordinatu baten ondorio bezala.

Aipatutako irakaskuntza estilo honetan ikasleek elkarrekin ikasten dute eta batak bertzeari dakien hura transmititzea da helburu nagusia, guztiek elkarrekin ikasten dutelarik. Izan ere bazterketarik gabeko gizarte bat lortzeko ezinbertzekoa da ikasgela inklusiboak izatea, Pujolasek (2009) aipatzen duen gisan. Modu honetan errealitate txikiak elkartuz, errealitate handi hori aldatzeko bidea irekitzeko aukera handia egon daiteke.

Gaitasunak garatzeko metodologia hauen bertze helburu nagusietako bat ikasgelan dauden ikasle guztiek aitzinera egitea da, bat bera ere gibelean utzi gabe. Hortaz ezinbertzekoa da ikastetxe guztietan gisa honetako metodologiak erabiltzen hastea eta ikasleek elkarrekin ikasteak dituzten onurez jabetzea, gauza arras interesgarri eta positiboak sortzen baitira.

Gerta liteke zenbaitek irakaskuntza kooperatiboak dituen alderdi onez ez jabetzea eta irakaskuntza indibidualista edo konpetitiboaren alde lan egitea, hauetan zentratuz. Hortaz, Johson, Johson, Holubec-ek (1999) haien lanean aipatzen dutenez, irakaskuntza kooperatiboak, bertzeekin alderatuz, honako alderdi hauei bidea irekitzen die:

- Ikasleek jarduera ezberdinak egiteko esfortzu handiagoa egiten dute eta gogo gehiago jartzen diote lanari, errendimendu altuagoa erdiesten dutelarik.
- Ikasleen artean ematen diren erlazioak positiboagoak izaten dira. Modu honetan talde lanaren izpiritua pizten da haiengan eta konpromiso handiagoko erlazioa sortzen dira. Honetaz gain, aniztasuna positiboki ikusten eta baloratzen dute bai irakasle eta baita ikasleek ere.
- Osasun mental hobea lortzea, nia indartuz, garapen soziala bultzatuz, auto-estimua garatuz....

Irakaskuntza kooperatiboa erdiesteko IV. eranskinean agertzen diren osagaiak ezinbertzekoak izanen dira:

Irakaskuntza kooperatiboaren barnean, metodologia kooperatibo anitz aurki ditzakegu. Hala nola, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, arazoetan oinarritutako ikaskuntza, berdinen arteko tutoretza, Puzzle metodologia... Hala ere lan honetan

berdinen arteko tutoretzaren barnean, bikoteka irakurtzen programan zentratuko naiz, metodologia honek interes handiko gaia baita azken urte hauetan irakasleen artean.

3. **Taula:** Banakako irakaskuntza eta irakaskuntza kooperatiboaren arteko alderaketa

	Banakako irakaskuntza	Irakaskuntza kooperatiboa
Lan egiteko modua	Ikasleek banaka egiten dute lan, haien mahaietan kokatuta daudelarik.	Ikasleek taldeka lan egiten dute, taldeak ahalik eta anitzenak direlarik ikasleen ezaugarriei erreparatuz.
Ikaslearen rola	Ikasleak informazioa jasotzen du eta irakasleak erraten duen hori egiten du.	Ikasleek irakasleak emandako informazioa jasotzeaz gain, askotan haiek izaten dira saioaren gidari. Nolabait partaidetza aktiboa izaten dute eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren gidari ere izaten dira.
Irakaslearen rola	Irakasleak informazioa helarazten du eta bera izaten da gelako gidari nagusia. Berak izaten du paper aktiboa eta bera izaten da gelaren dinamikaren arduradun nagusia.	Kasu honetan irakasleka nahiz eta ikasleak gidatzearen ardura izan, ikasleek ere inizatiba hartzen dute eta irakasle papera hartzen dute (bikoteka irakurtzen programan...). Hala ere irakaslearen ardura orientabideak ematea eta ikasleek ikasten dutela ziurtatzea izaten da
Gelaren kudeaketa	Ikasleak haien mahaietan kokatuta egoten dira.	Kasu honetan ikasleak taldeka egiten dute lan

	Hauek binaka, banaka, ilaraka edo "U" forman egoten dira normalean.	normalean eta gelako espazio guztiak aprobetxatzen saiatzen da.
Bertzeekiko komunikazioa	Normalean ikasleak ez dute bertzeekin solasten al eta hori egiten bada, askotan zigorrak izaten dira.	Kasu honetan bertzeekin komunikatzea da xedeetako bat. Bertzeekin lan egiteko ezinbertzekoa da bertzeen ideiak entzun eta hauek errespetatuz ideia komunak bilatzea.

2.7.1 Irakurketa dialogikoa

Ikaskuntza dialogikoaren barnean irakurketa dialogikoa aurkitzen da, azken batean irakurketa dialogikoa ikaskuntza dialogikoaren printzipioetan oinarritzen baita. Aubertek (2008) honako printzipio hauek zehazten ditu:

1. Berdintasunezko elkarrizketa
2. Kultur adimena
3. Eraldaketa
4. Zentzua sortzea
5. Solidaritatea
6. Dimentsio instrumentala
7. Desberdintasunen berdintasuna

Orain arte normalean irakaslea izan da testu ezberdinak eskaini dizkiena ikasleei eta hauei eskatu galderak erantzutea, baina badira bertze ikastetxe asko eta asko metodologiaz aldatzea erabaki dutenak.

Irakurketa dialogikoa konpartitutako irakurketa metodologia bat da. Metodologia honen kasuan, irakasle eta ikasleen rola aldatzen direla erran daiteke. Ikasleek istorioak irakurtzen ikasten dute eta irakasleek berriz irakurtzen den hori

modu aktibo batean entzuten dute (galdera ezberdinak eginez, informazio gehigarria eskainiz gaiaren inguruan...).

Testu hauen irakurketan parte hartzen duten pertsonak testuaren interpretazioan murgiltzen dira, testua ahalik eta hobekien ulertzearen. Honetaz gain, testuak kritikoki hausnartzen dituzte askotan testuetan agertzen den informazioak interpretazio ugari egiteko parada eskaintzen baitute. Irakurketa modu honetan egiten bada, haur horiengan garapen nabarmena ikusten da irakurle gisa eta baita gizarteko partaide gisa ere.

Metodologia honetan, lanketa eskolan edo etxean hasiko da, ikasleen gaitasunen arabera. Aipatu, bikoteka irakurtzen programan bezala, gurasoen inplikazioa sustatzen saiatuko dela, euren parte hartzearen garrantzia azpimarratuz. Irakasleak ikusten badu ikasleak gai direla lanketa etxean egiteko, etxean egingen da eta bertze gisan, eskolan egingen da.

Irakurri behar dena irakasle eta ikasleen artean adosten da eta ondotik haurrek etxean irakurtzen dute adostutakoa. Hau egiten dutenean, gehien gustatu zaien atal edo atalak azpimarratzen dituzte, ondotik bertzeekin konpartitu ahal izateko. Eskolara iristen direnean eta irakurketa dialogikoaren saioa hasten denean, haur bakoitzak azpimarratutako hori azaltzen du, beti ere bertzeen txanda errespetatuz eta bertzeen ideiei kasu eginez. Izan ere, saio hauetan, aukeratu duten zati hori zergatik aukeratu duten argudiatzen dute, eta modu honetan, debate gisako bat sortzen da ikasle eta irakasleen artean bakoitzak bere iritzia plazaratzen duelarik. Debate edo eztabaida honetan, ikasle guztiek parte hartzea ezinbertzekoa izanen da, hori izanen baita helburuetako bat.

Aitzinetik aipatu den gisan, irakasleak parte hartze aktiboa izanen du saio hauetan eta hortaz erregistro bat eramanen du ikasle guztien inplikazioa zein den erregistratzen duena. Hortaz, saio batean zenbait ikasle modu pasibo batean egon direla erregistratu badu, bertze saioan, hauen parte hartzea sustatzen saiatuko da, gidari lanak eginez nolabait. Hau izanen da irakasleak saio hauetan beteko duen rola.

Aipatu den gisan, ikasgelan sortzen den elkarrizketa berdinen arteko elkarrizketa izan ohi da, hortaz, batak bertzea errespetatzea funtsezkoa izanen da, berdintasunaren ideia bermatuz. Izan ere metodologia berritzaile honen helburua parte hartzaile guztiak ikaskuntza berriak ikasteko eta jakintza ezberdinen ekarpenak egiteko gai direla sentitzea da. Hau horrela izanik, zenbat eta gela heterogeneoagoa izan (haien interesei dagokionez, jatorriari dagokionez, bizitokiari dagokionez...) orduan eta gauza interesgarri eta anitzagoak aterako dira, haien gustuak ezberdinak izanen baitira. Modu honetan, haiek aukeratzen dituzten zatiak edo atalak ezberdinak izanen dira eta azalpen edo argudio aniztasuna izanen da ziurrenik ikasgeletan.

Metodologia berritzailea hauetan, bikoteka irakurtzen metodologian ematen den bezalaxe, haurrek motibazio gehiagorekin irakurtzen dute, bertzeekin konpartituko dutela badakitelako eta nolabait euren bizipen eta sentipenak plazaratzeko aukera izanen dutelako. Modu honetan irakurketarekiko plazer handiagoa sentitzen dute.

Hau guztia aipatu ondotik, “Lectura dialógica: Interacciones que mejoran y aceleran la lectura” artikuluan irakurritako zatitxo hau adierazi nahiko nuke, irakurketa dialogikoaren funtsa edo ideiarene garrantzia ederki azpimarratzen duelakoan bainago.

“Fruto del dialogo igualitario y del debate, aumenta la motivación y la curiosidad por aprender los contenidos académicos, potenciando que se investigue sobre todo aquello que se desea aprender”.⁸ (Valls, R., Soler, M. y Flecha, R., 2008, 80).

2.7.2. Bikoteka irakurtzen

Berdinen arteko tutoretza metodologia berritzailearen barnean, bikoteka irakurtzen deituriko programa aurkitzen da. Programa honetan, ezinbertzekoa da ikaslearen, irakasleen eta baita familien inplikazioa eta parte hartze aktiboa izatea, horiek baitira irakurriaren ulermenean hobekuntza lortzeko giltza nagusiak.

Gaur egun inklusioaren bidean topatzen garen une honetan, hezkuntza laguntzaren berariazko premiak dituzten ikasleekin irakurketaren ulermena lantzeko

⁸Berdinen arteko elkarrizketaren eta eztabaiden fruituak eduki akademikoak ikasteko, motibazioa eta kuriositatea handitzen ditu, ikasi nahi den guzti horretan ikertzea sustatuz.

metodologia arras aberatsa da hau, lankidetzako bertze metodologia guztiekin batera. Bikoteak egiten direnean eta hauek lanean dihardutenean, ulermena lantzeaz gain, bertze baloreak ere presentzia handia izaten dute (errespetua, pazientzia, laguntasuna, elkarri laguntzearen garrantzia...) ikasleek une goxoak pasako dutela ziurtatuz.

Egia da zenbait kasutan agian ez direla gai izaten jarduera orri horiek edo jarduera orri horietarako formulatutako galderak erantzuteko eta hortaz egokitzapen bat egitea izan daiteke konponbidea. Modu honetan bertze gelakideak egiten ari direna egiten ari direla sentitzen dute ikasle hauek eta hori haientzat arras erranguratsua izaten da. Hala ere horrelako kasuetan familien parte hartzeak ze erran handia izanen du, eta eskolak eta familiak eskutik helduta egiten badute bide hau, benetan aberatsa izan daiteke emaitza.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Hezkuntza Zientziak saileko ikerketa talde batek Berdinen arteko ikaskuntza izeneko programa hau bultzatu zuen orain dela zenbait urte. Duran (2007).

Bikoteka irakurtzen programa GRAI (Grupo de Investigación sobre Aprendizaje entre Iguales) taldeak jarri zuen martxan 2005/2006 ikasturtean Katalunian. Lehenengo ikasturte honetan ikastetxe batean jarri zuten martxan, Riera de Ribes ikastetxe publikoan hain zuzen ere.

Behin ikastetxe batean proba egin ondotik, hurrengo ikasturtean, urte horretan jasotako informazioa bertze ikastetxeen eskuragai jarri zuten, emaitza positiboak lortu zituztela ikusirik. Hauen helburua ikastetxe gehiago programa honetan sartzea zen eta horretarako ikastetxe bakoitzeko bi irakasle gutxienez honen inguruan formatzea eskatzen zen (gaur egun ere ikastetxe batean programa hau martxan jarri nahi bada, baldintza bi irakaslek gutxienez formakuntza jasotzea da). Modu honetan programarako prestakuntza jaso duen irakaslerenbat ikastetxetik mugitzen bada, hein handi batean bertzeak formakuntza jaso duenez, programa hurrengo urteetan martxan jarraitzea ahalbidetzen da.

Kataluniako bertze zenbait ikastetxek emaitza positiboak lortu zituztela ikusi zutenean, programa honekiko interesa erakutsi zuten. Hau horrela izanik, 2006/2007

ikasturtean, programarekiko interesa erakutsi zuten ikastetxetan jarri zen martxan bikoteka irakurtzen programa, eta aipagarria da hurrengo ikasturtean ere (2007/2008) programarekin aitzinera jarraitu zutela honen emaitzak positiboak zirela ikusiz.

2008/2009 ikasturtean Kataluniatik irten eta Zaragozako bortz ikastetxetan jarri zen martxan programa berritzaile hau. Hala ere bortz ikastetxe hauek lortutako emaitzak positiboak zirela ikusirik, hurrengo urteetan ikastetxe gehiago animatu ziren programa honetan parte hartzera.

2009/2010 ikasturtean Euskadiko 13 ikastetxe (lehen hezkuntzakoak eta bigarren hezkuntzakoak) eta Mallorkako zazpi ikastetxe gehitu ziren bikoteka irakurtzen programara.

2010/2011 ikasturtean Menorcara iritsi zen programa hau eta bertako sei ikastetxek hartu zuten parte.

2012/2013 ikasturtean iritsi zen programa hau Nafarroako Foru Komunitatera. Hasieran 11 ikastetxe izan ziren programan sartu zirenak, baina gaur egun badira hamaika baino gehiago programa honetan dihardutenak.

Miquel, Laspalas eta Turmok (2015) ederki adierazten duten bezala, Programa honen xedea ikasleen irakurriaren ulermena hobetzea da, ulermenean zentratuz. Hala ere xede honetaz gain, baditu bertze helburu batzuk ere bere gain dituenak. Hala nola, metodologia inklusibo eta parte hartzaileak sustatzea, haurren irakurtzeko gaitasuna hobetzea, haurrak egunerokotasunean topa ditzaketen testuekin trebatzea, euren arteko lankidetzak bultzatzea, familien parte hartzea sustatu eta eurek eskola komunitatean duten eginkizuna azpimarratzea...

Arestian aipatu diren oinarrizko gaitasunetara itzuliz, programa honek denak lantzen dituela erran daiteke. Hizkuntza komunikazioa, Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak, Gaitasun digitala, Ikasten ikastea, Gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailtza eta kultura kontzientzia eta adierazpenak.

Gaitasun guztiak lantzea hein handi batean irakaslearen esku dago. Anitzek erran dezaketen matematika eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak ez irakurketa gaitasunaren garapena Lehen Hezkuntzan XXI. mendean

duela toki handirik programa honetan, baina pentsatzen jarritz gero badu. Irakasleak prestatu beharreko lan orriak (testu mota edo testu genero ezberdinetakoak) eta hauen inguruan egiten diren galderak ahalik eta anitzenak egiten baditu, gaitasun guztiak lantzeko bidea ematen du.


Programa honetako irakurketa saioetan hurrek bikoteka egiten dute lan eta bikote horiek egiteko, lehenik ACL (*Adquisición de Competencia Lectora*) probak egiten dituzte haien irakurketa maila zein den jakitearren. Aipagarria da ACL hauek ezberdinak izaten direla maila bakoitzerako, hau da, maila bakoitzari dagokien frogak egiten dira.

Proba horiek egin ondotik, ateratako emaitzak aztertzen dira eta atera duten puntuazioaren arabera bikoteak egiten dira. Bikoteak egiterako orduan, kontuan hartuko den lehenengo irizpidea ACL horretan lortutako emaitza izanen da, hau da emaitza altuena hurrengo altuenarekin.... Baina gerta liteke egindako zenbait bikoteraren artean erlazio sobera ona ez izatea, orduan aldaketak eginen lirateke, xedea ahalik eta lan giro hobereana eta hurbilena lortzea baita, haurrak gustura ari daitezen euren lanetan.

Programa hau antolatzerako orduan, zenbait kasutan adin berdinekoak diren ikasle taldetan egiten da, baina bertze zenbait kasutan adin ezberdinetako ikasleekin egiten dira bikoteak. Hortaz, Duranek (2011) aipatzen duen gisan, bikoteak egiterako orduan garrantzi handia ikasleen gaitasunek izaten dute, adina eta generoa maila apalago batean gelditzen direlarik. Izan ere ez da komenigarria tutoratuaren eta tutorearen artean desberdintasun handiegirik izatea, tutorea aspertzeko arriskua egon baitaiteke. Hortaz, zenbait esperientzietan oinarrituz, erran daiteke bikoteak egiterako orduan, adin tarte handiena bi urtekoa izatea dela hobereana.

Taldeak bikoitiak izaten direnean ez da arazo handirik izaten bikoteak egiterakoan (bikote kopurua ez baita arazo izaten espazio aski baldin badago noski, arras garrantzitsua da bikoteek elkarri ez molestatzea, haien lanetan ahalik eta kontzentrazio maila altuena izan dezaten) baina arras ohikoa izan daiteke taldeak bakoitiak izatea. Orduan hirukote bat egitea izanen litzateke aukerarik hobereana, hirukoteko batek tutorearen rola hartzen duelarik eta bertzeek berriz tutoratuarena.

Programa honen oinarri kontzeptualei dagokionez, Duranek (2011) honako hiru hauek azpimarratzen ditu: Berdinen arteko tutoretza, familien inplikazioa eta irakurtzeko gaitasuna.



17. Irudia: Bikoteka irakurtzen programaren oinarriak

Oinarri hauetan ederki ikus daitekeenez, familien inplikazioa ezinbertzekoa da programa bere osotasunean aitzinera eramateko. Hortaz, familiei programaren aurkezpena egin beharko zaie honen onurak eta euren parte hartzearen garrantzia azpimarratuz. Izan ere programaren zati bat etxean egin behar izaten dute (etxean bi lan orri egin behar izaten dituzte astean).

Bikoteka irakurtzen programaren helburuei dagokienez, ondoko hauek azpimarratzen ditu Duranek (2007)

- *Metodologia inklusiboak irakasleen esku jartzea.* “El aprendizaje cooperativo, y la tutoría entre iguales en particular permite vivir la diversidad como un valor positivo: Es gracias a la diferencia por la que aprendemos”⁹ (Duran, 2007, 21). Lau urte hauetan azpimarratu izan dudana da Duranek erraten duena hau, eta nire esperientzia aintzat hartuz gero, halaxe dela erran dezaket, eskola txikietan elkarrekin ikasten baitugu.

⁹Ikaskuntza kooperatiboak eta horren barnean berdinen arteko tutoretzak, aniztasuna balore positiboa gisa bizitzeko parada ematen du: Desberdintasunari esker ikasten dugu.

- *Hizkuntzaren irakaskuntzarako didaktika berriak praktikara eramatea.* Berdinen arteko tutoretzak eta familien inplikazioak onura anitz izan ditzakete irakurketa gaitasunaren garapenean.
- *Irakurketa gaitasuna eta bereziki ikasleen irakurriaren ulermena hobetzea.* Modu honetan PISA frogetan lortutako emaitzak hobetzen saiatuko da.
- *Ikasleen arteko lankidetzeta eta kooperazioa sustatzea.* Gaur egungo gizartean, elkarrekin jardutea ezinbertzekoa da, eta ohitura horiek eskolatik ekartzen badira, emaitza arrunt onak lor daitezke.
- *Eskolako lanetan familien parte hartzea sustatzea.* “Madres, padres y docentes son dos colectivos que están “condenados a entenderse” mientras la principal motivación e interes de ambos sea que sus hijos/a alumnos consigan integrarse como ciudadanos y adquieran el máximo rendimiento escolar”¹⁰ (Giró eta Andres 2016, 334).

Bikoteka irakurtzen programaren denboralizazioari dagokionez, hasierako prestakuntzako hiru saioekin hasten da programa hau. Saio hauen helburuak ondokoak izanen dira:

1. *“Berdinen arteko tutoretzaren oinarriak ikastea.* Bi ikasleek ikasten dutela ulertzea. Tutoreentzako aholkuak. (...)
2. *Saioak egituratzen dituzten jarduerak ikastea eta behar direnekin praktikatzea.* Irakurri aurreko jarduerak. Bikoteka irakurtzea PPP metodoaren bidez. Irakurriaren ulemen-jarduerak. Irakurketa adierazkorra. (...)
3. *Laguntza-materiala erabiltzen ohitzea (jarduera-orriak, aurrerapen- eta ebaluazio ereduak, elkarrizketa- edo autotxosten-ereduak).* (...)
4. *Bikotekide izango direnak ezagutzea (batez ere bikoteak hasierako prestakuntzaren ondoren egiten badira).”* (Duran, 2011, 40)

Prestakuntza saio hauek egin ondotik lan saioei hasiera emanen zaie. 24 lan saio (24 lan orri desberdin) izanen dira 12 astetan banatuak eta saio bakoitza 30 minutukoa izanen da. Lan saioen antolakuntzari dagokionez, ondoko irudian ikus

¹⁰Gurasoak eta irakasleak elkar ulertzeraz “kondenatuta” dauden bi kolektibo dira, haien motibazio eta interes handiena haien seme-alabak gizartean integratzea lortzea eta errendimendu akademiko altuena lortzea direlarik.

daiteke saio bakoitzeko dinamika zein izanen den, helburua 30 minutu horiei ahalik eta errendimendu gehien ateratzea izanen delarik. Duranek (2011) aipatzen duen gisan, ezinbertzekoa da saioek egitura argia izatea, tutoreek eta tutoratuek argi eta garbi jakin dezaten momentu bakoitzean zer egin behar duten. Hasieran arras zurruna izanen da lan egiteko modua eta dinamika, baina ikasleek errutina haur barneratzen dutela ikusten den unetik aitzinera, askatasun gehixeago emanen zaie haien sormenari bide ematearren.

24 saiotan 24 lan orri egin beharko dituzte. Lan orrien egiturari dagokienez testu bat egonen da haiek irakurri beharrekoa eta ondotik testu honen inguruko zenbait galdera hiru ataletan banaturik: Irakurri aitzinetik egin beharrekoak (haiek dituzten aurre ezagutzetan oinarrituak izanen dira eta testuari lehen begirada bat emanda galdera hauek erantzun beharko dituzte), irakurri bitartean (testua irakurri eta honen inguruko zenbait galdera izanen dira, eta posible bada *National Reading Panelek* zehaztutako bortz prozesuak landuko dira) eta akitzeko jarduera osagarriak (denbora izanez gero, testuarekin zerikusia duen jarduerarenbat)

Ikasle tutoreek lan orriak lan saioa baino egun batzuk lehenago eramanen dituzte etxera eta bertan prestatuko dituzte, lan saioan ikasle tutoratuak zalantzak izaten baditu, hauek behar bezala argitzeko gaitasuna izateko. Erran bezala ikasle tutoreak direnak izanen dira bertze ikasleek testua ulertzeko ardua izanen dutenak eta hortaz horretarako beharrezkoak diren baliabideak izan beharko dituzte.

Saioak dituen 30 minutu horietan, lehenik eta behin irakurri aitzinetik erantzun beharreko galderak erantzunen dituzte ikasleek. Galdera horiek erantzun ondotik, ikasle tutoreak testua irakurriko dio ikasle tutoratuari. Hau ozeneko irakurketa izanen da, baina aldi berean ozentasun maila kontrolatzea ezinbertzekoa izanen da, bertze klaseko lagunak ez molestatzearren. Irakurketa hau egin ondotik, bi ikasleen artean egingen dute irakurketa. Kasu honetan ikasle tutorea hasiko da testua irakurtzen eta bertzea bi segundo beranduago hasiko da. Horretarako, ezinbertzekoak izanen dira abiadura, intonazioa... behar bezala kontrolatzea, ulermen maila ahalik eta altuena izan dadin. Akitzeko hirugarren irakurketa egingen da eta kasu honetan ikasle tutoreak irakurriko du PPP (*Pausa, pista, Ponderación*) metodoa erabiliz. Kasu honetan ikasleen

kokapenak garrantzi handia izanen du, irakasle tutoreak ikasle tutoratuaren sorbaldaren gainean eskua jarriko baitio irakurketan huts eginez gero abisatzearren.

Tutoratuak huts egin duenaren keinua egiten badio eta segundo batzuk igaro ondotik ikasle tutoratua egindako huts egiteaz ohartzen ez bada, pista bat emanen dio hau jabetzearren eta pistarekin ere ez bada ohartzen, orduan egindako huts egitea zuzenduko dio eta irakurketarekin aitzinera egingen dute.

Jarduera orriak prestatzerakoan ezinbertzean kontuan izan beharreko alderdia testu mota eta testu genero mota ezberdinen erabilera da. Kasu honetan, normalean, irakasleak izaten dira lan orri hauek prestatzearen arduradun nagusiak, baina zenbait kasutan familiariek eta ikasleek ere parte har dezakete honetan. Adibidez arras ideia ona da ikasleei haien motibazio iturriak zein diren galdetzea eta ea zeren inguruan irakurtzea gustatuko litzaiekeen galdetzea.

Lan saioetan, irakasleek erregistro orrien bidez gelan gertatzen denaren inguruko erregistroa eramanen dute eta ikasle bikoteak ebaluatzerako orduan, bikote bakoitzak (tutoreak zein tutoratuak) egindako lana hartuko da kontuan. Gainera saioaren bukaeran (normalean lehen hezkuntzako irakasgaien iraupena 50 minutukoa izaten da) testua komentatzeko erabiliko da, ikasleek testua osotasunean ulertu dutela ziurtatzearren.

Hauek astean bitan (12 astez jarraian) egingen diren saioen egiturak izanen dira. Hala ere hamabortzean behin, ikasleen autoebaluazio orriak egingen dira eta kasu honetan bikoteak euren buruak autoebaluatuko dituzte. Horretarako badira zenbait autoebaluazio orri sortuak direnak, eta nire atal praktikokoan ere horiek ikusteko aukera izanen da, nire praktikaldian erabili behar izan baititut.

Ikasleen kokapenari dagokionez, arestian erran dudan gisan, ezinbertzekoa izanen da nahikoa espazio izatea eta ikasleak eroso egotea, batak bertzea molestatu gabe. Bikoteen kasuan, ikasle tutorea eskuina bada ezkerreko aldean kokatuko da eta ezkerreko bada eskuineko aldean.

3. Atal praktikoa

3.1. Ikastetxea eta ingurunea

Proposatutako atal praktikoa honetan Bikoteka Irakurtzen programa martxan jartzea erabaki zen. Horretarako praktikak egiten ari naizen ikastetxean, Irurritako Ikastetxe Publikoan hain zuzen ere nire proposamena aurkeztu nuen. Zuzendariaren onespina jaso ondotik, ikastetxeko klaustroaren aitzinean proposamena azaldu nuen eta haien onarpena jaso nuen.

Ikastetxe hau Baztanen kokatutako ikastetxea da, Baztango herri eskoletako ikastetxeetako bat hain zuzen ere. Ikastetxe honetan D ereduko (ikastetxeko eredu bakarra izanik) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak daude, 7 taldetan banatuta (bi haur hezkuntzan eta bertze bortz lehen hezkuntzan).

Kasu honetan laugarren eta bortzgarren mailako ikasleekin jarri da martxan programa hau. Gela honetan bi ikasmailetako ikasleek elkarrekin ikasten dute, eta hauen arteko harremanak eta talde honetako ikasle kopurua aintzat hartuz, gela honen egokitasunaz jabetu ginen eta hortaz, bertan martxan jartzea pentsatu zen. Gainera, lanerako konpromiso handia izaten dute, eta edozein proposamenen aitzinean gogoia eta ilusioa nabaria izaten da.

Gela honetan hamahiru ikasle daude. Horietatik sei laugarren mailan eta bertze zazpiak bortzgarren mailan. Ikasle hauen artean ohikoa den gisan aniztasun handia dago ezaugarri ezberdinei dagokienez (errendimendu akademikoaren maila, sexua, izaera...), eta hau horrela izanik, momentu aberatsak sortzeko aukera anitz badira.

Nire kasuan programa hau hizkuntza batean soilik martxan jarri nahi nuen, haur hauen ama hizkuntzan, euskaraz alegia, eta hortaz irakurketa saioa eta euskarako bertze saio bat erabiltzea pentsatu zen (ikasleen irakasleekin adostasun batera iritsi ondotik).

Programa ahalik eta errealena egitea izan da xedea, modu honetan lortutako emaitzak ere ahalik eta errealenak izanen baitira. Horretarako 19 lan orri landu dira.

Arestian aipatu bezala, arras garrantzitsua da ikasleak prestatzea prestakuntza saio batzuen bidez eta praktikan ere horixe izan zen abiapuntu. Saio hauetan lehenik eta behin programarako ongi etorria ematen zaie eta horrekin batera ikasle tutore eta tutoratuen egin beharrak zein diren azaltzen zaizkie. Horretarako orri bat ematen zaie (ikus VI. eranskina) non ikasle tutore batek izan beharko lituzken ezaugarriak eta ikasle tutoratu batek eduki beharko lituzken ezaugarriak idazteko aukera ematen zaien. Behin banaka egin ondotik, taldeka jartzen dira, eta denen artean rol bakoitzari dagozkion borts ezaugarri aukeratu behar dituzten ondotik eginen den horma irudi batean gelan kokatzeko.

Saio hauekin akitu ondotik eta haien zalantza guztiak behar bezala argitu ondotik (biziki garrantzitsua baita programaren nondik norakoak garbi izatea, programan indarra eta interesa jartzearen) ACL probak pasatu zitzaizkien. Kasu honetan frogak ezberdinak izan ziren laugarren eta bortzgarren ikasmailetako ikasleak baitzeuden. (Emaizak ondoko puntuan ikus daitezke).

Frogak pasatu ondotik eta hauek zuzendu ondotik, emaitza hauek aztertu eta bikoteak egin ziren. Bikoteak laugarren eta bortzgarren mailako ikasleak elkartuz egin ziren. Modu honetan bortzgarren mailakoa tutore izanik eta laugarren mailakoa aldiz tutoratuak.

Ikasgelan hamahiru ikasle izanik, kasu batean hirukotea egitea erabaki zen. Ikasle hauetako batek Hezkuntza laguntzaren berariazko premiak zituela ikusirik, ACL probetan maila hoberena erakutsi zuten bikotearekin kokatzea erabaki zen. Modu honetan ikasle tutoratuak ez baitzuen tutorearen laguntza handirik beharko eta modu honetan ikasle tutoreak aipatutako bertze ikasleari ere laguntza emateko helburuarekin.

19 lan saioen antolamenduari dagokienez, lehenik “Irakurri aitzinetik” egin beharreko galderekin hasten ginen, testua irakurri baino lehen, haien aurre ezagutzak aplikatuz erantzun beharreko galderak erantzunez. Hau egin ondotik, tutoreek lehenengo irakurketa bat egiten zuten ozen haien bikotekideentzat. Ondotik, biek batera irakurtzen zuten (bi segundoko tartearrekin) eta akitzeko ikasle tutoratuak 3. Irakurketa bat.

Testuaren irakurketaren ondotik, ikasle tutoratuek proposatutako galderei erantzuten zieten. Horretarako bikotekidearen laguntza zuten, zalantzak suertatzen zitzaizkienean batez ere. Ikasle tutoreak bertzeari lagundu ahal izateko, funtsezkoa zen galderak aitzinetik prestatuak izatea.

“Irakurri ondotik” galderak erantzun ondotik, jarduera osagarriak egiten ziren denborarik izatekotan. Jarduera osagarriari dagokionez, testuaren informazioarekin, testu motarekin, gaiarekin... lotura zuten jarduerak izaten ziren, eta kasu honetako helburua, ikasleek idaztea izaten zen gehienetan behintzat.

Lan orriez gain, bertze egin behar batzuk ere izan dira proiektu honetan. Ikasleek euren buruak autoebaluaratu behar izaten zituzten eta horretarako orrialde batzuk prestatu ziren haiek autoebaluaratzeko (ikus XXVI. eranskina). Orri honek haien alderdi positiboak eta hobetu beharrekoak idazteko aukera ere ematen zien, modu honetan hausnartzeko bide ematen baitu.

Atal teorikoan aipatu den bezala, testuak prestatzeko momentuan gauza anitz hartu behar izaten dira kontuan, baina horietako bat testu mota eta testu genero mota ezberdinen erabilera izan da. Hortaz, programa ahalik eta anitzena egiten saiatu izan da. Honetaz gain, bertze aspektu batzuk ere kontuan izan dira. Horien artean, haien hurbilekoak diren aldizkarien erabilera (*Ttipi-Ttapa* adibidez), euskarri ezberdinetako testuak lantzea, haientzat interesgarriak diren gaiak erabiltzea...

Lan saio hauek asteartetan eta ortzegunetan eginen zirela kontutan izanik, ikasle tutoreei egun batzuk lehenago eman zitzaizkien testuak. Asteartetan lan saioa egiteko aitzineko ortziralean ematen zitzairen asteburuan behar bezala prestatzeko eta astelehenetan, zituzten zalantzak gurekin argitzeko. Ortzegunetan zutenean berriz, asteartetan ematen zitzairen testua ortzegunerako prestatzeko.

Programa hau aitzinera eramateko, lan honekin erdietsi nahi ziren zenbait helburu jarri ziren.

- Metodologia kooperatiboez, kasu honetan Bikoteka Irakurtzen programak, dituen onura inklusiboak erakustea.

- Metodologia hau erabiliz, haurren irakurtzeko gaitasunean ematen diren aitzinera pausuak erakustea.
- Haurrek irakurtzen dutenean izan ditzaketen akatsak zein diren ikustea.
- Ikasleak irakasle baten larruan jartzea eta elkarri erakutsiz ikastea.
- Haurren autonomia bultzatzea.
- Testu batek izan ditzakeen atal ezberdinez jabetzea eta hauen garrantzia azpimarratzea.
- Testuei dagokienez ahalik eta aniztasun gehiena lantzea.

Programari amaiera emateko, maiatzaren erdi aldean berriz ere ACL frogak pasa zaizkie hauen garapena zein izan den ikustearren.

3.2. Programan erabilitako materiala

Iruritako ikastetxe Publikoan Bikoteka Irakurtzen programa martxan jartzeko aukera ikusitakoan, bertan erabiliko zen materiala ahalik eta pertsonalena izatea pentsatu zen, modu honetan bertako errealitatetik ahalik eta hurbilen egonen zela ikusi baitzen.

Programaren azalpenean azaldu bezala, saio hauetarako 19 lan orri prestatu dira ikastetxean Bikoteka Irakurtzen programa aitzinera eramateko. Lan orri hauek ahalik eta desberdinenak izatea izan da xedeetako bat, testu mota eta testu genero motei dagokienez. Honetaz gain, testu hauen inguruan egiten diren galderak ere ahalik eta desberdinenak izatea garrantzitsua zen, aipatutako bortz prozesuak ahalik eta gehien lantzearren.

Egia da nahiz eta lan orri guztietan bortz prozesuak lantzen saiatu izan, badirela zenbait testu horretarako biderik ematen ez dutenak. Zenbait testutan ia ezinezkoa da bortz prozesuak lantzen dituzten jarduerak prestatzea, eta horrelako kasuetan egoera ez behartzea da egokiena.

Erabilitako testu guztiak euskaraz izan dira, irakurketako saio bat eta euskarako bertze bat erabili izan baitira programa hau aitzinera eramateko. Testu hauek iturri ezberdinetatik hartu izan dira (internetetik, egunerokotasunean topatzen diren esku

orriak, liburu ezberdinetatik, aldizkarietatik...). Modu honetan hauek ikusiko baitute euskarri ezberdinetan egonik ere, testu izaten jarraitzen dutela.

Testuen ulermen mailari dagokionez, laugarren eta bortzgarren mailakoentzat ulerterrazak bilatu dira. Egia da zenbait kasutan laugarren mailakoentzat egokiago izan direla, bortzgarren mailakoentzat agian errazegiak izan baitaitezke. Hala ere hau ez da arazo, modu honetan tutoreek hobeki defendatuko dute tokatutako testua, eta honen aitzinean segurtasuna erakutsiko dute. Aipatutako azken ideia hau ere arras garrantzitsua baita.

3.2.1. Lan orriak

Atal honetan programan erabilitako lan orriak jarriko dira. Horretarako, testuaren azalpen labur bat emanen da testua nolakoa zen azalduz eta honen inguruko galderak zein izan ziren erakutsiz. Testuak berriz eranskinak atalean egonen dira, testuak ahalik eta errealean izaten saiatu bainaiz.

3.2.1.1. *Bikin bat in* (VII. eranskina) testu jarraitua izan zen lehenengo egunean landutakoa. Eranskinean ikus daitekeen bezala, ekitaldi bat iragartzen duen kartela da, non informazioa idatziz eta irudien bidez agertzen den. Bertso saio horretan ikastetxeko irakasle batek abesten zuenez, haurrentzat erranguratsua suerta zitekeen eta aldi berean, euskal kulturaren parte den gai baten inguruan sakontzeko aukera eman zuen.

Irakurri aitzinetik

1. Testuari begirada bat eman ondotik, non uste duzue aurkituko zenutela horrelako testu bat?
2. Gustuko al dituzue bertsolariak?

Irakurri bitartean

1. Laburtu ezazue testuan agertzen den bertso tramaren inguruko informazioa honako taula honetan:

Eguna	Tokia	Ordua	Bertsolariak	Bertso tramako sarreraren prezioa

--	--	--	--	--

2. Arritxuloko bertso tramara joateko ba al dago autobus zerbitzurik? Eta afari ondotik bueltan etortzeko?

3. Informazio gehiago eskuratu nahiko bazenu, nora joko zenuke informazio bila?

4. Ekitaldi hau babesten duten babesle guztiak Nafarroakoak al dira?

5. Hauetaz gain, ezagutzen al dituzue bertsolari gehiago? Nortzuk?

6. Afariko menuan zein plater uste duzue izanen dela lehenengoa?

- Saiheskia
- Gazta tarta
- Entsalada epela
- Legatza labean

7. Lagun batek erran dizu otsailaren 12an emanen duela izena ekitaldi horietara joateko. Denboraz ibiliko da? Arrazoitu erantzuna

Jarduera osagarriak

1. Aukeratu ezazue bertsolari horietako bat eta prestatu ezazue gidoi bat eginen zenizkioten galderekin.

3.2.1.2. *Lekeitio: Portu ingurua, ibilbideak* (VIII. eranskina) deskribapen testua landu zen ondotik. Testu jarraitua eta bi irudik lagundua. Lekeitioko web orritik ateratako testua da, esku orri digitaletik hain zuzen ere. Kasu honetan ikasle hauen tutorea bertakoa izanik, bere zonaldea ezagutzeko parada eman zuen eta honekin batera haurrei interesa piztuz gero, bazeukaten nori galdetu gaiaren eta baita herriaren inguruan ere. (VIII. eranskina)

Irakurri aitzinetik

1. Argazkiari erreparatuz, zeren inguruan solastatuko da testua?
2. Eskuineko irudia ikusiz, non egonen da kokatua herri hau?
3. Noizbait kostaldean egon izan zarete?

Irakurri bitartean

1. Aukeratu ezazu Lekeitioko kostaldeko ibilbide zuzena zein den. Arretaz irakurri ezazue:
 - a. Gamarra enparantza, Arranegi kalea, Ezpelete kalea, Tala, Portua.
 - b. Gamarra kalea, Arranegi enparantza, Ezpelete kalea, Tala, Portua.
 - c. Gamarra enparantza, Arranegi kalea, tala, Ezpelete kalea, Portua.
 - d. Gamarra enparantza, Portua, Ezpelete kalea, Tala, Arranegi kalea.
2. Erran esaldi hauek egia edo gezurra diren. Gezurra direnak zuzendu itzazue.
 - a. Oxanbeiti jauregia XVIII. mendean eraiki zuten.
 - b. Uribarria jauregi etxeak auzunea bitan banatzen du.
 - c. Harkaitzen gainean San Juan Talako basiliza dago kokatua.
 - d. San Nikolas eta Garraitz, Lekeitioko portuko ibilbidean txertatzen dira.

3. Zer aurki dezakegu Lekeition XVIII. mendekoa?

4. Zein eguraldirekin gomendatuko zenuke ibilbide hau egitea?

5. Erran itzazu portuarekin zerikusia duten bortz hitz.

6. Zein pertsonetan dago idatzia testu hau?

7. Non aurkituko zenuke esku artean duzuen testua? Entziklopedia batean?
Arrazoitu erantzuna.

Jarduera osagarriak

1. Deskriba ezazue zuen herrian eginen zenuten ibilbide bat. Kanpotik datozenak herri hau arras polita dela konbentzitu nahi dituzue.

3.2.1.3. *Kortariko gasna* (IX. eranskina) testua eskuorri bat zen, denda batetik hartutakoa. Kasu honetan testu jarraitua berriz ere eta azalpen testua baita ere. Hala eta guztiz ere aitzinekoaren arras desberdina. Kasu honetan irudiak eta testu idatzia elkarrekin tartekatuz, eta gainera bere baitan testu etenduna

ere badu, mapa bat alegia. Hortaz, informazioa toki baliabide ezberdinak erabiliz eskuratzeko ematen du, eta gainera honekin erakutsi nahi zena, testua idatzita dagoena soilik ez dela da. Izan ere ikasleak marrazkiei garrantzia handirik ez ematen ohituta daude eta hori akats arras larria da.

Irakurri aitzinetik

1. Zeren inguruan uste duzue mintzatuko dela testu hau?
2. Ba al dakizue zein animaliaaren esnearekin egiten den gasna?
3. Ba al dakizue Baztanen egiten den bertze gaztaren baten izenik?

Irakurri bitartean

1. Kortariko gazta bat erosi nahi duzue. Zein aukera dituzue bertakoekin kontaktuan jartzeko?

2. Zein animaliaaren esnearekin egiten dute gazta ondua?

3. Ardiak, behiak... garrantzitsuak direla uste duzue gure inguruko bazterrak txukun mantentzeko? Zergatik? Arrazoitu.

4. Zergatik uste duzue kontsumitu behar ditugula Kortariko edo Baztango bertze gasna eta produktuak? Eman bi arrazoi gutxienez.

5. Erran esaldi hauek egia edo gezurra diren. Gezurra direnak zuzendu itzazue.
 - a. Baserritar hauen aitzinekoen ogibidea nekazaritza izan zen.
 - b. Kortarikogasnategia Zugarramurdiko Orabidea auzoan dago.
 - c. Hiru gazta mota behintzat egiten dituzte.
 - d. Testuko mapa horretan Baztango bi herriren izenak agertzen dira.

6. Zer esan nahi da “Salmenta zuzena” esapidearekin? Arrazoitu.

Jarduera osagarriak

1. Iruritatik nola joango zinatekete Kortarikogasnategira? Adierazi egin beharreko bidea.
2. Ateraldi batean Kortarikogasnategira joanen garelara erran dizuzte. Zein galdera egingen zenizkiokete bertako langileei?

3.2.1.4. *KIKE* (X. eranskina) narrazio testu jarraitua da. Testu idatziaren luzerari dagokionez arras motza dela dirudi, baina marrazkia eta testuaren mamia behar bezala irakurri ondotik, aberatsa. Testu hau nahiz eta motza izan arras erranguratsua zela ikusi nuen baloreak ikasleekin lantzeko eta horregatik gelan lantzeko aukeratu nuen. Irakurketa saioaren ondotik haiekin testua irakurri eta mahai ingurua osatuz ateratzen ziren ideia ezberdinak elkarbanatu eta eztabaidatzeko.

Irakurri aitzinetik

4. Irudian ikusten dituzuen haur horiek zertan ari direla uste duzue?
5. Berri bat izanen dela uste duzue? Arrazoitu.

Irakurri bitartean

1. Noiz aldatzen du Kikek bere jarrera? Azaldu

2. Nola du izena istorioa kontatzen duenak? Neska da?

3. Zergatik ez du batzuetan Kike ulertzen?

4. Erran lagun on batek izan beharreko bortz ezaugarri:

- a. _____
- b. _____
- c. _____
- d. _____
- e. _____

5. Zein aholku emanen zenioke Kikeri bere jarrera alda dezan? Edo... horrela utziko zenuke?

6. Idatz itzazue testu honetan dauden bortz aditz.

- a. _____
- b. _____
- c. _____
- d. _____
- e. _____

7. Zein da testu honetako ideia nagusia?

Jarduera osagarriak

1. Aukeratu ezazu lagun on batekin zaudenean sentitzen duzun emozio bat eta deskriba ezazu.
2. Erran ezazu zuretzat zer den lagun on bat izatea.

3.2.1.5. *Eguraldiak ere lagundu du inauteriak bikainak izan daitezen* (XI. eranskina) testua *Ttipi Ttapa*, zonaldeko aldizkaritik, ateratako berri bat da. Herri hauetako inauteriek zonaldean garrantzi eta presentzia handia izaten dute eta hortaz, inauterien garaia dela aprobetxatuz, aukera ezin hobe izan zen gaia eta aldi berean, narrazio testuen barnean kokatzen diren “berriak” lantzeko. Honetaz gain, aipatzekoa da ikastetxeko eta programa honetan parte hartu duen irakasleetako bat eta ikastetxean lanean ari den zaintzailea bertakoa dela. Hortaz gaian gehiago sakontzeko aukera ematen zuen testuak.

Irakurri aitzinetik

1. Zein izanen da testu honetako gaia?
2. Ezagutzen al duzue testu honetan agertzen den pertsonaiarik?
3. Irakurtzen al dituzue egunerokotasunean gisa honetako testuak?

Irakurri bitartean

1. Zein ekitaldirekin ematen zaie hasiera herri hauetako inauteriei?
-
-
-

2. Joaldun bakoitzak bi joare pare eramaten baditu bizkarrean, zenbat joare bildu ziren Zubietan?
-
-
-

3. Ordezka ezazue esanahi berdina duen hitz batekin ondoko esaldietan beltzez azpimarratutako hitza.

- a. Aurtiztarrak ere larunbatean **bildu** ziren elkartean.
- b. **Akitzeko**, Aurtitz eta Zubietako joaldunei beraien bidea hartzera lagundu zieten Iturengo joaldunek.
- c. Iturengo joaldunak, aurtitz eta Zubietako joaldun eta mozorroen bisitaren **esperoan** gelditzen dira.
- d. **Biharamunean**, eskolara **iritsi** zen besta

4. Gaur egun badira zenbait emakume joaldun ibiltzen direnak. Zein iritzi duzue honen inguruan? Arrazoitu.

5. Ordenatu hurrengo esaldiak, herri hauetan inauteriak ospatzen diren orden berdinarekin.

- a. Kontuen eguna.
- b. Iturendar eta Aurtiztarren bisita Zubietara.
- c. Lehendabiziko joare soinuak eta puxke biltzea.
- d. Aurtiztar eta Zubietarren bisita Iturenera.
- e. Hurren joare soinuekin puxke biltzea.

6. Zein aldizkaritatik atera da testu hau? Zein egunetan publikatu zen?

Jarduera osagarriak

- 1. Zer gehiago jakin nahiko zenukete inauteri hauei buruz?
- 2. Nola ospatzen dituzue inauteriak zuen herrietan?

3.2.1.6. “*lagun bat (Haur kanta)*” (XII. eranskina) testu poetikoa landu zen bertze saio batean. Kirmen Uribe idazlearen poesia da eta kasu honetan ere testu

jarraitua da. Haurrak orokorrean ez daude ohituta honelako testuak irakurtzera, eta programa honen helburuetako bat testuei dagokienez behintzat ahalik eta aniztasun gehiena eskaintzea da. Gainera testu honek lantzen duen gaia arras aberatsa da, lotsa anizetan sentitzen dugun emozioa baita eta sarritan gauzak egiterakoan oztopo handia izan ohi da.

Irakurri aitzinetik

1. Zein testu mota da aitzinean duzuen hau? Nola dakizue?
2. Izenburuari erreparatu, zeren inguruan solastuko da testua?

Irakurri bitartean

1. Zein bertze izenburu jarriko zenukete testu honi?

2. Zein da Kirmen Uribek gorroto duen lagun hori? Nola definituko zenukete?

3. Zuek noizbait lotsa sentitu duzue? Hala bada, zein egoeretan?

4. Zuen ustez, zer sentitu du idazleak testu hau idazterakoan?

5. Asma ezazue bertze estrofa bat 4. eta 5. estrofen artean atxikitzeko. Bertze estrofen egitura errespetatu beharko duzue.

6. Egunerokotasunean lotsa beharrezkoa dela uste duzue? Ona da lotsa sentitzea? Arrazoitu erantzuna

7. Ze sentitu duzue testu hau irakurri duzuenean? Arrazoitu

Jarduera osagarriak

1. Asma ezazue olerki bat. Horretarako aukeratu ezazue ematen zaizkizuen gaietako bat.

3.2.1.7. *Giro Eguzkitsua* (XIII. eranskina) Testua Berria egunkaritik ateratako eguraldi mapa da, testu idatzian ere informazioa eskaintzen duelarik. Kasu honetan mapari dagokionez erran daiteke testu etena dela, baina testu jarraitua ere badu. Kasu honetan hurrengo egunetako eguraldia zein zen aipatzen zuenez, deskribapen testua dela erran daiteke. Testu honen erabilgarritasuna benetan aipagarria dela deritzot, haurrak ez baitaude gisa honetako testuak esku artean erabiltzera ohituta, eta arras garrantzitsua da hauek behar bezala interpretatzen jakitea.

Irakurri aitzinetik

1. Beha ezazue ondoko testu hau. Zein testu mota dela erranen zenukete? Nondik uste duzue atera dugula?

Irakurri bitartean

1. Nongo eguraldiaren informazioa eskaintzen digu ondoko mapak? Horrelako testuak erabiltzea erabilgarria izan daitekeela uste duzue? Zergatik?

2. Ohartu zaitetze mapa horretan agertzen diren tenperaturetan. Hori ikusita, jakingo al zenukete zein urtarotakoa den erraten?

3. Mapako sinbologian oinarrituz, adieraz ezazue A eta B puntuetako eguraldia zein izanen den:

<u>A</u>	<u>B</u>

4. Orokorrean ze joera dago hurrengo egunetarako?

5. Zein da testu honen izenburua? Zein bertze izenburu jarriko zenioke?

6. Nola laburbilduko zenukete egun horretako eguraldia 3 edo 4 hitz erabiliz?

7. Madrilgo lagun batek bihar Euskal Herrira etorriko dela erran dizu. Zein arropa ekartzeko aholkatuko zenioke?
-
-
-

8. Ezagutzen al duzue transplantea egin izan dioten pertsonarik?
-
-
-

Jarduera osagarriak

1. Bilatu itzazue zuen zonaldeko klimaren ezaugarriak eta deskribatu ezazue nolako klima dagoen.

3.2.1.8. *Keinu ttikiak eginez, aldaketa handiak gerta litezke munduan* (XIV. eranskina) testua berriz ere *Ttapi Ttapa* aldizkaritik ateratako testu jarraitua da, baina kasu honetan elkarrizketa bat da. Kamerunen boluntario lanak egiten ibili den neska bati elkarrizketa egiten zaio eta ideia erranguratsuak ateratzen dira egindako lan horren inguruan. Gizarte honetan gisa honetako lanak egitera jendea ez dago oso ohitua eta hortaz adin honetako hurrekin munduko bertze toki batzuetako errealitateak ezagutu eta bertan egondakoen bizipenak elkarbanatzeak emaitza positiboak ekar ditzake.

Irakurri aitzinetik:

1. Zein testu mota da? Arrazoitu ongi erantzuna.
2. Argazkiari erreparatu, zein tokiri buruz mintzatuko zaigu testua?

Irakurri bitartean

1. Nor dugu Leire Elzaurdia Mendiberri? Non eta noiz sortu zen? Eta zein da elkarrizketatzailea?

2. Kamerunen zein izan zen Leire eta bere taldekoen egitekoa?

3. Zein eritasunekin topatu ziren Kamerunen? Zer egin dute eritasunen gaiarekin?

4. Konpara itzazu Kamerungo eta hemengo errealitatea.

Euska Herria	Kamerun

5. Zer da oftamologo bat? Bila ezazue definizioa eta idatzi.

6. Eskolara oinez joaten zen mutikoak egunero 3 ordu egin behar bazituen, urtean zenbat ordu egingen ditu? Eta zenbat Km?

7. Zer izan da esperientzia honetan bizi izan zuten alderdi gogorra? Eta hori nola konpondu zuten?

8. Testu hau irakurri ondotik pertsona bat Kamerunera bolondres lanak egitera joateko animatu beharko bazenute, zer erranen zenioke?
-
-
-

Jarduera osagarria

1. Presta itzazue zonaldeko famatu bati eginen zenizkioten galdera batzuk. Elkarrizketaren formatua zaindu ezazue.

3.2.1.9. *Huntza taldea* (XV. eranskina) gaur egun oihartzun handia izaten ari den taldea da, haren bi abesti direla eta batez ere *Aldapan gora* eta *Iñundik Iñoare*. Gela honetan presentzia handia duten bi abesti dira eta haurrei taldea anitz gustatzen zaienez, aukera polita izan zen taldera gehiago hurbiltzeko. Honetaz landa, wikipedia erabiltzen ikasteko ere aprobetxatzeko aukera izan zen eta hortaz testu hau hartu zen.

Irakurri aitzinetik:

1. Zein euskarritatik atera da informazio hau? Paperezkotik edo euskarri digitaletik?
2. Zergatik uste duzue informazioa atal ezberdinetan banatua dagoela?

Irakurri bitartean:

1. Noiz eta nola sortu zen Huntza musika taldea?
-
-
-

2. "Huntza" hitzak musika taldeaz gain badu bertze erranahi bat. Zein da hori?
-
-
-

3. Bete ezazue ondoko taula hau:

HUNTZA TALDEA			
<i>Taldekidearen izen abizenak</i>	<i>Jaioterrria</i>	<i>Probintzia</i>	<i>Jotzen duten istrumentua</i>

4. Huntza taldearen zein kantu da zuen gustukoena? Zergatik gustatzen zaizue kantu hori?

5. Bilatu itzazue hitz hauen sinonimoak testu honetan:

- Karriketan:
- Hasmenta:
- Jauzi:
- Ilunabarretako:
- Zabaldu:
- Jaiotakoa:

6. Zein musika mota jotzen du musika talde honek?

7. Zenbat disko kaleratu ditu Huntza taldeak? Zein disko izan zen lehenengoa eta zein azkenekoa?

8. Egin ezazue eman zaizuen informazioarekin laburpen bat.

Jarduera osagarria:

1. Egin ezazue zuen biografia pertsonala talde honen biografiaren egituran oinarritzen zaretelarik.

3.2.1.10. *Uretan disolbatzeko gaitasuna* (XVI. eranskina) instrukzio testu bat da non natur zientzietako praktika bat egiteko beharrezkoak diren argibideak ematen diren. Kasu honetan *Eureka* zientzia museoaren web orritik ateratako testu jarraitua da eta bertan uraren disolbagarritasun propietatearen inguruan mintzatzen da. Natur zientzietan adibidez testu hauek erabiltzea komenigarria da. Alde batetik irakurtzeko gaitasuna lantzen delako dudarik gabe eta bertzetik haurrentako biziki motibagarria delako gisa honetako praktikak egitea. Lana horrela eginez, ikasleek anitzez hobekiago ikasten dituzte irakasgai ezberdinetako edukiak.

Irakurri aitzinetik

1. Zein testu mota dela erranen zenukete?
2. Egon al zarete noizbait museo batean? Zeinetan?
3. Bizitzan zertarako behar da ura? Eman hiru adibide zeinetan ura beharrezkoa den.

Irakurri bitartean

1. Zein material behar da esperimentu hau egiteko?

2. Zer da esperimendu honetan neurtzen dena?

3. Erran itzazue hiru produktu uretan disolbagarriak direnak.

4. Ura 130°C-tan badago, azukrea errazago disolbatuko da 20°C-tan dagoen uretan baino? Eta, ura -10°C-tan baldin badago, urtuko da azukrea bertan?

5. 2 probeta ditugu eta bakoitzean 100ml ur isuri dugu. Ondotik, ur hotzeko basora 50ml gehiago isuri dira. Guztira zenbat zentilitro ur erabili dira?

6. Zeri buruzkoa da esperimendu hau?

7. Bilatu itzazue testuan ondoko hitz hauen sinonimoak:

Beira:

Edalontzi:

Isuriko:

Erabat:

Pasatzen:

Aitzinera:

8. Zer erran nahi du, disoluzio bat “asea” dagoela erraten denean?

9. Egin ezazu esperimentuaren prozesuaren laburpen bat.

Jarduera osagarriak

1. Pentsatu ezazue aitzinetik jada egin izan duzuen esperimentu bat. Bertze ikastetxe bateko bortzgarren mailako ikasle batzuei kontatu behar diezue. Ahalik eta hobekien azaldu iezaiezue esperimentua. Kontuan izan behar duzuen materiala, prozesua, nola egin...

3.2.1.11. *Baztandarren Biltzarra* (XVII. eranskina) argudio testua da, non elkarreak jendea animatzen duen Baztandarren Biltzarra elkartean sartzera. Testu jarraitua da eta irudirik gabea, baina baliabide literarioei erreparatuz, biziki aberatsa. Haurrentzat ere oso motibagarri eta erranguratsua den testua da, izan ere besta honek edo elkarre honek hobeki erranda, presentzia handia du urtean zehar egiten diren ekitaldi ezberdinetan. Hortaz aukera ematen du haurrak horretara hurbiltzeko.

Irakurri aitzinetik:

1. Zenbat paragrafo daude testu honetan?
2. Zein da testu honen izenburua?
3. Baztandarren Biltzarra ikustean zer datorkizue burura?

Irakurri bitartean

1. Zergatik agertzen dira hitz batzuk komatxoan artean?

2. “Baztandarren Biltzarra orgara” igotzeko gonbidapena egiten denean, zein orgaz ari da?

3. Zein pertsonetan dago idatzia testu hau?

4. Zer da Baztandarren Biltzarra? Aukeratu ondoko aukeren artean zuzenak diren erantzunak:

- a. Euskararen alde lan egiten duen elkarte bat.
- b. Baztandar guztiak biltzen diren besta bat.
- c. Santiago aitzineko igandean Erratzun ospatzen den besta bat.
- d. Euskara ardatz duelarik, urtean zehar ekitaldi ezberdinak eta udan Baztandarren Biltzarra eguna antolatzen duen elkarte bat.

5. Zer erran nahi du “makur” hitzak?

6. Idazleak “honen gibelean” lan handia dagoela aipatu du. Zertaz ari da?

7. Baztandarren Biltzarraren antolakuntza lan erreza dela uste duzue? Zergatik?

8. Zuen ustez zer da antolatzaileek lan hori egiten jarraitzea animatzen dituenena? Uste duzue diruagatik egiten dutela?
-
-
-

Jarduera osagarria

1. Iruñeko lagun bat duzue eta Baztandarren Biltzarra egunean ez da sekula izan. Nola azalduko zeniokeste besta hau nolakoa den?

3.2.1.12. *Euskal sukaldaritzan trebatzen* (XVIII. eranskina) testua *Diario de Noticias* egunkaritik ateratako berria da. Narrazio testua da eta bertan Lakuntzako herri eskola batean egindako proiektua kontatzen da. Testuan testu idatziaz gain, irudia ere agertzen da eta bertan hainbat haur ageri dira errezeta prestatzen. Testu hau horrelako eskola txiki batean aplikatzeko arraz egokia zen. Alde batetik haurrak berriak irakurtzen hasten direlako (narrazio testuen barnean ipuinak edo eleberriak irakurtzera bakarrik ohituak daudelako) eta bertzetik, Lakuntzako herri eskola Irurritako eskolaren antzekoa delako eta haurrak errealitate horrekin identifikatzen direlako.

Irakurri aitzinetik

- 1- Nondik ateratako testua dela uste duzue?
- 2- Zertan ari dira argazkiko haur horiek? Eskolan daude?
- 3- Nongo eskola izan daiteke? Bartzelonakoa adibidez?

Irakurri bitartean

- 1- Zein eskoletako haurrak dira argazki honetan ageri direnak?
-
-
-

- 2- Zertarako izan zen baliogarria proiektu hau?

3- Zuen ustez eskolan horrelako proiektuak egitea interesgarria da? Gustatuko litzaizueke horrelako zerbait eskolan egitea? Zergatik?

4- Ordenatu ondoko ekintzak orden kronologikoaren arabera:

- a. Ikasle eta irakasleak elkartu ziren pintxo ezberdinak dastatzeko.
- b. Euskal produktu bat erabiliz pintxo bat prestatzea taldeka
- c. Euskal sukaldari ospetsu bat hautatzea.
- d. Informazio garrantzitsuena horma irudi batean kokatzea
- e. Sukaldariari buruz informazioa bilatzea.

5- Ezagutzen al duzue euskal sukaldari ospetsurik?

6- Erran itzazue testu honetan agertzen diren bortz aditz.

7- “Michelin izarrak” aipatzerakoan zertaz ari da?

8- Erran itzazue hitz hauen sinonimoak zein diren testuan bilatuz.

Xede:

Pasatzen:

Probatzeko:

Intentzioz:

Gastatzerakoan:

Inportanteena:

9- Asma itzazue esaldiak ondoko hitzak erabiliz:

- a. **(Ondarea)** _____

- b. **(Motibazioa)** _____

- c. **(Produktuak)** _____

- d. **(Igaro)** _____

Irakurri ondotik

- 1- Zein proiektu egitea gustatuko litzaizueke? Baztango zer gauza gustatuko litzaizueke lantzea? Deskribatu ezazue

3.2.1.13. *Izena emateko formularioa: Aralarko Udako kanpalekua (XIX. eranskina)*
testua kanpaleku batean parte hartzeko izen emateko orria da. Haurrak ez daude ohituak gisa honetako testuak irakurtzera eta hauek betetzera. Nire iritziz arras garrantzitsua da horrelako orriak behar bezala betetzen ikastea, eta modu honetan hauen autonomia garatzen da. Testu hau aukeratu da, alde batetik adin honetarako arras egokia delako eta bertetik haurrentzat kanpaldiak arras hurbileko gauzak direlako. Egia erran arras emaitza ona izan zuen testu honek.

Irakurri aitzinetik

1. Zer uste duzue dela aitzinean duzuen testua?
2. Noizbait bete al duzue izena emateko formulariorik? Zertarako?

Irakurri bitartean

1. Nork bete du izena emateko orri hau?

2. Zertarako uste duzue balio duela aitzineko izen emateko orri horrek?

- a. Udako kanpaldi batera joateko
- b. Udan lanean aritzeko
- c. Udako festetan jokoetan parte hartzeko
- d. Ikastetxeko txango batera joateko urtarrilean

3. Erran ondoko esaldiak egia edo gezurra diren. Gezurra direnak zuzendu itzazue:

a. Eskabide orri hau 2000/03/20an bete zuen Paulok. _____

b. Mirenek alergia dio arrautzari. _____

c. Paulok arrautzarik gabeko dieta behar du. _____

d. Aitzinetik, bertze kanpaldi batzuetan egondakoa da. _____

e. Ez du tratamendu medikorik jarraitzen. _____

4. Zertarako uste duzue direla beharrezkoak datu pertsonalak?

5. Zer erran nahi du "ziurtatu" hitzak?

6. Zein datu falta dela uste duzue?

7. Orokorrean, kanpalekuan arazo anitz izan ditzakeela uste duzue? Arrazoitu erantzuna

8. Arrautzarik gabeko dieta balin badu, zein borts produktu ezingo ditu jan?

Irakurri ondotik

1. Asmatu ezazue ipuin bat Aralarko kanpalekuan gertatu zaizuen kontakuz.

3.2.1.14. *Eguzkiak ortze urdinean nabigatzen* (XX. eranskina) testu poetikoa programaren amaiera aldera landu den testua izan da. Testu hau testu jarraitua da eta zailtasun handienetako izan dituztena segur aski. Ulertzea kosta zitzaien baliabide literario ugari erabiltzen baititu. Hala ere arras erranguratsua da, izan ere testu ezberdinak daudela erakustea baita xedeetako bat eta horrelako testuak egunerokotasunean lasai aski topatzeko aukera izanen dute.

Irakurri aitzinetik

1. Testuaren formari erreparatuz, zein testu mota dela erranen zenuke? Argudiatu.
2. Zein elikagai mota da argazkian ageri den hori? Zein zuhaitzetatik eratortzen da?

Irakurri bitartean

1. Adieraz itzazue testu honetan agertzen diren pertsonaiak eta erran ezazue bakoitzari buruz dakizuena.

2. "Fruitu doratua" aipatzen duenak zein fruituz ari da?

3. Egileak ondoko termino hauek definitzen ditu, adieraz ezazue termino bakoitza nola definitzen duen berak.

Eguzkia: _____

Goroldioa: _____

Sagarrak: _____

4. Zuendako testu hau poetikoa da? Zergatik?

5. Testuan agertzen den marrazkia lagungarria zaizue testua behar bezala ulertzeko?

6. Azaldu ezazue "erromes" hitzaren esanahia.

7. Itsuak ezin badu ikusi, nola daki sagarrondo baten azpian daudela eta sagar onduak daudela bertan?

Jarduera osagarriak:

1. Emaiozue bukaera bat aitzinean duzuen testu honi.

3.2.1.15. *Posta elektronikoa (XXI. eranskina)* Testu hau testu jarraitua da eta Caño eta Luna autoreek egiten duten sailkapenaren arabera, transakzio testua. Kasu honetan euskarri digitaleko testua aukeratu dut, gaur egun eskutitzak idatzi beharrean gisa honetako testuak bidaltzen direlako. Gainera haien egunerokotasunean ez daude ohituak horrelako testuak irakurtzera, eta arras garrantzitsua da horrelako bat egitea tokatzen zaienean hainbat xehetasunez jabetzea (bete beharreko datuak...). Gainera haien adin berdintsukoak direnen korreoa da.

Irakurri aitzinetik

1. Ze testu mota izanen dela uste duzue?
2. Non aurkituko zenukete horrelako testu bat?
3. Noizbait idatzi al duzue mezu elektronikorik?

Irakurri bitartean

1. Defini itzazue hitz hauek eta idatz itzazue testuan agertzen diren adibideak.

a) Hartzailea: _____

b) Igorlea: _____

c) Gaia: _____

2. Nortzuk joanen dira urtebetetze besta horretara?

3. "kar-kar" esapidearekin zer adierazi nahi da?

4. "Musu handi bat" letra motaz eta kolorez aldatu nahi badu, zein botoiri eman beharko dio?

5. Argazkiko zein izanen da testu honen igorlea?

6. Erran esaldi hauek zuzenak edo okerrak diren. Okerrak direnak zuzendu itzazue.

- a. Karmelo ziur dago bere aitari ez zaiola tarta erreko. _____
- b. Testuan agertzen den argazkia aitzineko urteko urtebetetze festako argazkia da. _____
- c. Bere lehengusinarekin izena Maider da. _____
- d. Amak izeba Montseri 2009an utzi zion liburu hura. _____
- e. Testua idazten duenak arras ongi atera zuen matematikako azterketan. _____

7. Osatu baldintzazko esaldi hauek:

- a. Urtebetetze bestara etortzen bazara, _____
- b. Argazkikoa nor naizen _____, bi tarta zati zuretzat!

Jarduera osagarriak

1. Zuen urtebetetzea datorren astean izanen da. Idatzi iezaezue gonbidapen bat posta elektronikoz zuen lagunei gauza ezberdinak aipatuz (eguna, ordua, zer egingen duzuen...)

3.2.1.16. *Taloen errezeta:* (XXII. eranskina) Testu hau instrukzio testua eta testu jarraitua da. Errezetak haurrendako interesgarriak izan ohi dira eta kasu honetan gainera zonaldean oso gustukoak diren taloak nola egin azaltzen da. Haurrendako hurbileko jakia izanik eta hauen arras gustukoa zela ikusirik, gelan lantzeko biziki aproposa zela ikusi nuen. Gainera egun batean taloak egiteko aukera ere izan genuen, haurrak motiba zitezten.

Irakurri aitzinetik:

9. Ze testu mota da aurkeztu zaizuen hau? Non bilatuko zenukete aitzinean duzuen testu hau aurkitzeko?

Irakurri bitartean:

1. Zein da osagai nagusia errezeta honetan?

2. Bildu itzazue beheko taula honetan taloak prestatzeko behar diren osagaiak eta kopuruak.

Osagaia	Kopuruak

3. Zuek gai ikusten duzue zuen burua errezeta hau zuek bakarrik prestatzeko? Arrazoitu erantzuna.

4. Artoa zein kontinentetatik ekarri zen bere garaian?

5. Pertsona bat dietan dago argaldu nahi duelako. Zuk gomendatuko al zenioke txistorraz edo txokolatez betetako talo bat? Arrazoitu.

6. Bilatu itzazu testuan borts aditz eta idatz itzazu zerrenda batean. Ondotik sortu esaldi bana.

Jarduera osagarriak:

1. Euskal kulturaren esku soinuaz mintzatzen ari garenean, zein instrumentuz ari gara?

2. Arto irinarekin taloak egiten dira. Nola dute izena ogi irinarekin egiten diren opilek?

3. Idatzi ezazue bertze errezeta bat.

3.2.1.17. *Emaitza gehiago egitea, premiazko beharra* (XXIII. eranskina) testuan odol emaileen inguruan mintzatzen da. Berria da eta testu jarraitua, non honen helburua irakurleetara iritsi eta hauei dagoen beharraren berri ematea da. Ikusirik gaur egun osasun arazo anitz transplanterekin konpontzen direla eta odola emateak ere zenbat bizitza salbatzen dituen, arras garrantzitsua da gaur egungo haurrak gaien murgiltzea eta honen inguruan kontzientzia hartzea. Hortaz, aukera ona izan zen testu hau lantzea, errealitate baten berri ematen baitu.

Irakurri aitzinetik:

1. Zeren inguruan uste duzue mintzatzen dela honako testu hau?

Irakurri bitartean

1. Zer erranen zenioke lagun bati organo emaile izateko? Saia zaituz konbentzitzen argudio onak erabiliz.
-
-
-

2. Erran egia edo gezurra diren ondoko esaldi hauek:

- Nafarroan, aurreko urtean 271 pertsona hil ziren.
- Kasu askotan gaixotasun larria duten pertsonak transplantea behar izaten dute.
- Gaur egun motibo anitz ditugu gure organoan donatzeko.

3. Ados al zaude organoak ematearekin?

4. Zergatik da premiazkoa emaitza gehiago egitea?

5. Lehenengo paragrafoan, agertzen diren datuak “**ezinbesteko zutabe**” direla erraten da. Ze erran nahi du “ezinbesteko zutabe” horrekin?

6. Zuen inguruan ezagutzen al duzue transplantea egin izan dioten pertsonarik?

Jarduera osagarriak

1. Zergatik uste duzue garrantzitsua izan daitekeela gure organoak edo odola ematea? Eman arrazoi batzuk.

3.2.1.18. *Azeri azkarra* (XXIV. eranskina) adin honetako egokia den ipuina da. Kasu honetan laburra ematen du lehen begiradan, baina sakonki aztertuz gero, honen mamia biziki erranguratsua da. Askotan joera izaten da aurre egiterakoan indarra erakusteko eta hau izaten da arazo anitzen konponbidetzat erabiltzen den baliabidea. Testu hau aldiz adibide aski garbia da indarraren gainean jakituria dagoela erakusteko. Hortaz, gisa honetako mezuak transmititzen dituzten testuak lantzeak emaitza positiboak ekartzen ditu haurrengan, zenbaitetan identifikatuak sentitzen baitira.

Irakurri aitzinetik:

1. Izenburuari erreparatuz, nolakoa izanen da azeria? Lodia, argia... Arrazoitu.
2. Non bizi dira berez azeriak?

Irakurri bitartean:

1. Zertarako uste duzue idatzi dela testu hau?

2. Tigreak zer egin zion azeriari hura izutzeko asmoz?

3. Zein bertze izenburu jarriko zenioke testu honi?

4. Nondik uste duzue atera dugula testu hau?

5. Erran egia edo gezurra diren ondoko baieztapen hauek. Okerrak direnak zuzendu itzazue.

- a) Oihaneko animalia guztiak tigrearen aitzinean jartzen saiatzen ziren.
- b) Azeriak tigreak aurre egin zion.
- c) Azeria tigrearen atzetik abiatu zen herrirantz.
- d) Herritarrek azeria ikusi zutenean alde egin zuten izaturik.

6. Aukeratu galdera bakoitzean erantzun zuzenak:

- a) Tigrea barrezka hasi zen:
 - Oihan guztia izutzeko asmoz
 - Azeriak kilimak egin zizkiolako.
 - Bera baino txikiagoko animalia batek aurre egin ziolako
- b) Tigrea Burumakur joan zen. Beste era batera erranda?
 - Pozik joan zen.

- Triste joan zen.
 - Burua okertuta joan zen.
- c) "Erdur" bertze gisa batean...
- Heldu
 - Etorri
 - Zoaz

Jarduera osagarriak:

1. Asmatu bertze bukaera bat ipuin honentzat.

3.2.1.19. *Pernando Amezketarra* (XXV. eranskina) testua, bertsolari honen biografia da, wikipedia entziklopedia askean aurkitutakoa. Kasu honetan Pertsona honen deskribapena egiten da testu jarraitu baten bidez. Eskolan bertsolaritzak duen presentzia kontuan izanik eta ikasle hauen irakasleetako bat Amezketakoa denez, bi alderdiak uztartu eta gaia lantzeko aukera eman zuen. Gisa honetan, hurrei Pernandoren inguruko zalantzak sortuz gero, bertako baten ahotik zalantza horiek argitzeko aukera izanen zuten.

Irakurri aitzinetik:

1. Ba al dakizue nor zen Fernando Amezketarra? Nongoa zen?
2. Nondik ateratako testua dela uste duzue?

Irakurri bitartean

1. Noiz jaio eta hil zen Fernando Amezketarra?

2. Zergatik izan zen arras ezaguna gizon hau? Noizbait entzuna al zenuten gizon honetaz hitz egiten?

3. Zein plazatan ibili izan da adibidez Fernando?

4. Bete ezazue ondoko taula eskatzen zaizkizuen datuak behar bezala jarritz.

Jaiotza data	Probintzia	Lanbideak	Bere ezaugarriak

5. Nolatan da gaur egun ospetsua Fernando Amezketarra?

6. Zergatik izan da pertsonaia historikoa?

7. Nork irabazi zuen Txabalategi eta Zabalaren arteko apustua?

8. Orain dela zenbat urte ezkondu zen? Eta gaur zenbat urte izanen zituen Pernandok?

9. Zer nolako bizitza izan zuen gizon honek?

Jarduera osagarria

2. Idatz ezazue zuen irakasle baten biografia. Horretarako galdetu behar dituzue datuak.

3.3. ACL probetan lortutako emaitzak

Aitzinetik aipatu den bezala, Ikasleen irakurriaren ulermen maila ebaluatzeko bi proba pasatu zaizkie programak iraun duen denboran. Lehenengoa bikoteka irakurtzen programarekin hasi aitzinetik (otsailaren 3an) pasatu zen eta bertzea berriz programa amaitu ondotik (maiatzaren 16an).

3.3.1. Programa egin aitzinetik egindako ACL probaren emaitzak

<i>Laugarren mailako ikasleak</i>	
<i>IKASLEA</i>	<i>EMAITZA</i>
1. Ikaslea	19/25
2. Ikaslea	6/25
3. Ikaslea	18/25
4. Ikaslea	14/25
5. Ikaslea	19/25
6. Ikaslea	7/25

<i>Bortzgarren mailako ikasleak</i>	
<i>IKASLEA</i>	<i>EMAITZA</i>
1. Ikaslea	17/28
2. Ikaslea	17/28
3. Ikaslea	11/28
4. Ikaslea	20/28
5. Ikaslea	18/28
6. Ikaslea	22/28
7. Ikaslea	-

3.3.2. Programa egin ondotik egindako ACL probaren emaitzak

Laugarren mailako ikasleak

IKASLEA	EMAITZA
1. Ikaslea	20/25
2. Ikaslea	15/25
3. Ikaslea	20/25
4. Ikaslea	18/25
5. Ikaslea	19/25
6. Ikaslea	14/25

Bortzgarren mailako ikasleak

IKASLEA	EMAITZA
1. Ikaslea	19/28
2. Ikaslea	17/28
3. Ikaslea	16/28
4. Ikaslea	24/28
5. Ikaslea	23/28
6. Ikaslea	24/28
7. Ikaslea	-

Conclusiones y cuestiones abiertas

Uno de los objetivos marcados al principio de este trabajo ha sido remarcar la importancia de la lectura, y tras el estudio realizado, ha quedado reflejada su importancia. Para avanzar en la evolución personal y en el día a día de una persona, es imprescindible desarrollar adecuadamente la competencia lectora, ya que continuamente recibimos información procedente de los textos y, en consecuencia, esta información es necesaria para poder comprenderlos correctamente.

La escuela, y sobre todo la etapa de educación primaria, tienen una función muy importante en el desarrollo de esta competencia. Al principio de esta etapa los alumnos comienzan a aprender a leer, aunque ya en educación infantil han dado los primeros pasos. Aun así, en educación primaria, es necesario dedicarle mucho tiempo al desarrollo de esta competencia y para ello, es importante trabajar la lectura en cada una de las áreas curriculares.

Para que esto sea posible, es fundamental tener realizado adecuadamente el PLEC (Plan de Lectura y Escritura del Centro). De este modo, la responsabilidad de trabajar la lectura no debe recaer solo sobre el tutor o tutora, sino sobre todo el profesorado del grupo. Además, tener realizado el PLEC facilitará la gestión de los espacios y de los recursos del centro escolar a la hora de trabajar la lectura.

Otro de los objetivos marcados al principio de este trabajo ha sido remarcar la importancia y los aspectos positivos del aprendizaje cooperativo. Después de haber hecho todo este trabajo, ha quedado bastante claro que estas metodologías inclusivas tienen más beneficios que las metodologías tradicionales o pasivas. Cabe destacar que en los centros en los que se ha puesto en marcha el programa “Leemos en parejas” (entre ellos el centro donde yo he hecho la parte práctica de este trabajo), se han logrado muy buenos resultados tanto en la mejora de la comprensión lectora como en la evolución personal. Varios factores son responsables de los resultados que se alcanzan. Por un lado, porque se impulsa la participación del alumnado. Por otro lado, porque estas metodologías impulsan la inclusión; por último, porque estas metodologías incluyen a todo el alumnado, sin segregar a nadie.

Es necesario destacar los resultados positivos que esta dinámica ha tenido en el alumnado, tanto académicamente como motivacionalmente. Después de haber hecho una observación sistemática, se ha podido ver que han disfrutado a la hora de leer los distintos textos.

La ayuda recibida por parte del profesorado ha sido imprescindible para llevar esta propuesta a la práctica, pero los resultados obtenidos no serían posibles sin la magnífica y excelente participación de los trece estudiantes ya citados anteriormente. Los tutores y tutoras han trabajado muy bien todos los textos que se les han dado, ya que siempre leían los textos, habían apuntado las dudas que tenían y además realizaban todos los ejercicios antes de venir a clase. De este modo se ha podido ver que ha sido un trabajo que les ha motivado y que se han sentido familiarizados con todos los textos y con el proyecto en general. Los alumnos tutorados y tutoradas también han trabajado responsablemente y con muchísimo interés.

Por otro lado, la evolución de los niños y las características de cada etapa para poder elegir los textos que sean adecuados es imprescindible.

Por último, me gustaría decir que, aunque la parte central de mi proyecto haya sido relacionado con el programa “Leemos en parejas”, creo que sería muy interesante seguir investigando sobre otras metodologías cooperativas relacionadas con la competencia lectora, así como la lectura dialógica, lectura dirigida en los grupos interactivos, lectura digital... Creo que son unas metodologías que, así como el programa “Leemos en parejas”, podrían dar muy buenos resultados en la mejora de la competencia lectora.

Bibliografia

Aubert, A. (2008). *Aprendizaje dialógico en la sociedad de información*. Barcelona: Hipatia.

Caño, A., Luna, F. (2011). *PISA: Comprensión Lectora. I. Marco y análisis de los ítems*. Bilbao: Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa.

Duke, Nell K., et all. (2011). Essential Elements of Fostering and Teaching Reading Comprehension. *What research has to say about Reading instruction* 4 51-93

Durán, D. (coord) (2007). *Leemos en pareja, un programa de tutoría entre iguales, con alumnos y familias, para la mejora de la competencia lectora*. Barcelona: Instituto de Ciencias de la Educación de la Unibersitat Autònoma de Barcelona.

Durán, D. (koord) (2011). *Bikoteka irakurtzen. Berdinen arteko tutoretza-programa, ikasle eta familiekin irakurtzeko gaitasuna hobetzeko*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritz (2010). *Jardunbide egokien gidaliburua. Irakasleak eta irakurketaren irakaskuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritz (2008). *Las competencias básicas en el sistema educativo de la C.A.P.V.* Vitoria-Gasteiz: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza. [eskuragarri (2017/04/22-an):

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_curricul/adjuntos/14_curriculum_competencias_300/300002c_Pub_BN_Competiciones_Basicas_c.pdf]

Giró, J., Andrés, S. (2016). Instalados en la queja: El profesorado ante la participación de las familias en las escuelas. *Revista de la asociación de sociología de la Educación*. 334-345, 9 (3)

Grabe, W., Stoller, F., (2002). *Teaching and researching reading*. New York: Routledge.

IZA, L. (2007). *Irakurketa plana Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan*. Iruña: Hezkuntza Departamentua.

IZA, L. (2015). ¿Cómo construir un plan de lectura y escritura del centro? *Didáctica de la lengua y la literatura*. Textos, 68, 18-27.

Johnson, D., Johnson, J., Holubec. E. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Barcelona: Paidós.

Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2013). *PIRLS-TIMS 2011. Estudio Internacional de Progreso en Comprensión Lectora, Matemáticas y Ciencias. Volumen I: Informe Español*. Madrid: Secretaría General Técnica.

Miquel, E., Laspalas, M. y Turmo, I. (2015). Leemos en pareja / Bikoteka irakurtzen: Un programa para la mejora de la competencia lectora, también desde las matemáticas. *Aula de secundaria*, 14, 14-18.

Mullis, I., Martin, M., (2016). PIRLS 2016. *Marco de la evaluación*. Madrid: Secretaría General técnica.

Nafarroako Gobernua (2014). Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curricula. 60/2014 Foru Dekretua. [Eskuragarri (2017/03/29an): https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/DC9FD764-A71A-4920-851D-24BB2C653B6F/0/F1410295_LehenHezkuntzako.pdf]

Nafarroako Gobernua (2007). Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako ezartzen duena. 24/2007 Foru Dekretua. [Eskuragarri (2017/03/29an): http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/IndicesPorDepartamentos/Educacion/Ensenanzas/Ensenanza+Primaria/FD_2007_024.htm]

OCDE (2016). *Marcos y pruebas de evaluación de PISA 2015 Ciencias, Matemáticas, Lectura y Competencia financiera* Madrid: Secretaría General Técnica del MECD.

Pujolas, P. (2008). El aprendizaje cooperativo como recurso y como contenido. *Aula de Innovación Educativa*. Revista aula de Innovación educativa, 37-41, (170).

Pujolas, P (2008). *Nueve ideas clave. El aprendizaje cooperativo*. Barcelona: Graó.

Sainsbury, M. (2004): *National and International Assessment of Literacy Skills. A paper presented at the European Summer School*. Paris, March 31, 2004.

Solé, I. (1992). *Estrategias de lectura*. Barcelona: Graó

Unión Europea (2006). Competencias clave para el aprendizaje permanente - Un marco europeo. Diario Oficial de la Unión Europea L 394 de 30 de diciembre de 2006. [Disponible en (10/04/2017): http://eurlex.europa.eu/LexUriServ/site/es/oj/2006/l_394/l_39420061230es00100018.pdf]

Valls, R., Soler, M, Flecha, R. (2008). Lectura dialógica: Interacción es que mejoran y aceleran la lectura. *Revista Iberoamericana de Educación*, 46, 71-87.

Varios. (2007). *Plan de Lectura, escritura e Investigadora de Centro. Orientaciones para su elaboración, desarrollo y evaluación*. Asturias: Consejería de Ciencia y Educación.

Zayas, F. (2012). *La competencia lectora según PISA*. Barcelona. Graó.


ERANSKINAK

I. Eranskina: Maila bakoitzean dauden ikasleek izaten dituzten ezaugarriak.

	Al leer textos <u>literarios</u> , los alumnos pueden:	Al leer textos <u>informativos</u> , los alumnos pueden:
NIVEL BAJO	<ul style="list-style-type: none"> Localizar y obtener detalles explícitos de información. 	<ul style="list-style-type: none"> Localizar y expresar información del texto.
NIVEL MEDIO	<ul style="list-style-type: none"> Localizar y expresar acciones, acontecimientos y sentimientos indicados explícitamente. Hacer inferencias directas sobre los rasgos, sentimientos, reacciones o motivos de los personajes principales. Interpretar razones obvias y causas, y dar explicaciones sencillas. Empezar a reconocer aspectos del lenguaje y del estilo. 	<ul style="list-style-type: none"> Utilizar subepígrafes, cuadros de texto e ilustraciones para localizar partes del texto. Expresar e integrar información de dos o tres fragmentos de texto.
NIVEL ALTO	<ul style="list-style-type: none"> Localizar y distinguir acciones y detalles significativos inmersos en el texto. Hacer inferencias para explicar las relaciones entre intenciones, actos, acontecimientos y sentimientos, con apoyo en el texto. Interpretar e integrar acontecimientos y acciones y rasgos de los personajes, tomados de distintas partes del texto. Evaluar la importancia de hechos y acciones a lo largo de todo el relato. Reconocer el uso de algunos rasgos del lenguaje como metáforas, imágenes o tono. 	<ul style="list-style-type: none"> Localizar y distinguir información relevante en un texto denso o una tabla compleja. Hacer inferencias sobre conexiones lógicas para dar explicaciones y razones. Integrar información textual y visual para interpretar las relaciones entre ideas. Evaluar el contenido y los elementos textuales para hacer una generalización.
NIVEL AVANZADO	<ul style="list-style-type: none"> Integrar ideas y datos de información a lo largo de un texto para apreciar el tema o temas generales. Interpretar los acontecimientos y las acciones de los personajes para proporcionar razones, motivos, sentimientos y rasgos de carácter con apoyo completo en el texto. 	<ul style="list-style-type: none"> Distinguir e interpretar información compleja desde distintas partes del texto, y proporcionar apoyo completo en el texto. Integrar información a lo largo de un texto para dar explicaciones, interpretar el grado de importancia, y secuenciar actividades. Evaluar los rasgos textuales y visuales para explicar su función.

Iturria: *Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2013)*

II. Eranskina: 2011n egindako azterketetan ateratako emaitzak herrialdeka.




Iturria: *Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2013)*

III. Eranskina: *Irakurketa plana prestatzeko gidoia* (Iza, 2007)

1. Sarrera
2. Helburuak
3. Metodologia
 - 3.1 Irakasleen jarduera komunak
 - 3.2 Irakurketa estrategien irakaskuntza
4. Jarduerak, zikloz ziklo
 - 4.1 Irakurketa, hizkuntza klaseetan
 - 4.2 Irakurketa, irakurketaren asteko orduan
 - 4.3 Irakurketa, gainerako arloetan
 - 4.4 Ikasleei laguntza ematea
 - 4.5 Irakurtzera animatzea
 - 4.6 Ikasleen ebaluazioa
5. Baliabideen erabilera eta horrek antolaketan dituen inplikazioak
 - 5.1 Ikasgelako liburutegia
 - 5.2 Eskolako liburutegia
 - 5.3 Ikastetxeak ez diren baliabideak: familien inplikazioa
 - 5.4 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta irakurketa
6. Irakasleen prestakuntza
7. Planaren ebaluazioa


Iturria: *Irakurketa plana Haur Hezkuntza eta Lehen hezkuntzako ikastetxeetan*
(2007)

IV. Eranskina: Irakurketa eta idazketa plana prestatzeko faseak



Fuente: *Plan de Lectura, Escritura, e Investigadora de Centro. Orientaciones para su elaboración, desarrollo y evaluación.* (2007).

V. **Eranskina:** Irakaskuntza kooperatiboaren oinarriko osagaiak.



Fuente: *El aprendizaje cooperativo en el aula.* (1999).

VI. Eranskina: Tutoreen eta tutoratuen rolak.

Izen abizenak: _____

Idatzi, arkatzez, zeintzuk diren **irakasle** on batek eduki behar dituen 5 ezaugarriak. Zuretzat zer den irakasle ona izatea ongi pentsatu. Ordena ez da garrantzitsuena, baina erran zintzotasunez. Zure ikaskideek idatzi dutena entzun ondoren aldaketak egin ditzakezu.

Irakasle on bat da...

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Idatzi, arkatzez, zeintzuk diren **ikasle** on batek eduki behar dituen 5 ezaugarriak. Zuretzat zer den ikasle ona izatea ongi pentsatu. Ordena ez da garrantzitsuena, baina erantzun zintzotasunez. Zure ikaskideek idatzi dutena entzun ondoren aldaketak egin ditzakezu.

Irakasle on bat da...

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Iturria: Bikoteka irakurtzen: Berdinen arteko tutoretza-programa, ikasle eta familiekin irakurtzeko gaitasuna hobetzeko. (2011).

VII. Eranskina: *Bikin bat in*

bikin bat in
Arrixulo ta Arditurrin

Trabajadoriak Bertso trama Toberak tailerra

Otsailak
11
Lesaka
Oartzun

Toberak tailerra
16:30ean Arditurrin
Toberak tailerra
"Soinuenea"ren eskutik

Trabajadoriak Bertso trama

Alaia Martin Amets Arzallus Andoni Egaña Eneko Fernandez

19:00etan Arrixulon
"Trabajadoriak" bertso-trama Sarrera: 5€
Saioaren ondotik Arrixulon bertan
afaltzeko aukera 12€

Sarrerak salgai:
Lesakan "Izarra" okindegia - Oartzunen "Amaxkar" tabernan

*Oharra: Arrixuloko bertso-tramara joateko eta afaldu ondoren
itzultzeko autobusa izanen da.

Afarirako bezala, autobuserako ere izena eman behar da lehenbailehen
Izarra okindegian edo jarduerak@oinez2017.ikastola.eus helbidean

Antolatzaileak:

Babesleak:


Zer irakurri, hura izan

Herri Musikaren Txokoa

Iturria: Nafarroa oinez 2017, Lesaka

VIII. Eranskina: Lekeitio

PORTU INGURUA



Aurreko ibilbideetako moduan, Gamarra enparantzatik irtengo gara, baina oraingoan Gamarra kalean zehar. Berehala, **Udaletxea** aurkituko dugu, XVIII. mendeko euskal Kontzejuaren ohiko eraikin barrokoa. Ezkerretara, **Oxangoiti jauregia** daukagu, XVII. mendean eraikia, eta bertan ate zoragarria eta egurrez landutako teilatuaren hegala nabarmentzen dira.

Puntu honetan Arranegi kalean sartzen gara, arrantzaleen auzoan. Auzueak Arranegi kalea du ardatz, sasoi bateko bai herri-jaunen bai herri xehearen bizilekua, bertara batzen direlarik auzuneko beste kaleak. Kale honetan hainbat dorre eta jauregi ageri dira, batzuek itxuragabetuak baina oraindino interesgarriak, eta inoizko denborako erakusgarri.

Azpiri kalean **Uribarría jauregi-etxea** dugu eta auzunea zati bitan banatzen zuen **harresi su-gerarazle** zaharraren aztarnak (XV. mendekoa).

Arranegi kalea Arranegiko zabalean amaitzen da, auzunearen ezaugarriak batzen dituena. Plaza honetan **Upaetxea** dugu aipa-

garria, bere armarriak zein teilatuaren hegala eta balkoi landuak direla-eta. Hementxe zegoen herrira sartzeko beste ate bat ere.

Aurrera eginez Ezpeleta kalera helduko gara. **Arrantzaleen San Pedro kofradia zaharra** dagoena, XIX. mende hasieran jasoriko estilo neoklasikoko eraikin monumentala berau. Aurrerago **San Pedoren irudia** dago, Arranegiko zabalean zegoen herrira sartzeko atetik bertora aldatua XIX. mendearen amaieran.

Ezpeleta kalean aurrera joz, talara ailegatuko gara. Bertan, harkaitzen gainean, **San Juan Talako basiliza** dago, XVIII. mendekoa. Bigarrenez eraikitako basiliza da, lehenagokoa lurra egin eta itsasora jausi baitzen. Basiliza hau San Pedro kofradiako kideen batzarlekua eta defentsarako kanoi-lekua izan zen. Handik Lekeitioko kostalde guztia ikus daiteke.

Itzultzeko, portuan zehar egin dezakegu. Ibilbide honen osagarri, Isuntza hondartzaraino joatea proposatzen da, bertatik marea beheara dagoela, San Nikolas edo Garraitz irlara joateko aukera izango duzu.

lekeitio ibilbideak

Iturria: Lekeitioko udaleko web orria

IX. Eranskina: Kortariko gasna

KORTARIKO Gasna BAZTAN
ardi gasna GASNATEGIA
behi gasna

Ardi latxaren esne gordinez egindako gasna ondua egiten dugu.

Behi gasna fresko eta onduak ere egiten ditugu.

%100ean gure baserriko animalien esne onenarekin egiten ditugu. Haiek dira gure belai eta mendiak garbi eta osasuntsu mantentzen dituztenak.

GPS coord.: N= 43.2144186 W= 1.55828805555

Kortariko gasnategia Baztan bailaran kokatua dago, Lekarozko Orabidea auzoan. Bertan familiakok lan egiten dugu, betiko modu tradizionalan, betidanik egin izan diren lanak eginez eta orain gure gasnaren bitartez kontsumitzaileengana zuzenean iritsiz.

Gure baserrian betidanik izan dira bai behi eta baita ardiak ere, hori izan baita gure aurrekoen ogibide eta baita gurea ere.

Idiazabalgo Gazta Jatorri Deitura Babestuaren arauen arabera eginiko ardi gasna: *Infernuko gasna*.

salmenta zuzena bisita gidatuak
Infernuko gasna
IDIAZABAL
BAZTAN
Orabidea auzoa 18-19 km.
Tel. (0034) 948 580 427
(0034) 638 357 517
mjantton@hotmail.com

Iturria: Kortariko gasnategia

X. Eranskina: *Kike*

Kike

Kike ez dut ulertzen.

Etxeko atarian jolasten garenean, oso majoa da. Oso ondo konpontzen gara eta komikiak pasatzen dizkit etxean irakurtzeko. Igeri egitea asko gustatzen zaio eta niri ere bai. Askotan, elkarrekin joaten gara hondartzara.

Baina han bere ikasgelako mutilen batekin topatzen bada, niregandik apartatzen da, hondarra botatzen dit eta uretan era guztietako barrabaskeriak egiten dizkit.

Eta ni, haserre, bakar bakarrik itzultzen naiz etxera.

Hurrengo egunean komiki berri bat eskaintzen dit, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

17

Iturria: *IHOLDI* (1999)

XI. Eranskina: Eguraldiak ere lagundu inauteriak bikainak izan daitezzen.

22 | HERRIZ HERRI

Ttapi-Ttapa | 679 zk.
2017.02.09

AURTITZ-ITUREN-ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → GERO ETA JENDETSUAGOAK

Eguraldiak ere lagundu du inauteriak bikainak izan daitezzen

Inauteri Astelehenean 83 joaldun bildu ziren Iturenen eta asteartean 70 Zubietan

TTIPI-TTAPA

Urtarrileko azken egunetan eta otsaileko hasieran inauterietan murgilduta ibili gara. Ortzegunarekin lehenbiziko joare soinuak entzun ziren puxka biltzean. Biharamunean eskolara iritsi zen besta, mozorroak eta joaldun tiki batzuk ibili baitziren. Larunbatean, Iturengo Herriko Etxeko sabaian eta Aurtizko elkartean afariak izan zituzten. Igandean puxkak biltzen ibili ziren.

Astelehenean, ederki gosaldu ondok prestakuntzetan hasi ziren Iturengo egun handirako: batzuk joareak jartzen, besteak karrozak, mozorroak... Iturengo joaldunak, Aurtitz eta Zubietako joaldun eta mozorroen bisitaren esperoan gelditzen dira. Hiru taldeak elkartuta aspaldiko joaldun ilararik hanciena bildu zen, 83 denera: 28 heldu eta 6 haur Iturengoak, 30

heldu eta 2 haur Zubietakoak eta 14 heldu eta 3 haur gehiago Aurtizkoak. Akitzeko, Aurtitz eta Zubietako joaldunei beraien bidea hartzera lagundu zieten Iturengo joaldunek, asteartera arte agurtuz. Baina joaldun eta mozorroen besta eguerdi-arratsaldean bukatu baldin bazen ere, juerga eta giro onak segitu zuen otordu eta musika soinuekin ordu tikiak arte.

Asteartea Ituren eta Aurtiztik Zubietara joateko eguna izaten da, bisita bueltatuz. Orduan 70 joaldun bildu ziren, Zubietako 26, Iturengo 20 eta Aurtizko 12 atera ziren, etorkizuna badela nabarmen utzi zuten 12 haur eta gaztetxorekin batera.

Asteazkena ere egun polita izaten da, arratsaldean haurrek joare soinuekin egiten baitute puxka biltzea.

Inauterietako azken txanpa otsaileko lehen asteburuan izan zen. Iturendarrek inauteriei bukaera eman zieten kontuen egunarekin. Aurtiztarrak ere larunbatean bildu ziren elkartean, Zaharren afarian, baina inauterien bukaera igande eguerdian izan zuten, kontuak ordaindu ondok, bazkariaren inguruan elkartuta.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL, ANARA MINDEGIA ETA IZASKUN ZUBIALDE

Giro ederra sortu dute aurten ere joaldunek eta mozorroek Ituren, Aurtitz eta Zubietako karriketan. Goitian, Inauteri Astelehena Iturenen eta hurrengo orrian, Asteartea Zubietan.

Iturria: Ttapi-Ttapa aldizkaria, 679. Alea

XII. Eranskina: *Lagun bat (Haur kanta)***Lagun bat
(Haur kanta)**

Bada gorroto dudan lagun bat.
Zuhaitzean gora egin nahi dudanean
“ez, ez, ez, hobeto ez,” esaten dit,
“laprast eroriko zara lurrera”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Futbolean jolastu nahi dudanean
“ez, ez, ez, hobeto ez,” esaten dit,
“ipurdi azpitik sartuko dizute gola”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Gustuko neskarengana hurreratzean
“ez, ez, ez, hobeto ez,” esaten dit,
“ez du zurekin nahiko berak”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Anaia txikiari musu eman nahi diodanean
“ez, ez, ez, hobeto ez” esaten dit
“esnatu egingo da berehala”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Lagun horren izena Lotsa da.
“Ez, ez, ez, inola ez” esaten diot gauero
“bihar ez dizut kasurik egingo bada”.

Iturria: Lyricline.org (Poesía para niños)

XIII. Eranskina: *Giro eguzkitsua*

Eguraldia
euskalmet
euskal meteorologia agentzia

GAUR 🌡️

Giro eguzkitsua

Goizean goiz, tarteka hodeitsu egongo da, eta lainoa sortuko da; baina, goizean, jaso egingo du. Horrela, gainerako orduetan, eguzkia izango da jaun eta jabe. Goizaldean hotz egingo du, eta baliteke barnealdeko zenbait lekutan izotza egitea; hala ere, eguneko tenperatura baxuenak gauerako espero dira, azken orduetan. Iparraldeko haizea ibiliko da, eta tenperatura beroenetan ez da aldaketarik izango.

JOERA

☁️ ↕️ ↘️
Osteguna 26

☁️ 🌡️ ↕️
Ostirala 27

☁️ ↕️ ↘️
Larunbata 28

ITSASOA

Iparraldeko haizea ibiliko da, 3ko indarrarekin; eguerditik aurrera, ipar-ekialdekoa nagusituko da. Itsaskirria izango da. Olatuak handituz joango dira, eta goizean metro batekoak eta gauean metro eta erdikoak izango dira.

ITSASALDIA	ORDUA	METROAK
Itsasgora	02:06	3,43
Itsasgora	08:21	1,63
Itsasbehera	14:38	3,37
Itsasgora	20:41	1,58

ISOBARA MAPA

EGUZKIA	SORTU	GORDE
	08:35	18:13

ILARGIA	EGUNA
Ilberria	Urtarrilak 28, larunbata
Ilgora	Otsailak 4, larunbata
Ilbetea	Otsailak 11, larunbata
Ilbehera	Otsailak 18, larunbata

BIHAR 🌡️

Berriro ere izotza egunsentian

Egunsentian, izotza eta lainoak izango dira barnealdean, baina baliteke kostaldeko zenbait lekutan ere izotza egitea. Gainerako orduetan, zerua oskarbi egongo da. Tenperatura maximoetan ez da aldaketarik espero. Iluntzetik aurrera, goi hodeiak iritsiko dira mendebaldetik, eta, gauean, zerua estalita geratuko da leku gehienetan. Haizeak hego-ekialdetik joko du gauean.

Iturria: Berria egunkaria

XIV. Eranskina: “Keinu ttikiak eginez, aldaketa handiak gerta litezke munduan”

Itipi-ttapa | 669 zk.
2016.09.01

ELKARRIZKETA | 3

Bertzeen ahotik entzundako bizipenak, bere azalean bizitzeko asmoz joan zen uztailean Leire Elzaurdia (Bera, 1993) Afrikara. Zerka y Lejos Garapenerako Gobernuz Kanpoko

Erakundearekin aritu da lanean Kamerunen. Pigmeo Baka etniako kideekin integrazio soziala landu du eta osasun kanpainak egin dituzte. Esperientzia zoragarria izan dela dio

«eman baino gehiago jaso dut bueltan». Lanerako indar eta gogoz bueltatu da, «hurbiletik edo urrunetik ematen den laguntza guztia behar delako».

Leire ELZAURDIA MENDIBERRI | Boluntario lanetan aritu da Kamerunen

«Keinu ttikiak eginez, aldaketa handiak gerta litezke munduan»

E. IRAOLA | BERA

Nolatan erabaki zenuen boluntario izatea?

Umetatik erakarri nau gaiak. Oroitzen naiz ttikitari irakasle batek Afrikan bizi izandako esperientziak kontatu zizkigula. Noizbait ni ere laguntzera joanen nintzela erabaki nuen orduan eta ideia hori buruan izan dut lortu dudan arte. Madrilen optika eta optometria ikasketak egin ditut eta Unibertsitateko irakasle batek eman zidan Zerka y Lejos Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundearekin egiten duen lanaren berri. Udan Kamerunera joateko boluntarioak behar zituztela jakin nuen optikako proiektu baterako eta beraiekin lanean hasi nintzen. Urte osoan prestatzen aritu ondorengo uztailean maleta egin eta Kamerunera joateko aukera izan dut.

Zein izan da zuen egitekua?

Pigmeo Baka etniako kideekin lan egin dugu, Kamerunen egoera gogorrenean bizi den etnia da. Bi egun pasa genituen Yaunde hiriburuan eta gero hegoaldera joan ginen Bengbis, Minton, Djoum eta inguruko herrietara. Integrazio soziala landu dugu beraiekin eta osasun kanpainak egin. Malaria, alkoholismoa, tuberkulosia, HIESa, desnu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kamerunen Pigmeo Baka etniako kideekin aritu da lanean hilabetez.

trizioa... izan ditugu hizpide eta eritasunak azaldu eta prebentziorako aholkuak eman dizkiegu, ezjakintasuna handia baita. Osasun azterketa horien baitan ikusmen azterketak ere egin dizkiegu bertako oftalmologo baten laguntzaz.

Zer topatuko zenuela espero zenuen eta zerekin egin duzue topo? Afrikak sorpresa handi bat eman dit. Herrialde hau tristezia eta pobrezia-rekin lotzen nuen orain arte eta errealitatea gordina bada ere, bizitza benetan, zoriontsu bizitzen dakitela erakutsi didate, amets egiten eta amestutako hori lortzeko borrokatzen ba-

IKASITAKOAK

«Esperientzia honek pertsonalki eman didana ezin da hitzez adierazi, bizi egin behar da. Hasieran, etxean motxila prestatzerakoan gauzak eta gauzak sartzen hasten zara baina gero konturatzen zara erdiak baino gehiago soberan dituzula. Hilabete honetan pertsonalki asko ikasi dut; eman baino gehiago jaso dut bueltan».

dakitela erakutsi didate. Mutiko batek kontatutako istorioa gogoan dut. La egunero 3 orduz ibiltzen zen 7 kilometrotara zegoen eskolara joateko. Distantzia ez zen oztzopoa, handitzen zenean medikua izan nahi zuelako.

Une gaziak ere biziko zenituen?

Tartean une zailak ere bizi izan ditugu bai, desnutrizio egoera larria zuten haurrak zeudela ikustean adibidez. Gogorra zen ikustea pisatu eta muga guztiak gainditzen zizutela. Inpotentzia handia sentitzen duzue orduan, amorrua, tristura... Baina momentu gazi horien ondorengo gozoak zetozen haurrekin jolaste-

an ahoan duten irribarrea ikustea, euren dantzak, alaitasuna.

Kamerungo eta hermengo errealitatea eta kultura desberdinak dira?

Beste pentsaera bat dute, goiz ezkontzen dira eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunak nabarmenak dira. Gizonek nahi adina emakumerekin ezkon litezke, emakumeak gizon bakarrekin. Normalean mutikoak dira eskolara joaten direnak eta neskek etxean gelditu behar izaten dute. Erlijioak ere indar handia du.

Zer ikasi duzu?

Esperientzia honek pertsonalki eman didana ezin da hitzez adierazi, bizi egin behar da. Hasieran, etxean motxila prestatzerakoan gauzak eta gauzak sartzen hasten zara baina gero konturatzen zara erdiak baino gehiago soberan dituzula. Hilabete honetan pertsonalki aunitz ikasi dut; eman baino gehiago jaso dut bueltan.

Itzuliko zinateke?

Esperientzia behin eta berriz errepikatuko nuke. Hilabete zoragarria izan da. Urtean zehar Madriletik lanean aritu naiz eta orain Kamerundik lanerako gogo eta indar gehiagorekin bueltatu naiz. Hurbiletik edo urrunetik ematen den laguntza guztia behar delako.

Iturria: *Ttapi-Ttapa* aldizkaria, 669. alea.

XV. Eranskina: *Huntza taldea*

Huntza taldea

Wikipedia(e)tik

*Artikulu hau musika taldeari buruzkoa da; landarea gaitzat duena beste hau da: «*Huntz*»*

Huntza taldea 2014an Bilbon sortutako musika taldea da, unibertsitate giroan elkartutako 6 gazte gipuzkoarrek osaturikoa.

Huntza	
Datuak	
Jatorria	Bilbo
Musika mota	trikiti, pop, ska
Urteak	2014 -
Taldekideak	
Josune Arakistain	
Uxue Amonariz	
Aitor Huizi	
Aitzol Eskisabel	
Inhar Eskisabel	
Peru Altube	

Eduki-taula [ezkutatu]

- 1 Historia
- 2 Taldekideak
- 3 Diskografia
- 4 Erreferentziak

Historia

[aldatu | aldatu iturburu kodea]

Huntza 2014an Bilboko kaleetan sortutako musika taldea da. Taldekideak ostegun iluntzeetako trikitipoteo eta Eguenero elektrotzarangan ezagutu eta noizean behin elkartzen hasi ziren ondo pasatzeko asmotan. Taldeari forma ematen joan ziren heinean, kantuak konposatzen hasi ziren, bakoitzak bere esperientziatik jasotakoa elkarbanatuz.

Taldearen lehen agerpena 2016ko martxoaren 8an izan zen, *Harro gaude* kantua plazaratuz. Abesti honekin oholta gainera salto egin zuten lehen emakumeak omendu zituzter ¹. Hasiera apal honek, atek ireki zizkien jarraian etorriko ziren kontzertu eta agerraldiei. ^[1]

2016ko azaroan *Aldapan gora* kantuaren bideoklipa kaleratu zuten eta arrakasta itzela izan zuen. Durangoko Azokarako *Ertzetatik* diska atera zuten eta Azokako salduenetako ² a izan zen.^[2] Diskoa Usurbilgo *Higain* estudioan grabatu zuten *Haritz Harreguyren* gidaritzapean.

Taldekideak

[aldatu | aldatu iturburu kodea]

- Josune Arakistain (Lastur, Deba, trikitilari eta ahotsa), 2013 eta 2014-ko Euskal Herriko Trikitilari Gazteen txapelketaren irabazlea.
- Uxue Amonariz Zubiondo (*Hernani*, pandero eta ahotsa)
- Aitor Huizi Izagirre (*Hernani*, biolina)
- Aitzol Eskisabel Ruiz (*Ataun*, gitarra)
- Inhar Eskisabel Ruiz (*Ataun*, baxua)
- Peru Altube Kazalis (*Arrasate*, bateria).

Iturria: Wikipedia entziklopedia askea

XVI. Eranskina: *Uretan disolbatzeko gaitasuna*

Uraren mila aurpegiak



Uretan disolbatzeko gaitasuna

2.- TEMPERATURA DESBERDINETAN NAHASTEA.
 Esperientzia hau egiteko honako hauek behar ditugu: bi probeta, ur beroa, ur hotza, 4 azukre-koskor, kristalezko bi baso eta beirazko 2 koilaratxo edo hagatxo.

Nola egin:
 Kristalezko baso bakoitzean, bi azukre-koskor jarriko ditugu. Probeta bakoitzean ur-kantitate bera neurtuko dugu; batean ur hotza botako dugu, eta bestean beroa, eta kontuz ibiliko gara ez erretzeko.
 Baso batean ur hotza botako dugu, eta bestean beroa. Ura bota ahala, baso barruko edukiari eragingo diogu.

Litekeena da ur gehiago behar izatea azukre-koskorak guztiz disolbatzeko. Hala bada, ura gehituko dugu, baina zenbat ur gehitu dugun apuntatzea ahaztu gabe, esperimentuaren amaieran ur hotzetik eta berotik zenbat erabili dugun jakiteko.

Zer gertatu da?
 Zenbat ur bero behar izan dugu bi azukre-koskorak disolbatzeko? Eta zenbat ur hotz?

Ikus dezakegunez, ur hotz gehiago behar dugu beroa baino. Horrek esan nahi du uraren temperatura zenbat eta handiagoa izan azukrea orduan eta errazago disolbatzen dela. Zergatik gertatzen da hori? Ura molekula izeneko partikula niminoez osatua dago. Ura berotzean, molekulak mugitu eta hedatu egiten dira, eta, horren ondorioz, oso erraza da azukrea partikulekin nahastea. Horregatik, ur berotan azukrea azkarrago disolbatzen da.

Ur hotzetan, aldiz, uraren molekulak elkarrengandik oso "hurkil" daude, eta azukreari zailago jartzen diote haiekin nahasteko aukera. 0º C-tan dagoen ura da muga, hau da, izotza. Oso energia gutxi dauka, eta ez du azukre batera onartzen.
 Urak azukre gehiago disolbatu ezin dezakeenean, disoluzio hori ase dagoela esaten dugu. Une horretatik aurrera, erantsitako azukrea ez da disolbatuko.

Iturria: Eureka! Zientzia museoaren web orria

XVII. Eranskina: *Baztandarren Biltzarra*

BAZTANDARREN BILTZARRA

"Karrozak eta musika", "basemitarrez beztitzen gara", "besta, besta eta besta", "baztandar guzien besta", "aitatxok karroza egiten du lagunekin"... halaxe erantzun ziguten ttikienek iaz, Baztandarren Biltzarra zer zen galdetu genienean. Eta ez zebiltzan makur, neurri batean hitz horiek ezin hobeki deskribatzen baitute Santio antzineko igendean ospatzen den besta eder hau. Eta "neurri batean" diogu, Baztandarren Biltzarra ez baita egun bakarraren antolakuntzara mugatzen; **Euskara ardatz harturik**, elkarte honek urte guzian lanean dihardu euskarazko ekintza kulturalak antolatuz eta ahal den heinean, horiek antolatzen dituzten bertze entitate kulturei laguntza emanez.


Bai, Baztandarren Biltzarra besta haundia da, han eta hemen izen haundia lortu duena, eta baztandarrek nahiz kanpotik datozen bisitariak urte guzian gogo handiz espero dutena. Baina honen gibelean, pentsatzekoa denez, lana dago, borondate hutsez eta ilusio handiz urtariletik abendu bitarte antolakuntzan diharduen baztandar talde baten lana. Gorabehera aunitzeri aurre egin behar izaten diogu eta zenbaitetan, urduritasun aunitzeko uneak bizitzen ditugu, baina zalantzarik gabe, ez genuke honetan segiko jasotakoa emandakoa baino gehiago izanen ez balitz.

Hortaz, gure taldera, Baztandarren Biltzarraren orgara, igotzeko gonbitea zabaltzen dizuegu. Nahi duzuegerako.... **ONGI ETORRIAK ZARETE!**

Iturria: Baztandarren Biltzarra web orria

XVIII. Eranskina: *Euskal sukaldaritzan trebatzen*

ETXEKO BERRIAK



Gure ikasleek tarte oso atsegina igarotzen dute sukaldeko zereginetan.

Euskal sukaldaritzan trebatzen

GURE LURRALDEKO PRODUKTUAK KONTSUMITZERAKOAN, GURE ONDAREARI JARRAIPENA EMATEN DIOGU

Testua eta argazkia **Lakuntzako Herri Eskola**

Gure lurraldeetan lanaren fruitua eta jakintza biltzen dituzten produktuak ditugu. Hauek ezagutu eta kontsumitzen jarraitzen baditugu, gure ondareari jarraipena ematea lortuko dugu. Hori dela eta produktu horiek eskolan sukaldatzen ikastea interesgarria iruditu zitzaigun.

Motibazio horrekin, duela aste batzuk, Euskal sukaldaritzan murgilduta ibili ginen eskolan.

Antolatu genituen ekintza horien helburu nagusiak Euskal produktuak zeintzuk diren ezagutzen laguntzea, bertako sukaldari ospetsuen bizitzan sakontzea eta ikasleak sukaldaritzan parte hartzea

izan ziren.

Ekintzekin hasteko, Lehen hezkuntzako irakasleek euskal sukaldari ospetsu bat aukeratu eta, mailaz-mailako ikasleak sukaldariaren informazioa bilatzez arduratu ziren. Gela bakoitzak informazio garrantzitsua (bibliografia, plater ezagunenak, *Michelin* iza-

rrak...) hormairudi batean jarri zituen, besteei ezagutzera emateko asmoz.

Ondoren, talde bakoitzak euskal produktu bat erabiliz, pintxo bat prestatzea zuen hurrengo lana. Horretarako, ikasle eta irakasleok egun batez sukaldaritzan lanetan aritu ginen.

HHko ikasle guztiak 3 taldetan nahastu eta sukaldaritzan talde desberdinei aurre egin zioten.

Bestetik, LHI.-LH6.maila bitarteko ikasleak, gelaz gela, osagaiak erosi, erabili beharreko tresneria eskuratu eta pintxo prestatzez arduratu ziren. Kide guztiak parte hartzeko, arduratsu sentitzeko, autoestimua indartzeko eta sukaldaritzan ohitura osasuntsuak barneratzeko, ekintza hau baliogarria iruditu zitzaigun.

Asteari amaiera emateko, ikasle eta irakasleok elkartu eta pintxo ezberdinak dastatzeko aukera izan genuen. ●

Iturria: Diario de Noticias egunkaria

XIX. Eranskina: *Izena emateko formularioa*

Izena emateko formularioa

Aralarko Udako Kanpalekua

Partaidearen datu pertsonalak

Abizenak eta izena *Arregi* *Etxebarria* *Paulo*
(1. abizena) (2. abizena) (izena)

Jaiotza data *2000/03/20* Adina *10 urte*

Helbidea *Zabala kalea, 10- 3. esk.* P.K. *67008*

Herria *Artola* Telefono zk. *968 282 859*

Ikastetxea *Bilintx*

Datu medikoak

Ba al dio alergiarik medikamenturen bati? Zeini? *Ez.*

Ba al dio alergiarik jakiren bati edo beste zerbaiti? Zeri? *Bai. Arrautzari.*

Ba al du minusbaliotasun, asaldura edo gaixotasun kronikorik? Zein? *Ez.*

Tratamendu medikorik jarraitzen du? Zein? *Ez.*

Medikamenturik hartzen badu, zer hartzen du? *Ezer ez.*

Zer dositan? *Ez dut hartzen.*

Elikapen dieta berezia behar al du? Zein? *Bai. Arrautzarik gabeko dieta.*

Ezinbestekoa da txertaketa agiriaren fotokopia aurkeztea. Gaixotasunen bat badauka edo medikazioa hartzen badu, hori ziurtatzen duen txosten medikoa aurkeztu behar da.

Beste datu batzuk: • Ba al daki igerian? *Bai.* • Hau al du bere lehen kanpaldia? *Bai.*

Oharrak: *Ez dago.*

Baimena

Joan Arregi Arana jn./and. (aita, ama edo tutorea), NA zk. hau duena: *832777*, baimena ematen dut nire seme/alaba *Paulo Arregi Etxebarria* kanpaleku horretara joan dadin eta izenpetzen dudan formulario honetan sartu diren datu guztiak egiazkoak direla aitortzen dut.

Donostia, 2010eko ekainaren 5ean

Sinadura

J. Arregi Arana



Iturria: Irakurmena eta ulermena lantzeko koaderno 5 (Ibaizabal)

XX. Eranskina: *Eguzkiak ortze urdinean nabigatzen*

Literatura

EGUZKIAK ORTZE URDINEAN NABIGATZEN

Eguzkiak, ortze urdinean nabigatzen, suzko ontzi bat dirudi, eta bere bidaiari munduko muino eta magalak berotu eta edertu egiten ditu, arratsaldean. Harrietan eta enborretan goroldioa hazten da, urre dirdirarekin, eta fruituen azalak ere horaildu eta gorritu egiten dira zintzilik. Haizeak hots xumea egiten du ibarreko arbola eta doreetan, aire gardenean errusinolak beren kantuen mataza soltatzeko ari direla. Intsektuak ere ari dira, baina sekretuan, orbelaren azpian, ia beste mundu batean, isilaren isilez.

Presebal, zaldun eta heroia, erromesitsu batekin suertatu da bidean, eta elkarrekin doaz, ibarrean barrena, belar fin eta kamomilek ozta-ozta estaltzen duten estartan aurrera. Persebal gaztea bere zaldi gorriaren gainean doa, ezkutu eta lantzarekin. Erromesitsu oinez, eta ortozik, bere oin biluzien lagun urrezko makila bat daramala.

Sagastira heldu direlarik, halako sagar onduren usaina dago airean, eta gerizpe aldizka batzuk. Eguzki errainuak hostoen artetik sartzen dira, fruitu jada doratuen azaleraino.

–Aizu, zalduna – esan dio erromesitsuak Presebali-sagar bat jan nahi nuke, hartuko al didazu onduren bat arbolatik?

JOSEBA SARRIONANDIA
Atabala eta euria (moldatua)




Iturria: Adi-Adi euskara 6 (santillana)

XXI. Eranskina: Posta elektronikoa



Mezu berria

Bidali Txata Erantsi Agenda Letra mota Kolorez Zirriborroa Argazki nabigatzailea Ereduek erakutsi

Igorlea: karmelo15@nireposta.com
Data: Larunbata, 2010eko urtarrilaren 30a 19:39
Hartzailea: maidertxof@live.com
Gaia: Urtebetetze festarako gonbidapena
Erantsi:  Inauterietako argazkia

Lehengusina maitea:
 Dakizun bezala, laster da nire urtebetetzea. Etxean ospatuko dugu, eta zu etortzea gustatuko litzaidake. Ez da izango joan den udan ospatu genuen zure urtebetetzea bezain festa zoragarria, hemen ez baitago igerilekurik, baina bloke guztiaren patio komunitarioa dago, eta hantxe ospatuko dugu. Ikastolako lagun batzuk etorriko dira, zuk ezagutzen ez dituzunak, baina gustatuko zaizkizu; oso jatorrak dira. Nire auzokide Aitor eta Alba ere etorriko dira, Gabonetan ezagutu zenituen haiek. Gogoratzen?
 Aitak dio bere tarta ospetsuetako bat egingo duela. Ea aurtengoan ez zaion erretzen! 😞

Amak esan dit izeba Montseri esateko ea noiz itzuli behar dion iaz utzitako liburua.
 Zer moduz zabilta eskolan? Nik azkenean 8 atera nuen maten.
 Eguraldi txarra daukagu hemen egun hauetan. Honekin batera bidaltzen dizut, behin batean inauterietan, ikastolan egin genuen argazki bat. Ea igartzen duzun nor naizen ni eta zerez nagoen mozorrotua. Asmatzen baduzu, bi tarta zati zuretzat, bata zurea eta bestea nire aitarena, kar-kar. Musu handi bat eta laster arte.
 Karmelo, Aparta

Iturria: Irakurmena eta ulermena lantzeko koaderno 5 (Ibaizabal)

XXII. Eranskina: Taloak

ERREZETA

TALOAK

Euskal kulturan hain errotua dagoen eskusoinu txikia kanpotarra omen da. Musika tresnarekin bezala, antzekoa gertatu da jaki eta elikagai askorekin ere. Tolosako babarrunak, esaterako, oso ezagunak dira; baina, berez, babarruna Ameriketatik ekarritako jakia da. Azoka askotan salgai egoten diren arto-irinez egindako opiltxoak edo taloak ere betidanik egin izan dira Euskal Herrian. Artoa, ordea, Mexikoko elikagaia da, eta taloak Mexikoko tako famatuaren antzeko itxura dute. Kasualitatea ote da? Auskalo!

Osagaiak

- ◉ 400 g arto-irin.
- ◉ Gatza.
- ◉ 275 g ur.

Egiteko modua:

- 1 Bota arto-irina ontzi batean, eta egin erdian zulo zabal bat ura isurtzeko.
- 2 Jarri ura eta gatzak berotzen. Ia irakiten hasten denean, itzali, eta isuri arto-irinean egindako zuloan. Erre gabe eta kontu handiz, nahasi arto-irina eta ura. Temperatura galtzen duen neurrian, eta egindako orean eskuz landu dezakegula ikustean, hasi lantzen. Ore homogeneoa lortzean, estali zapiarekin, eta utzi ordu erdiz han bilduta.
- 3 Orea zatitu eta bolak egin. Osagai horiekin lau talo eder egiteko adina ore lortzen da.
- 4 Taula edota mahai gainean arto-irin pixka bat zabaldu, eta hasi esku ahurrarekin txalo-txalo egiten ore bolak, ahalik eta talo finenak egiteko.
- 5 Zartagina ongi berotu, taloa bota eta bi aldeetatik egin.
- 6 Taloak betetzeko, berriz, askotariko osagaiak erabil daitezke: txorizoa, gazta, hirugiharra, txokolatea... On egin!

MARRAZKIAK EIDER-EIBAR IPUINA TXILIKU SUKALDEK

Iturria: berria egunkaria.

XXIII. Eranskina: *Emaizta gehiago egitea premiazko beharra*

Emaizta gehiago egitea, premiazko beharra

Joan den urtean itxaron zerrendan zeuden 271 pertsona hil ziren eta emaitza egiteko dauden gorpu apurren %20 ezin dira erabili senideek baimenik ematen ez dutelako.

Espanian iaz guztira 3.605 transplante egin ziren, eta munduan ez dago milioi bat biztanleko organo emaile kopuru handiagorik duen herrialderik (33,7). Datu horiek nola edo hala organoak ematearen inguruan dagoen sentiberatasun sozial handiaz mintzo dira, izan ere, emaitza horiek -gaur gaurkoz- ezinbesteko zutabea dira bihotza, gibela, giltzurrunak eta birrikak transplantatu ahal izateko.

Transplanteek, eta beraz organoak emateak, urtero mila pertsonaren bizia salbatzen dute, izan ere, daukaten gaixotasun larria dela eta, eskuarki transplantea behar izaten dute, urgente.

Espanian 1979an atera zen Transplanteen Legea aitzindaria izan zen, Horrek eta gerora egin zaizkion erregelamenduek, 1980ko Errege Dekretuan jasota, organoak emateko printzipio sustatzaileak garatzen dituzte, hala nola organo hartzailearentzako doakotasuna, emaitzaren truke kobratzeko debekua, hildakoaren ustezko baimena (senideek ezetz esaten ez badute, emaitza onartutakotzat jotzen da, hildakoak emateko borondaterik erakutsi ez bazuen ere) eta emandako organoen hartzaileentzako berdintasunaren irizpidea -ez da diskriminaziorik onartzen sexuagatik, arrazagatik, adinagatik edo egoera sozioekonomikoagatik.

Garbi dago motiborik aski badugula gure herrialdean organoen emaitzak duen egoeraz harro egoteko. Datu horiek guztiek, gaiari buruz dagoen legediarekin batera, espainiar hiritarrek gertuko pertsona maite baten heriotzaren aurrean duten izaera solidarioa eta eskuzabala erakusten dute, baina hala eta guztiz ere, hori guztia kontuan izanik ere, egoera hobeto daiteke, are gehiago, hobetu beharrean da.



Iturria: eroski fundazio web orria

XXIV. Eranskina: Azeri azkarra

AZERI AZKARRA

Oihan beldurgarri hartan tigrea zen jaun eta jabea. Animalia guztiak ikaratzen ziren haren atzapar izugarriak gogoratze soilarekin. Saguek, elefanteek, oreinek... denek zioten beldur eta denak ahalegintzen ziren haren bidean enbarazurik ez egiten.

Baina, egun batean, azeria aurrez-aurre topatu zen tigrearekin. Azeriak alde batera eta bestera begiratu zuen: han ez zegoen inolako ezkutalekurik.

Tigreak izutzeko moduko orro bat egin zuen eta hortz zorrotzak erakutsi zizkion. Azeriak aurre egin behar zion nahi eta nahiez. Atzeko hanken gainean jarriz, ahalik eta gehien tentetu zuen gorputza.

-“Ausartu zaitetz, memelo hori! Bibotearen ile bakar bat ere mugitzen baduzu jipoitu egingo zaitut! Ez duzu, ez, egun hau erraz ahaztuko!

Tigrea barrezka hasi zen, ozen, errime. Barre algara haiek oihan osoa beldurtzeko modukoak ziren.

-“Inozoa! Gorotz bat baino ez zara nire aldean eta! Inurri bat tigre indartsu baten aldean! Zein kalte egin ahal didazu zuk? Gizakiak, armatuta egonda ere, ikaratu egiten dira nire aurrean”.

-“Bai. Baina gizakiak nirekin ikaratzen dira gehien”.

-“Lelokeriak baino ez dituzu esaten!”.

-“Ez duzu sinesten ala? Erdu nire atzetik eta ikusiko duzu”.

Tigreak ezin zuen sinetsi ere egin. Bera baino animalia askoz txikikiago batek berari hordagoka? Nola liteke?

Azeriak herrirako bidea hartu zuen eta metro batzuk atzerago tigrea abiatu zen. Belar handia zegoen inguru hartan. Herrira gerturatu zirenean, azeria oihuka hasi zen: *“Banoa, banoa”* herritarrak izutu nahian. Belartza hartan ezinezkoa zen azeria ikustea, baina tigrea jauzika ikusi zutenean, herritarrek ihesari eman zioten izututa.

Azeria gelditu eta tigreari hurbildu zitzaion:

-“Ikusi duzu nola beldurtu ditudan? Herri batera hurbildu bezain laster, herritarrek ziztu bizian alde egiten dute. Zuri ordea inork ez dizu jaramonik egiten”.

Tigre memeloak arrazoia eman zion eta burumakur joan zen.

Azeriak, etxerantz lasai-lasai zihoala, gogoeta hau zerabilen buruan: *“Hortz zorrotzak baino askoz beldurgarriagoa eta arriskutsuagoa da jakituria”*

Iturria: Teatrotestuak.com

XXV. Eranskina: Pernando Amezketarra

WIKIPEDIA
Entziklopedia askea

Azala
Komunitatea
Albisteak
Aldaketa berriak
Ausazko orria
Laguntza
Dohaintza egin

Inprimatu/esportatu
Liburu bat sortu
PDF gisa jaitsi
Inprimatzeko bertsioa

Tresnak
Honanzko lotura duten orriak
Lotutako orrietako aldaketak
Fitxategia igo
Orri bereziak
Lotura iraunkorra
Orri honen datuak
Wikidata itema
Artikulu hau aipatu

Beste hizkuntzak 
English
 Aldatu loturak

Pernando Amezketarra

Wikipedia(e)tik

*Artikulu hau bertsolariari buruzkoa da; bere bizitzan oinarritutako telesaila gaitzat duena beste hau da: «*Fernando Amezketarra (telesaila)*»*

Pernando Amezketarra, jaiotzez **Fernando Bengoetxea Altuna** (Amezketa, Gipuzkoa, 1764ko urriaren 10a - 1823ko uztailaren 9a) bertsolaria eta plazagizona izan zen. Bere ateraldi umoretsuengatik, bizitasunagatik eta argitasunagatik oso famatua izan da Gipuzkoan bere garaitik, eta 1990eko hamarkadan argitaratutako marrazki bizidunen bitartez gaur egungo euskaldunen artean ere ospetsua. Oso bertsolari eta gizon berezia izan zen. Haren bitxikeriak eta ateraldi xebreak Gregorio Mujika jaunak jaso zituen behin eta berriro berrargitaratu den *Pernando Amezketarra* izeneko liburuan.

Eduki-taula [ezkutatu]

- 1 Bizitza
- 2 Erreferentziak
- 3 Ikus gainera
- 4 Kanpo loturak

Bizitza [aldatu | aldatu iturburu kodea]

Artzaintza izan zuen ogibide, bere garaiko herrikide gehienen modura. **1790ean** ezkondu zen Maria Joxepa Sagastume amezketarrekin, eta hamar seme-alaba izan zituzten; haietatik bi hil zitzaizkien, eta beste bi Miserikordiatik ekarri zituzten.^[1] Ixpille eta Azentzin Txikia **baserrietan** bizi izan ziren, eta azken horretan hil zen Pernando.^[2]

Aralarren artzain eta bestelako lanbideetan aritu bazen ere, bere garaian ospea eman ziona **bertsolari** dohaina izan zen, Gipuzkoako onena omen zen eta. Hezur-mamizkoa izanik, ezin esan historikoa zela, ez baita historia-liburutara pasa. Haren oroitzapena, ordea, ez da galdu, herriak gordea baitu **ahozko tradizioan**, bere garaiko oso gutxiak lortua dutena, historiarentzat inportanteagoak izan arren. Bere bertso eta ateraldi xebreak oraindik orain entzun daitezke.^[2]

Azpeitiko San Sebastianetara eraman zuten, beste bertsolari batekin indarrak neurtzera. **Tolosako inauterietan** Pernando, Zabala, Txabalategi eta Altamira Gipuzkoako onenak lehian egon ziren arratsalde osoan. **Billabonan** ere egon zen, Txabalategiren eta Zabalaren arteko apustuan, baina epaile bezala. Bi ordu bertsotan eman ondoren, ezin erabaki zein zen hobe eta epaileek bertso banatan berdinketa deklaratu zuten.^[2]

Pernando Amezketarra	
Bizitza	
Jaiotza	Amezketa, 1764ko urriaren 10a
Herrialdea	 Gipuzkoa, Euskal Herria
Heriotza	Amezketa, 1823ko uztailaren 9a (58 urte)
Lanbidea	
Lanbidea	bertsolaria eta nekazaria

Iturria: Wikipedia entziklopedia askea

XXVI. Eranskina: Autoebaluazio orria

BIKOTEEN AUTO-EBALUAZIORAKO ORRIA

Hamabortz aldia: ____ tik ____ ra. Hilabetea: _____

Ikasle Tutorea: _____

Ikasle Tutoratua: _____

In: Inoiz; BA: Batzuetan; BE: Beti

Irakurri aitzinetik. Biek...	IN	BA	BE
Testuaren ezaugarriak esploratzen ditugu			
Edukiaren gaineko hipotesiak egiten ditugu			
Gaiaren inguruan dakiguna aktibatzen dugu			
Izan ditzakegun zailtasunak prebenitzen ditugu			
Bikoteka irakurtzen. Tutoratuak...			
Hitzak banatzen ditu hauen esanahia hautsi gabe			
Etenak errespetatzen ditu: (.) (,) (...)			
Entonazio egokiarekin irakurtzen du (?) (!)			
Hitzak gehitu gabe, atera gabe, desitxuratu gabe edo aldatu gabe irakurtzen ditu			
Ongi ahoskatzen du			
Erritmo egokia erabiltzen du.			
Testuaren ulermena. Tutoratuak...	IN	BA	BE
Oinarrizko hiztegia ezagutzen du			
Testu ezberdinak ezagutzen ditu (gutunak, artukuloak, iragarkiak...)			
Odeia nagusiak identifikatzen ditu			
Irakurketa espresiboa. Tutoratuak...	IN	BA	BE
Testua ongi interpretatzen du eta ongi ematen du belarrira.			
Tutorearen jokaera. Tutoreak...	IN	BA	BE
Jarduera orriak prestatzen ditu			
Testua ongi irakurtzen laguntzen du			
Akatsak aurkitzen laguntzen du eta pistak ematen ditu			
Tutoratuari jardueretan laguntzen dio			
Irakurtzen jarraitzeko animoak ematen ditu			
Zalantzak argitzen ditu			
Tutorearen auto-pertzepzioa irakurle gisa hobetzeko	IN	BA	BE
Irakurketako jarduerak prestatzeak irakurriaren ulermena hobetzen laguntzen dizula uste duzu?			
Zure tutoratuari laguntzeak ozen irakurtzen hobetzen laguntzen dizula uste duzu?			
Zure tutoratuari lagunduz, irakurle gisa hobetzen laguntzen dizula uste duzu?			
Tutoratuaren auto-pertzepzioa irakurle gisa hobetzeko	IN	BA	BE
Zure tutoreak testua hobeki ulertzen laguntzen dizula uste duzu?			
Zure tutoreak irakurketa espresiboa hobetzen laguntzen dizula uste duzu?			

Berdinen arteko tutoretzak irakurle hobe izaten laguntzen dizula uste al duzu?			
Bikoteka idazten (egiten dugunean)	IN	BA	BE
Testua elkarrekin planifikatzen dugu			
Tutoratuak testua idazten du			
Tutoreak laguntza eskaintzen du tutoratua blokeatzen denean			
Tutoreak bere tutoratua animatzen du			
Gure testua modu espresibo batean irakurtzen dugu, eta akatsak zuzentzen laguntzen diogu elkarri			
Azken ekoizpenaren aitzinetik, testua berrikusten dugu.			
Oharrak (hurrengo hamabortz aldirako helburuak, arazoak...)			

Iturria: Bikoteka irakurtzen: Berdinen arteko tutoretza-programa, ikasle eta familiekin irakurtzeko gaitasuna hobetzeko. (2011).